


GALDY



**TXAKUR BATEN
GORA-BEERAK**

ZUBIRI TAR IÑAKI

Zubiri'tar Iñaki

GALDU

txakur baten gora-beerak

Depósito Legal: BI-2.635 - 1979

Gráficas Loroño - Dr. Entrecanales, 8, 1.º - BILBAO-2

AURKIBIDEA

Igesa	11
Ijitoak	27
Ulojio	45
On Motxu	69
Bakartasuna	87
Txanton	95
Martin Kokolo	133
Neretxu	157

Liburu barria idazteko goi-atsa ez yatoridan ezelan be, ta alde batetik bestera gogoak ukatzen eustan etorriaren billa niñoan.

Udako arratsalde berotsu aretan, lizardi baten gerizpean jesarrita, igarri bagarik lo geratu nintzan, eta alako baten ikusi neban...

Eiza-txakur bikain-bikaiña zan. Begi sarkor biziak niganantz zuzenduta ebazan, eta beroagaitik, urrean, miin zuri-gorria agotik dingilizka erakusten eban. Narru zurizka uletsua orban gorraillakaz apainduta eukan, eta beragandik erion zerbaitek, txakur gain-gaiñeko baten aurrean nengoala iñostan. Nigandik ur samar egoala, auxe esan eustan:

—Kaixo...!

—Kaixo...! —neuk be.

—Ba-dakit zer darabiltzun, baiña asmatzen dozun idaztia egiteko etorririk ez, ezta? Orretarako bearrezkoa dan goi-atsa ez datorkizu, ta or galduta zabiltz itsu baten antzera, bidea idoro naiez...

Orduan nigandik ur samar jesarri zan, eta isillune labur baten ondoren,

—Begira —esan eustan—, zer deritxazu, txakur baten gora-beerak idaztea?

—Txakur baten kondaira? Uste dozu txakur bati jazotakoa jakingarria danik? Ez dot egundo olakorik entzun.

—Ara... —esan eustan bedarrean etzanda jarten zala—, ba-

dira jakingarriak diran txakur askoren gora-beerak. Orretarako baiña, txakur egokiaz artu-emonetan astea bearrezkoa da, ta ni nozu zeuk bear dozuna...

Siñisgogor begiratu neban, baiña izan be, txakurra gero ta atsegiñago iruditzen yatan, eta nik azaltzen ezin nengikean benetasuna, aren begietan agiri zan. Eta olan ezpaitsu nengoala,

—Begira —esan eustan barriro—, zer galtzen dozu, neure gora-beerak entzuteaz? Jakingarriak ba-deritxazuz argitaratu, ta ezezkoan aztu ta kito.

Txakur arek iñostana, zentzunez betea zan, eta arazoari ekin ondoren, auxe esan neutsan:

—Tira ba... Gerturik nozu edesti ori entzuteko, baiña asi baiño len esan bear dautsut, zure gora-beerak oso gain-gaiñekoak izan bear dirala, osterantzean ez dodaz argitara emongo.

—Baiña ez al-dakizu, Pinto Andia'ren, Mungialde'ko arritasunaren semea nazala?

Au entzutean zur eta lur geratu nintzan. Nok ez abazan Pinto Andia'ren ekintzak ezagutzen? Izan be, inguru areitan Pinto Andia'ren ekintzak bala-bala egozan. Aurrean neban txakurra, bere aitaren jasekoa ba'zan, ez litzake makala izango. Alako baten,

—Bai —txakurrak jarraitu eban—, neure aita Pinto Andia izan zan, eta ni Galdu nozu. Nire gora-beerak jakinda, baten batek esango ba'leu:

—Begira: or doa Galdu, Pinto Andia'ren semea. Izan be, aitaren itxurakoa izanez gaiñera, bere jasekoa da...

Auxe izango litzake benetan, artu nengiken saririk andiena...

Galdu'k bere arbasoganako gomutapen maitea ausnartzen ebala, antza, isildu zan. Gero, auxe esan eustan:

—Baiña nire bizitzaren gora-beerak baldintza bat az jakieñerazoko dautsudaz: bizkaieraz argitara emotekotan...

Barriro isildu zan, urrutira begiratzen ebala. Gero, ariari ostera ekiten eutsala,

—Bai adiskide —esan eustan—, nik bizkaiera muiñetaraiño sartuta daukat, eta nire bizitza aiña maite dot. Ezin dagiket jasan, azkenengo urteotan sorturiko, erri-euskalkiak txokoratzen dauzan

joera barri ori. Asmakeria dan eta kutsu errikoia ez dauanaren alde ekin bear ori... Beraz, bizkaieraz argitaratzen gura ez ba'dozuz, nire gora-beerak ez dautsudaz jakieñerazoko.

Neu, gipuzkera osotuaren aldekoa izan naz beti, baita euskalkien eustaillea be, baiña baxotxa bere neurri ta maillan. Augaitik ba, auxe esan neutsan:

—Begira, Galdu, zuzen zagoz. Azkenengo aldiotan bizkaiera ez da aintzat artzen, eta diñostazunak neure kezkek biziagotzen daustaz, baiña ziñez diñotsut: oraingo onetan bizkaieraren alde egingo dot, euskera osotuaren alde beti izan ba-naz be.

Arrats-beera zan, eta lizar baten erpiñean kokaturik, txindor ñimiño batek eguzkiaren txirrindola gorriari, bere maitasun bizia abesten eutsan...

Illunabar ederrean iratzarri nintzanean, bakarrik aurkitu nintzan, eta astiro-astiro iretargi amesgarripean, etxera abiatu nintzan.

Indar ezkutu batek baiña, lizardi aretara erakarten ninduan. Zortzi bidar ara biurtu nintzan, eta txindor ñimiñoak illunabarrean, eguzkiaren eriotzari bere maitasun andia abesten eutsala, Galdu, eiza-txakur bikaiña, zortzi egunez agertu yatan, eta berak esan eustanari ezer ez kenduz, ez geituz, ona emen bere bizitzaren zortzi atalak.

Egilleak



Atzean aizkorea eroiala, etxeko mutilla urreratzen yatan. Astiro-astiro etorkidan geldiune laburrak egiñez, eten barik berba gozoak iñostazala. Gerriaren atzetik eskumeaz aizkoreari eusten eutsala, ezkerra luzatuz azur bikain bat eskintzen eustan. Azurra, nire endako edozeiñentzat zirikapen garai-eziña izango litzakean, baiña oraingo onetan ez ninduke aurrekoan lez ezustean arrapatuko.

Aurregunean, eskaratzean bazkal-ondakiñak gosez itsu eginda irusten nebazala, alako baten Errupiiñ'ek, etxeko mutillak, idunetik oratuta, narraz kanpora atara ninduan. Ikara itzel batek menperaturik, atzazkalak lurrean untzatuz jarki nintzakion, eta bidetik topatzen neban zeinnai sosterri oratzen neutsan. Baiña dana alperrik; Errupiiñ'en beso sendoek erruki barik neroen, eta azkenean etxetik atara egin ninduan.

Atadian dana gerturik egoan. Erdian, egurra zatitzeko arte-mukur lodia ikusten zan, eta onen gaiñean aizkorea diz-dir gaiztoaz nire begira egoan. Etsi-etsian, azkenengoz jarki nintzan, atzeko anakaz goldeko txirindola bati eutsi neutsala. Orduan mutillak teinkada basati bat azkatu egin ninduan, eta ezer egiteko gauzarik ez nintzala, nire burua mukur-ondoan ikusi neban. Errupiiñ'ek idunekoari gogor eusten eutsala, beste eskuaz aizkorea artu ta sorbatzaren zorrotasuna erpuruaz aztertu ta ontzat emonik, azkenengo ekitaldirako gertatu zan.

Esku bat azkatzeari eusten eutsala, besteaz nire buztana mukur-gaiñean jarri ta oin baten azpian zapaltzen eustala, esku

biakaz aizkorea jaso eban. Onetan, baiña, unetxu batez geldi-geldi geratu zan, agopean iñoala:

—Osaba Nixio'k lengo egunean iñostanez, ebate garbia izan bear dau, ta ondoen egiteko, laugarren eta boskarren azur-giltzen artean.

Jarraian, Errupin zenbatzen asi zan:

—Bat, bi, iru...

Orduantxe oiñaren zapalkuntzea zeozer arintzen yatala konturatu nintzan, eta beingo baten teinkada bizia egiñez, askatu ta ariñeketan soloetatik igesari emon neutsan. Beeko trokaraiño eldu arte ez nintzan gelditu. Atzetik, Errupin'en dei asarratua yatordan:

—Txintxilintxu... Txintxilintxu... ona, ona...!

Baiña nik jaramonik be ez. Nire billa ordu bete bat-edo alpe-rrik jardun eban, eta noizbait aspertuta, etxera biurtu zan.

Jazoriko guztiaren erruduna, Osaba Nixio, mutillaren osa-bea zan.

Errupin'ek gazterik zizparako zaletasun bizi-bizia erakusten eban; eta erabilteko garaia eldu yakonean, aitak orreitariko tramankulu bat erosi eutsan. Mutilla baiña, benetako eiztaria izateko, txakur ona bear ebala oartu zan, eta ekiñaren ekiñez, aitagandik eiza-txakur bat erosteko baietza-jadetsi eban; baiña arazo onetan, beste askotan lez, osaba Nixio'ri, amaren nebeari, burubi-dea eskatu bear, eta dei egin eutsoen.

Osaba Nixio, Ameriketako izandako baserritarra zan, eta diruketa bat egin ondoren, bizi izatera Mungia'ra etorri izan zan, bere etxea gure baserritik ordu beteko bitartera egoala. Osaba onek guztitarikoa jakiten eban, eta atzerrian lorturiko bizi-ikaspen eta diruketeaz, edonoregan zauskada itzela egiten eban. Astiro ta andiputz, bere jakituri-osiñetik gaiari etorkiona, Abade Nagusi baten antzera bota oi eban. Gure Errupin'ek osaba Nixio'k iñoanari ago-zabalik entzuten eutsan, eta onek esanikoa, beste barik egi biribiltzat artzen eban.

Olan ba, zizpea erosteko garaia etorri zanean, osaba Nixio Mungia'ko iskillutegi batera lobeagaz joan zan. Dendako zizpa guztiak bein eta barriro aztertu ondoren, eta gautu zanean eroape-na galduta, dendariak, osaba Nixio, Errupin eta guzti, giltzapean

ixteko gerturik egoala, osaba Nixio'k azkenean zizparik onena baita merkeena aukeratu eban.

Gero, Errupin'i txakurraren arazoa aurkeztu yakon, eta jakiña, ez zan txakurrik izango osaba Nixio'ren eritxia ezagutu arte. Eta beti lez, osabeak ba-ekian munduko eiza-txakurrik onena non idoro leiteken. Ludiko eiza-txakurrik onena nerau azaldu nintzan, baita zizpeaz jazo zana bardin-bardin, merkeena be.

Au dala-ta, edestiaren atetik sartu nintzan eta barkatu egidazue au arrokeria ba'deritxazue, baiña esango dautsuena egi-egia da. Izan be, eper-txakurreme bikain baten zazpigarren edo txakurkume-ondakiña nintzakizuen. Munduko onena nintzanik ala ez, ez dagokit neuri esatea, ori zeuek atarako dozue nire bizi-tzaren gora-beerak jakinda gero. Merkeena izan ete-nintzan, baietz esan bear izango dautsuet. Zazpiretarik artean, ni txikerren eta ezaiñena nintzan, gosearen gosez naruru ta azur-eskukada baiño ez nintzan-eta. Amagandik edoskitzeko garaia zanean, nire anai-arrebak arloari jo ta ke emoten eutsoen, eta nik gaiso onek, gose gorria asetzeko, ez neban azkenengo errape tximur eta utsa baiño, txirlora bat baiño geiago emoten ez ebana.

Olan ba, beste txakurkumeak gero ta ederrago; ni ostera gero ta makarrago. Sarri askotan, etxeakoandreak errukitsu begiratzen ninduan, eta esku samurraz azurrak laztantzen eustazan, antzi bat iges egiten yakola. Orregaitik, egun aretan osaba Nixio ta Errupin txakur baten billa etorri yakozanean, etxeakoandrea poztu egin zan. Une aretantxe etxean bakarrik egoala-ta, osaba-lobeak tratua aregaz egin bear izan eben. Etxekoandreak arazoa argi-argi ikusi eban, eta eretia bere onerako —ain zuzen be, nire onerako—erabiltea erabagi eban.

Osaba Nixio'k txakurkumetarik ederrena aukeratu eban; baiña etxeakoandreak aregaitik eskatu eutsan diruketeak, indianoari edorea birrindu eutsan. Gero, besteakaz bardin, euren urrepisua gura eban. Azkenez, osaba Nixio'k, pipertuta,

—Zer —esan eutsan—, Ingalanderra'tik egazkiñez bialdu dautsuez oneik, ala?

—Ez, baiña berorrek ezagutuko ba'leu txakurkume onein aita...!Mungialde guztian ez da ikusi a lango eiza-txakurrik. Mungia'ko albaiteruari itaundu baiño ez dau berorrek besterik. Gaiñe-

ra, eiztari guztiek Pinto Andia'ren ekintza arrigarriak ezagutzen dabez. A lango txakurrik ez ei'da jaio oraindiño...

—Eta garbantzuri —ebagi eutsan osaba Nixio'k atzamarra niganantz zuzenduz— Pinto Andia'ren oiñorderik onena izango yaku urrean, ezta?

—Ai, Jauna! Berorrek ez bei itxuretatik ebatzi. Pinto Andia'k onen itxura mirriña ei'eban jaiokeran, baiña gero.... Aren gorabeerak liburu mardo bat artuko leukee.

Osaba Nixio'k erdeiñuzko keiñu bat az begiratu ninduan, eta etxera biurtzeko gertatu zan.

Orduan etxekoandreak eretiari onura ataratzeko asmoz, auxe bota eutsan:

—Baiña berori ta mutilla onaiño etorri diran ezkeru, txakurkume txiki au eroan dagikee.

—Ori? Etxeko saguek jan egingo leukee. Obe emen geratu daitela, ea onen gorabeerakaz beste liburu mardo bat idazten aal ba'da.

Au esanik, osaba Nixio bidean beera abiatu zan.

—Ez joan, mesedez —esan eutsan etxekoandreak—. Eroan au. Duan emongo neuskio-ta...

Osaba Nixio biurtu egin zan, eta unetxu batez ezpaitsu egon ondoren, etxekoandreaki eskerrak emon eutsazan, eta jakeko sakalean sartu ninduan. Gero, bera, Errupin eta irurok etxerako bidea artu genduan. Bidean beera giñoazala, osaba Nixio'k sekeletik atara egin ninduan, berekautan iñoala:

—Garbantzuri au ilten ba'yaku be, ez dogu gauza andirik galduko...

Au esanik, osaba Nixio'k barriro jakeko sakelean sartu ninduan, eta bidean beera giñoazala, sakeleko epeltasunean lo geratu nintzan.

Etxera eldu baiño ez, Errupin'ek artu ta suetean itzi ninduan. Garren berotasunak erakarrita, mukurrai urreratu nintzaken, eta inguruak begiz aztertzen asi nintzan. Andik laster, bonbiltxu bete esne ekarrela, mutilla agertu yatan, eta edanerazo egin eustan. Edan-ala artu neban, eta amaitu orduko aseturik, barriro mukurren ondora joan nintzan, eta oe egokiren billa aldamenak aztertzen asi nintzan. Luzaro baiño len, txingarretatik ur samar,

abarka batzuk aurkitu nebazan, eta oneitariko baten sartu nintzan. Abarkea oe bigun izan yatan, eta ames gozuen artean, urrengo goizalderarte lo egin neban.

Egunguentia egin zanean, Errupin beste bonbiltxu bete esnez sukaldean agertu zan, eta barriro asebate bat izan neban, lengoan lez, lo geratu nintzala. Saguek ez ninduen jan, eta etxean asko baziran be, ez yatazan urreratu. Era onetan egun zoragarriak igaro ziran, gorputza biribiltzen eta anditzen yatala. Andik laster, ezin nintzan abarkan sartu, ta orduan azpigarri biguneko otzaratxu bat atondu eustan, eta emen neure aukeran lo egiten neban.

Amabitsu egun igaro ziran, eta bizitzarako jakin-nai jarkigatzak menperaturik, etxeko bazter guztien aztertzeari emon neutsan. Laster etxekoan oin-artetik aalbait ariñen nenbillen, Errupin agertzen zanean batez be. Olan ba, sarri askotan oinperatzeko zorian izan nintzan, eta arazo onek gure Errupin larritu egin eban.

Osaba Nixio'k "Goietxe" eritxan gure etxeari, astero-astero ikerraldi bat egiten eutsan, berak iñoanez bere biotzeko senideak ikustearren, baiña nire ustez, arrebeak txakoliñaz bustiteko emoten eutsazan gaztai ta ziztorrakaitik. Olan ba, urrengo ikerraldian, Errupin'ek osabeari bere kezkek agertu eutsazan.

—Ez larritu, mutil —esan eutsan arranditsu osaba Nixio'k—, arazo orri merezi dauan ardurea emongo yako, ta urrengoan bein betiko atonduko da.

Izan be, urrengo astean etxekoandreak atonduko askariari ekiteko zala, osaba Nixio'k sakeletik zeozer atara eban, eta andikiro zabalduz, lobeari esan eutsan:

—Ona emen txakur orrentzako ziurtasuna.

Jarraian, txintxilintxu bat erakutsi euskun, eta pozez beteriko Errupin'ek, ari bat az idunetik eskegi eustan. Ordutik ba, neure aukeran nenbillen ezere bildur barik.

Osabearen areitariko ikerraldi baten, Errupin'ek neuri izen edo deitura bat emoteko garaia zala esan eutsan, eta ea zer eritxon "Lau" izena.

—Orreitariko izenak zentzunbakoak dozak. Mungialde'n berreun baiño geiagok izen ori izango yoeke, baita "Bi" ta antze-

koak be. Ez, mutil, emon izan yakun zentzuna zeozetarako izan bear dok. Ago unetxu baten...

Osaba Nixio'k gaztai-zati bat agoan sarturik, eta bere matrail-agin osasuntsuen artean birrintzen ebala, gogo-ausnar sakon bati emon eutsan. Ezustean, deadar bat urten yakon:

—Baiña, Errupin, zelan ez yat lenago bururatu ba? Txakur ori beti batetik bestera txintxilintxu joaz yabik. Orra or, ba, "Txintxilintxu" izen aproposa mundu onetan aproposarik ba'dok.

Eta au esanik, bere asmamen zorrotza ospatzeko, urrean, arrebearen txakoliñari zurrutaldi onuragarria emon eutsan, eta gero esku-gaiñaz ezpanak txukatuz, lobeari irribarretsu begiratu eutsan.

Errupin, baiña, ez zirudian osabearen burutapenez guztiz pozik, eta auxe esaten ausartu zan:

—Baiña, osaba, deitura oso luzea da, ta gaiñera lagunek barre egingo dauste. Naiago neukez "Gorri", "Lau", "Zuri", "Pinto" edo antzekoak emotea.

—Ken adi mutil. Ik ez yakik izen egokiak zelangoak dozakan. Begira, gauzetarako jatortasunera jo bear. Mungialde onetan, iri atsegin yakizak izenak, dozenaka dozak, eta beste olakoa ire txakurrari emoten ba'yok, ire aurka joatea izango litzakik. Pentsaik basoan aizela ta eure txakurrari dei egiñik, amazpi deitura bardiñeko yatozakala. Orduan zer? Anka egin edo bestela amazpiok irekin etxera ekarri. Erabilli eik ire burua, ta nigaz bat etorriko aiz.

Errupiñ'ek, osabearen itz jakintsuai men egin bear, eta ordutik "Txintxilintxu" izendatu eusten, askotan, laburtzearren, Errupiñ'ek "Txintxil" esaten ba-eustan be. Niri bardin yatan naiz batera naiz bestera deitu nengien.

"Goietxe" baserrian pozik bizi izaten nintzan, indarra, zentzunak eta bizi-ikaspena irabazten nebazala. Baiña adu txarreko egun baten, gauzak okertu egin ziran, eta erabilli bear neban bizikera paketsutik, latz eta mingostasunaz beteriko beste batera eroan ninduen. Ona emen zelan jazo zan...

Udako amaieran gengoan. Ordurako sei illabeteko txakur zoli ta ernai nintzan. Arratsalde eder bateko eguzkipean, batetik

bestera ariñeketan jardun izateagaitik zerbait nekatuta, etxeko atadian etzanda jarri nintzan eta loak artu ninduan. Ez dakit lotan zein luzaro egon nintzan. Alako baten, autu baten zurrumurrak iratzarri ninduan. Errupiñ'ek, lepokada bedar bat az orduantxe eldu izan zan, eta osaba Nixio, oiko askaria arturik, aulki baten gaiñean egoan, eta bake andiz zigarro bat erreten eragoion.

—Bai, mutil —iñotson osabeak nire jabeari—, tamal andia dok, eta egiteko ori gerorako izten ba'yok, etxakiat arazoa betiko oker izango ez ete-dan. Begiratu egik: lengo egunean txakur onen aita, Pinto Andia, Mungialde'ko txakurrak onena, baita Bizkai'koa be batzuen eritxiz, ezagutu naiuan, eta eper-txakur on bati yator-konez, buztana atonduta yeuan. Entzun egidak ondo, Errupin; Txintxilintxu'ri orixe bera egiten ez ba'yautsaguk, gero ta gatxago izango yakuk.

—Baiña, osaba —Errupiñ'ek itaundu eutsan—, zetarako eba-gi bear yako buztana olango txakurrari?.

—Ara, ba —bota eutsan maisu baten antzera osaba Nixio'k—, laburragoa geratu yakion.

Berba jakintsu oneik esanik, eta buztanari begiratzen eustala, osaba Nixio'k zigarroari must luzea emon eutsan.

—Baiña zegaitik ebagi bear yako, osaba?

Egia esateko, osaba Nixio'k ez ekian zergaitia, baiña berbalapiko arek ezin zeitekean lobearen aurrean ez-jakintzat geratu, ta unetxu batez arazoa bere adimenean erabillirik, irribarretsu ta maisu baten itxureaz auxe esan eutsan:

—Begiratu egik Errupin; ik ba-yakik Txintxilintxu'ren endakoek egaztiren bat idoroten yoekanean, arri eginda lez aurreko anka bat jasorik eta buztana luze-luze eginda, zirkiñik egin barik gelditzen dozakala. Ara ba, buztana olan eusteak enda oneko txakurrari inkeza itzela yakek. Auxegaitik, Abere-babesleen elkarteak eiztariai eskatu yautsiek, txakurren buztana laburtzea, oneik nasaiago jardun yaigien...

Osabearen azalpenaz Errupin ez zan oso irabazita geratu, baiña eiza-txakur asko buztan motzaz ikusi izan ebala, gomutara ekarri eban, eta une batez begiratzen ninduala, oldozkor geratu zan.

Andik laster, itaundu eutsan Errupin'ek:

—Osaba, zelan egiten da ebate ori?

—Begira, Errupin: mozketea garbi ta erabatekoa izan bear dok, laugarren eta boskarren azur-giltzaren artean, orretarako sorbatz zorrotzeko aiotz edo aizkora txiki bat erabilliz. Ebate garbia izango dok, azurra zozpaldu barik, zauria laster osatu yakion. Ez egik gerorako itzi. Oraintxe dok txakurrari ori egiteko sasoia.

Inkeza itzelak egin bear izan nebazan, andik ariñeketan iges ez egitearren. Inoiz ez ezaguturiko bildur bakan batek biotza zapaltzen eustan, baiña nire buruari zin egin neutsan, ez neukela ezelan be onartuko nire buztan luze ederrari, inongo mozketarik egioen. Ez orixe...! Neugan geien ederresten nebana, nire buztan luzea zan, eta ez neuke itziko moztu egiden. Nire buztanbako itxu-reak, belarriak kendu dautsoezan gizon batena emongo leuke, ta nire buruari zin egin neutsan, ez neukela itziko olango basakeririk nigaz egitea.

Arrezkero, etenbage gerturik nengoan, eta Errupin urrera-zen yatanean, jaramonik egin barik aldentzen nintzakion. Bameritxon mutilla nire jokabideaz oartu izan zala, bekoki-zimurra gero ta sakonago marrazten yakon-eta. Nire aldetik, Errupin'en laztanak irrikatzen nebazan, baiña artutako jokabidean tinko nirauan, nire buruari buztana bagarik asmatzea gero ta iguiñago egiten yatala.

Goseak eraginda, bazkariko ondakiñak irusten nebazan bein baten, mutillak ezustean artu ninduan; baiña atal onen asikeran azaldu dautsuedanez, buztana mukur-gaiñean nebala ta arek aizkorakada bataz mozteko agiñean zala, azkenean ozta-ozta iges egin aal izan neban. Gau aretan, guenez, guztiak lotan egozala, etxera biurtu nintzan, eta atadian etzanda gaua emon neban.

Urrengo egunean gosearen gosez bazkal-ondakiñai ekiten neutsela, Errupin, zurikeri ta palaguetan barriro etorkidala konturatu nintzan, eta orduantxe bein betiko etxe aretatik iges egitea ebatzi neban. Mutilla nigana oldartzen zala, alde egin neban eta eskaratzeko txoko baten kukuriotu nintzan. Orduan, mutilla urreratu egin yatan eta idunekotik oratzeko etorkidala, bere anketan zear iges egin neban. Gelako atea itxita egoan, eta oremaiaren azpian ezkutatzea baiño beste igesbiderik ez neban ikusi. Leku

gutxi egoan bitarteko aretan; baiña sakona zan ezkerro, Errupin'ek ezin ninduan arrapatu. Orduan, itzelak botaten eustazala, makilla bat artu ta oremaipean makillaka asi yatan. Makillakadak min andia egiten eusten, eta uluka asi nintzan, bildur larriak menperatzen ninduala. Une aretantxe, ateko kisketa igitu ta etxekoandrea eskaratzean sartu zan. Tximista baizen arin zabalune aretatik oldartu, ta soloetatik ariñeketan asi nintzan.

Atzetik, Errupin'en deadarrak etorkidazan, dei egiten eustala:

—Txintxilintxu, Txintxilintxu...! Ona... Ona...!

Eta olan, ain zoriontsu bizi izan nintzan etxea, betiko galdu neban... Atzetik gauza asko izten nebazan, baiña nire barrukoagaz bakean geratzen nintzan. Apaintzen ninduan buztan luze ederra onik atara izan neban, eta sentipen onek bururapen illunak uxatzen eustazan.

Gaua arin yatordan, eta piñudi batetik barrendu nintzan. Ango illuntasunaz oitu nintzanean, baso-soil baten piñu-orratzez inguraturiko tantai ederra ikusi neban, eta enbor-ondoan kukurioturik, gauaren bakeak urrumatu ninduan. Aize leun batek piñusarriari antzi itoak eragiten eutsazan, eta zugatzen adaburuen atzetik, izarrak kuikuika ebiltzan. Udagoia asibarria zan, eta basoan giroa atsegin eta pozgarria izanik, igarri barik loak artu ninduan. Noizean bein iratzarri egiten nintzan, baiña gauaren sorginkeriak barriro amesetara neroan.

Egusentia egin zanean, basotik or-emenka asi nintzan, nire bizikera barriaz aurreneko ezaguerea egitearren. Ez neban, baiña, ezer bizirik urretik ikusi, ta andik laster jakin neban zergaitia. Basoan zear niñoanean, dingilizka neroian txintxilintxuaren zarateak, izaki guztiak uxatzen ebazan, eta bai lur-gaiñeko bai eguratseko eizea, izuaren izuz sakabanatu egiten zan. Egun aretan ez negikean janaririk arrapatu, ta illuntzea ostera etorri yatanean, gosearen gosez ibarretara jaistea erabagi neban. Urrun samar argi-txorta bat ikusi zeitekean, eta beste barik gurdibide batetik arantz abiatu nintzan. Ordu bete igarorik, erri anditsu bat aurkeztu yatan, eta onetatik barruratu nintzan.

Mungia, erri txunkun eta atsegiña zan. Ni ikusirik eta txintxilil-otsak erakarrita, urrean, mutil batzuk aurrean erabilli

ninduen, eta igesari emon bear izan neutsan. Kaleetan zear galdu-ta ibilli nintzan gosea baretzeko asmoz. Azkenez, etxeetako argiak banan-banan amatau ta kaleetako joan-etorriak isildurik, txintxilin-otsak lagunduriko, ibiltzale bakarri biurtu nintzan. Inguratzen ninduan isiltasunak kezkatu, eta janarirako bearri-zanak zirikatuta, erriko aldamenetara abiatu nintzan, eta argiak ezabatu ziranean, nire usaimen zorrotzak meta andi bateraiño erakarri ninduan.

Erriko sastarlekua zan, eta metatik gora ta beera arratoitzar asko ikusten zan. Neure txintxilin-otsak entzunik, iges egin eben, eta bakarrean or-emenka janari-billa asi nintzan. Luzaro barik okela-ondakin batzuk ikusi nebazan, eta asetu arte irunsi ondoren, leku aretatik alde egin neban. Goizaldea etorri yatanean, txaraka baten ezkutatu nintzan.

Olan ba, txakur alderraien bizikereari emon neutsan, eta onekin batera, bizi-ikaspén ugariaren jaube azaldu nintzan. Egunoro, illunabarra urreratzen zala, Mungia'rantz bideratzen nintzan, eta oiko sastarlekura eldurik, arratoitzarren artean janari-billatzeari ekiten neutsan. Asikeran, neure txintxilintxuaren otsa entzunik, arratoiak iges egiten eben; baiña egunen bidean goseak bultzaturik, nire ondolik ibiltzen oitu ziran, eta andik laster ez eusten jaramonik egin. Nik, baiña, ezin neban marraskari iguingarri arein urretasuna eroan, eta sarri askotan zaunka biziz uxaten nituan.

Txarrena baiña, laster etorri yatan. "Goietxe" n bizi izan nintzan bitartean, asteen bein Errupin'ek berarizko jaboï batz garbitu oi ninduan, eta koko lepotarrik ez neban ezagutu izan. Orain osterá, arratoiak kutsututa, ardiz josita nengoan, eta lengo nasaitasuna galdu egin izan yatan. Ardi kezkatu aginkari areik, ez ninduen bakean izten, eta nire janaria billatzeko jasaten nebazan ardurai, koko areik sortzen eusten artegatasuna geitzen yaken. Etenbage atzeko erpak erabilli bear izaten nebazan; baiña alan eta guztiz be, gero ta ugariagoak egin yatazan.

Egusentia baiño len, oiko txaraka bakartian barriri ezkutetzen nintzan, eta lotan nengoala, ardi madarikatu arein ziztadak amesak ames txarrak biurtzen eustezan. Etenbako buruko min arek ez ninduan egunez ez gauez bakean izten, eta madarikapen

arekin betiko bizi bear nintzanaren bururapenak, zoratu egiten ninduan.

Bein baten, sastarlekuan janari billa niarduala, arrainki-ondakin batzuk idoro nebazan, eta goseak eraginda, erabatean irunsi be. Ase izan nintzanean, nire gordelekurako bidea artu neban. Ur nintzala, alako baten goralari batek astindu ninduan, eta, dar-dar andi batek jabeturik, len irunsi guztia bota neban. Gero, guztiz indarge, aal neban eran txarakara elduta, larri-larri etzan nintzan. Ez dakit olan zein luzaro iraun neban; baiña senetara etorri nintzanean, urrengo eguneko illuntzea zala iruditu yatan. Egarri kiskalgarripean, andik ez urrun igaroten zan errekatxu bateraiño joan, eta egarria bareturik, etzalekura biurtu nintzan.

Alako baten ibilli nenbillela, ezustean nire txintxilintxuaren lokarria sasi baten biribilkatu yatan, eta askatzeko teinkada bizi batzuk egin ondoren, lokarria eten egin, eta txintxilintxua sasia atzitu geratu zan. Jazoera onek poztu egin ninduan, eta gero azalduko diran beste alde onak ekarri eustazan.

Ondoeza joan yatanean, guztiz makal nengoan; baiña, igarotakoa gogoraturik, nire buruari zin egin neutsan, ez neukela barriri sastartegietan ezelan be jardungo. Gose ta indarge, txarakatik urrundu egin nintzan, eta mendietako basoen laguntzaren billa aldatz-gora bideratu nintzan. An goian, piñu anditako baso garbi bat aurkitu, ta axe bizilekutzat aukeratu neban.

Basoan zear nenbillela, txintxilintxuaren soiñu aspergarria ez entzuteak, bake andia ekarten eustan, eta gaiñera zentzumenak zorrotzu yatazan. Baiña askozaz andiagoa zan ekarritako beste alde on bat: arrapagaien billa isiltasun betean joan aal izatea. Zelan edo alan janaria topau bear, bestela nireak egingo leukean.

Egunez ezin negikean arrapagai asko idoro, baiña gabez basoa izaki askoren joan-etorriez beteten zan. Goseak eraginda, eizari ardura andienaz emoten neutsan. Niretzat, bizi ala ilteko arazoa zan. Eizarako geien lagundu eustana, nire usaimen zorrotza zan. Gabez, ikusmena ez yatan garrantzi andikoa, baiña entzumenak, osterá, asko laguntzen eustan.

Aizea aurka etorkidala ta zear-mearka nenbillela, basoa aztertzen neban, eta zana zalaren usaiña nigan etorrira, isillean

urreratzen nintzakion. Ur nengoala, sabel-gaiñean narrazka, entzumenaz mugatzen neban, eta azkenez, eraso ta arrapatu egiten neban. Azkenengo unean, ilusmenak be zerbait laguntzen eustan.

Asieran uts asko egin neban; baiña andik laster zeozer artaturik, gero ta gose gutxiago izan nintzan. Arrapagairik errazekak saguak ziran, baiña askozaz naiago nebazan, aroko lenengo otzak eragindako erdi lotan aurkitzen ziran katamixarrak. Geien atsegin yatazanak, baiña, egaztiak ziran. Oneik arrapatzea, ostera, ez zan edozelango arazoa, lotan geldi-geldi egozalako. Gaiñera usain gutxi erielata, ez ziran arrapagai errazak. Sasi-artean kokaturik, baiña, txori-mueta batzuk idoro zeitekezan. Olan, ba, eskura etorkidana arrapatuz, indarra ta osasuna irabazten nebazan. Gauza batek bakarrik gogait eragiten eustan: ardi madarikatu-tuen ziztadak. Zelan, baiña, oneik bein betiko garbitu...?

Udagoi-miñean, ego-aizearen ats epelak basoari alako itxura zoragarria ekarri eutsan. Larradietako orlegi biziaren artean, areitz eta lizardiak adaburu urrezatuak erakusten ebezan. Izadi guztia atsegiñaz jabeturik zirudian, eta inguratzen ninduan edertasunak kutsututa, zorionsua nintzan.

Arratsalde sargoritsu baten, giroaren astuntasunak jabetuta, errekatxu baten ertzean lokumaren menpe netzan. Alako baten, aizeak azeriaren usaiña ekarri eustan. Beste ertzetik iraduz barik azeri bat uretara urreratzen zan. Ezin neintekean usaindu aizeak bere aurka jokatzen ebalako, ta sasi baten atzetik nire aukeran ikusi aal izan neban. Jakin-guraz jabetuta, txitik atara barik, ari begira geratu nintzan.

Agoan zerbait eroiala, azeria uretan baretxe sartu zan, ur sakonetara eten barik yoiala. Nire alderantz urak sakonagoak ziran ezkerro, niganantz etorren. Azkenez, agoan eroiana ikusi negikion: zotz antzeko adar-zatia zan. Urek ankak estaldu eutsoezan, eta sabeletik gora asi yakozan. Laster, buztana urpean ostendu ta bizkarrean gora igon, baiña azeria beti aurrera, sakonago-tzen zala. Gero, burua urpean ostentzen asi yakon, eta jarraian musturra be bai. Azkenez, zotza baiño ez zan ikusi. Une batez olan geratu zan, eta noizbait zotza askaturik, iko bat az ertzetik gora ostendu zan.

Ur-gaiñean yoian adar-zatia urreratu egiten yatan, eta

ikusmiñez jabeturik, begiak aretan untzatu nebazan. Andik laster nire albotik igaro zan, eta urretik ikustean, arrituta geratu nintzan.

Zotza, ardiz josirik yoian, eta irakiten lez aren gaiñean bate-tik bestera ebiltzan. Batzuk uretara oldartzen ziran; besteak, barriz, or-emenka ibilliz, ez ekien zer egin. Gero, zotza urrundurik, begimenetik galdu egin yatazan.

Orduan, dana argi ikusi neban, eta pozezko zaunka bat az, neu be uretan sartu nintzan, agoan beste zotz bat neroiala. Azeriari ikusiriko ber-bera egin neban. Laster konturatu nintzan, ardiek nire gorputzeko busti-uneak izten ebezala, goiko ziurtasunaren billa. Azkenez, musturra urpean sartu ta aal neban luzaroen olan iraunik, zotza askatu egin neban.

Gau aretan nire ametsak ez ziran ames txar biurtu, ta iñoizkorik ondoen lo egin neban. Ba-nekian aurrerantzean ardi mada-rikatuak nigandik zelan uxatu.

Ego-aizeak ekarririko eguraldi epela amaituta, ortzia odei goibelez estaldu zan, basoan otza ta euria agertzen ziralta. Edozelan be, aterpe bat bear neban. Baso aretan, ez negikean gordeleku egokirik idoro, otz eta euritearen erasoai aurre egiteko, ta augaitik andik alde egin bear izan neban.

Mendiko bizkarra igarorik, beste aldeko aranerantz zabal-tzen ziran basoak aztertu nebazan. Piñudiz inguraturiko lizardi baten sakonenean, billaturikoa idoro neban. Are-aitz baten azpian, bear neban zuloa aurkeztu yatan, eta lizarrai aizeak erau-ziriko orbelek, azpikoa estaltzen eben, etzaleku epel, legorra, egiñez.

Eta negua igaroteko asmoz, gordelekutzat aukeratu neban. Egunez, lo edo lokumaren menpe zuloan irauten neban; baiña gaua etorruta, janari-billa abiatzen nintzan, auxe unerik egokiana zan-eta. Eguraldi ona izanik, arrapaketea ondo samar egokidan. Gau euritsuetan gordelekuan irauten neban, arrapagaiak urri izaten ziralako, ta gaiñera ez yatan atsegin euri otzaz txirrioan ibilte-rik.

Gau baten, bizpairu egunez euriagaitik zuloan urten barik egonda gero, atertu egin zan, eta gose gorriak eraginda, eizara abiatu nintzan. Gordelekutik urruntsu ibilli nenbillela, euri lodi

batek artu ninduan, eta or-emenka alperrik jardun ondoren, zulo-
ra biurtzea ebatzi nebala, abazuzak eta gero edur-jasa lodiak artu
ninduen. Gaua illun-illuna zan, eta nire zulora eltzeko luzaro ibilli
bear izan neban. Otza azurretaraiño sartu izan yatan, eta etzan
baiño ez, otz-ikara batek artu ninduan. Andik laster, sukarraren
menpean, zentzumena galdu neban.



Iratzarri nintzanean, euria atertu izan zan, eta ilteko zorian egoan eguzki aul baten azkenengo printzek, nire gordelekua urreztatzen eben. Joan izan yatan sukarra, baiña noizean bein estulaldiek bularra astintzen eusten, sudurretik dindirria eridala. Guztiz makal nengoan, eta janari ta berotasunaren billa joan bear nebala iñostan barruko oar-dei batek, osterantzean geisoalditik ez nintzake onik urtengo-ta.

Nora ez nekiala. mendian beera abiatu nintzan, eta azkenez, erreka baten ertzera eldu nintzan. Orduko, eguzkia ostendu egin izan zan; baiña ozkarbia zanez, aldamenak ondo ikusten nebazan. Errekatxua zearkatu ta latzin baten gora niñoala, janariaren usain jarkieziña eldu yatan, eta andik laster bide-zabal baten ertzean, alboan zaldi bana eben gurdi bi ikusi nebazan. Gurdi bien artean, gizatalde bat su andiaren inguruan egoan. Sugaiñean, iru-oiñeko luzetik dingilizka, maskillo bat ikusten zan, eta onek, gosezko larritasun itzela sortzen eustan usain gozozoa zabaltzen eban.

Taldea zazpi gizasemek osotzen eben: senar-emazte bikote zaarra, gaztea zan beste bat, eta iru ume. Garaitu ezin neban lei biziak arekana neroan, eta astiro-astiro urreratu egin nintzakien. Une aretan janari-apur baten truk, neure buztan osoa eskin-tzeko gerturik nengoan.

Alako baten, gizon zaarrak ikusi ninduan, eta egur-zati bat jaurti eustan esanez:

—Alde ortik! Naiko lagun gara emen, alperreko ago zikin bat beteteko.

Egur-zatiak nire ondoan jo eban, baiña nik zirkiñik ez, dana bardin yatan-eta. Orduantxe, neskatotxua zan umetarik txikiena, ariñeketan urreratu yatan eta beso bataz nire lepoa inguraturik, beste eskuaz burua laztandu eustan. Zorion utsaz begiak itxi yatan, eta geldi-geldi geratu nintzan.

—Luzero... Luzerotxu...! —gizon gazteak oi u egin eutsan—, itzi egizu pizti ori, ez yatzu gauza onik etorriko-ta..

—Ez, aita. Aspalditik txakur bat izateaz ames egin dot, eta auxe da bialdu izan yatana.

Barriro laztandu ninduan, eta alako baten aurpegitxua miatzatu neutsan. Umea barrez asi zan. Gizon biak urreratu yakuzan. Ijito zaarrak gazteari auxe esan eutsan:

—Begira, seme, gagozan aldiotan ezetarako gauza ez dan txakur bat janaritzea, ez da erraz izango.

Gazteak tinko begiratu ninduan, eta gero besteari auxe esan eutsan:

—Ba-leiteke, aita; baiña onek enda onekoa dirudi, ta zelan edo alan onura ataraku dautsagu. Gaiñera, Luzerotxu'ren gogokoa da. Ezta Luzerotxu?

Berba oneik esatean, umeari uleak laztandu bitartean, irri-barretsu begiratu eutsan

—Bai, aitatxu.

Orduan Luzerotxu'k maskillotik koillarakada batzuk atara, ta azpil-bete janari gozoa alboan ipiñi eustan. Ez neban egundo be alako jakirik txastatu izan, eta aida baten dana irunsi neban. Jarraian, Luzerotxu'k sutara urreratu ninduan, eta otz nintzala ikusirik, burusi-zati bat azaldu ninduan.

Gero, guztiak apaltzen asi ziran, eta autu laburra izanda gero, senar-emazte zaarrak gurdi baten sarturik, beste senar-emazte ta umeak lo egiteko beste batera joan ziran. Joan aurretik, Luzerotxu'k laztan batzuk egin eustazan, eta txingarren ondoan burusian biribilkatuta itzi ninduan. Ba-zirudian bizitzak azkenez irribarre egiten eustala.

Olan ba, ijito-taldeagaz bizi barri bati emon neutsan. Len adierazota lez, senar-emazte bikote zaarra, euren seme ta errana-gaz endari dagokion bizikera alderraiari emonak ziran. Bikote gazteak mutil bi ta alabatxua ebezan, gazteena Luzerotxu izanik.

Taldeari begiraldi laburra egin baiño ez zan besterik, Luzerotxu guztien erregintxua zala jakiteko. Guztiek eregaten eben, eta aren edozein guraria beteteko beti gerturik egozan.

Luzerotxu guztiek maite izatea ez zan arritzekoa. Gorputzez iia baizen malgua, igitzen zanean ba-eban guztien adikune erakarrren ezin-esan alako jas sorgingarria, eta txoria egaz egiteko danez, berak dantzan jarduteko egiña zirudian. Ule baltzaz inguraturiko aingeru-aurpegiak, eta onetan ezarrita egozan artizar langoak ziran begi illun amaibakoak, gogo-sakontasun adierazoten eben. Ijitorxu aren begiak etenbageko laztan-iturriak zirala esango neuke.

Onezaz gaiñera, ezin nengike egokiro esan Luzerotxu zelangoa zan, bere gorputzaren jasa ta begien edertasunaren ondoan, beste guztia ezabatzen zan-eta.

Olan ba, Luzerotxu'ri erion lillurak erakarrita, ijito-taldeagaz geratzea erabagi neban. Gaiñera ezin beste aukerarik egin; guztiz makal eta goseturik nengoan ezkerro, ez negikean nerez onik atara, ta lengo gau aretan su-ondoan etzanda, izarren diz-dirpean, Luzerotxu'ren begien erakarpen laztangarriari betiko jarraitzea erabagi neban, eta olan, ijito-taldeagaz bizitza alderrai bati emon neutsan.

Egunsentia egiten zanean, Miko eritxon ijito gazteak, gurdi biai zaldi bana buztartu oi eutsen. Bitartean, Pina eritxon Miko'ren emazteak eta onen aita-amagiñarrabak, Pando'k eta Kuka'k, aurregunean erabillitako ontzi ta beste tresnak, urrenen egoan errekatxuan garbitu oi ebezan, eta gero gurdietatik eskegita, beste leku batera bideratzen ziran. Umeak lotan zirauen, eta iratzarten ziranean, gurditik jatsita, bide-ertzetatik aldia emoten eben, geldialdi ugariak egiten ebezala, euren ikus-guraria zerbaitek erakartzen ebanean.

Miko ta onen aita Pando gurdien ondoan yoiazan, eta edozein ondakin-meta aurkiturik, burdin-txatar, paper, eta piltzarren billa arakatzen eben, eta jasoriko arrapakiña ondo sailkatuta, egokion zorroan sartzen eben. Pina eta Kuka zeregin oneitan tartekoak izaten ziran. Eguerdian, amabitako arin bat artu ondoren, bideari jarraitzen eutsoen. Illuntzea urreratzen yakenean, bide-ondoko zelai baten gelditu, zaldia askatu, iru-oiñekoa jarri, sua

iziotu, ta onen inguruan umeek jolas egin bitartean, gizonek erre-
tzeari ta emakumeek apari atontzeari ekiten eutseen. Aparia egu-
neko janaririk ugariena izaten zan.

Bestetan, Kuka'k ume-zaindaritzari emoten eutsala, Miko
bere aita Pando'gaz zorro bana eroiela, urreneko errira abiatzen
ziran baturiko txatarrak saltzeko. Bitartean, Pina jangaien billa
errira yoian eta bazkal-orduko, janari ta janari ez zana gaz eto-
rren. Nik ez dakit, dana diruz erosiriko izango ete-zan, baiña sarri
askotan ekarrezan aza, tomate, ugazak-eta, inguruko soloetatik
izango ez ete-ziran susmo doillorra yatordan. Geienetan, gizonak,
illundu baiño len biurtzen ziran, eta aurpegia zelan, joandakoa
alan.

Batzuetan, Miko, errira bakarrik yoian, eta orduan Pando'k
gurdi-azpitik besokada mimen artu ta otzaragintzari emoten eu-
tsan. Arazo onetan sarri Kuka'gaz ziarduan, eta atsegingarria zan
benetan bikote zaarrari begiratzea, arintasun arrigarriaz otzara
politik egiten ebezala. Luzerotxu'ri be, aitita-amamaren jardunari
begiratzea benetan atsegin yakon, eta esku bataz laztantzen nin-
duala, auxe iñostan:

—Begiraik, txakurtxu, zein otzara politik egiten yoekazan
aitita-amamak... Orrein eskuak egaz yoiazakan txiribiriak yiru-
diek, eztok?

Bein baten, nire ondoan kukurio jarrita sointxu malgua
kulunkatzen ebala, auxe esan eustan:

—Ba-al-yakik gauza bat? Oraindiño ez yauat izenik emon,
eta i lango txakur politik izena eroan bear yok. Gaur berton,
gauean, izarrakana nairokanean, iretzat izen polit bat eskatuko
yautseat. Ez al-yakik gau guztietan izarrrik-izar dantzan egitera
nairokanik?

Urrengo egunean iratzarri baiño ez, pozez ikotika etorri
yatan, auxe iñostala:

—Ba-yaukoat, ba-yaukoat. Izarrek iretzat "Gal" izena auke-
ratu yautsuek. Ori, izenaren erdia dok, baiña egunen baten euri
yagokikan izen osoa idoroko yokala esan yaustiek..

Eta aurpegitxua neurean jarrita, mosu bat emon eustan eta
nik miasketa bataz ordaindu neutsan.

Eguraldi ona zanean, sarri askotan Luzerotxu'k dei egiten

eustan, eta biok latzin eta errekatxuen ertzetatik lora ta pitxien
billa joaten gintzazan. Baturiko lorakaz lepokoak egin oi eustazan,
eta gero nire idune-inguruan jarririk, gurdietara biurtzen gintza-
zan. Beste batzuetan, zotzak jaurtiten ebazan, olàn iñostala:

—Gal, Galtxu, arrapaik eta ekarri eidak!

Arrapalada baten nekartson, eta orduan pozez gaiñezka
besarkatzen ninduan. Gau guztietan oerakoan,

—Gabon, Galtxu —iñostan— izarrakaz jolastera nairoak. Ezin
yoekala ni barik lo egin esaten yaustiek-eta. Gauoro dantza barri
bat egiten yautseat, eta askotan aizea lez sentitzen nok. Orduan
izarrrik-izar ikotika ñabik. Il naitekanean, eurakaz betiko jolas egi-
tera eroango nairokala yíñostiek. Izango al dok...!

Goizoro, jagiten zanean, Luzerotxu'ren lenengo agurra neu-
retzat izaten zan. Gurdiaren atzekaldean lo egiten eban, eta nik
kanpoan, baiña bera zetzan ondoan beartzen ninduan.

Taldeko besteai ez neutsen jaramon andirik egiten. Asieran
ez ziran nitzaz larregi arduratu, ta gose gorria emoten ez ba'eus-
ten be, bizirik irauntzeko ozta-ozta baiño ez izanik, koipe zantzu-
rik bage aizea baizen arin ibilteko gai nintzan. Auzi oni buruz, zal-
diakaz batera nenbillen. Oneik ez eben pentsurik artzen, baiña
arrapatzeko gai ziran bide-ondoko bedarrentzat, eskubide osoa
eben. Olan ba, osasun eta arintasunean, ijitoak, zaldiak eta ni,
aren baten genbiltzan.

Asieran, bideetatik giñoazala, soka bataz gurdiaren atze-
tik lotu oi ninduen. Niretzat au gauzarik aspergarriena izaten zan,
eta gurrpil-orraillen etenbako igaroteak, nekatu egiten ninduan.
Laster, baiña, askebidea otu yatan: gurdiaren zear jarten nin-
tzan, eta gurpillari irristadan ukutuz, sokea eten egiten zan. Au
ikusirik, kate bataz lotu ninduen, baiña au be alperrik. Ekin eta
ekin, gurpillaren karraskapenak katebegiak ebagiten ebazan.
Noizbait asperturik, nire aukeran ibilli neintela itzi ninduen.

Luzerotxu'ren neba biak, mutil esanekoak ziran, eta gaiñe-
ra beti edo geienetan Luzerotxu'gaz niarduan ezkerro, ez neban
arekaz zer-ikusirik andirik izaten. Jakiña, ijito-kumeak izanik, ba-
eben endaren geldirik ezin egonaren joera, ta sarri askotan, bizi-
tzaren alde egiteko, aita ta aititagaz arrapakiñen billa joaten ziran.

Gurdi baten, Miko'k eta onen emazte Pina'k, mutil biakaz lo

egiten eben. Bestean, bikote zaarra Luzerotxu'gaz, eta len esan dodanez, onen ondoan lurrean etzanda jarten nintzan.

Bein baten, oi baiño goizago kapardira etorri izan zan Miko, bere aitagana joan zan, eta zearretara begiratzen ninduala,

—Begira, aita, —esan eutsan—, txakur orreaz zeozer egin bear dogu, alperreko agoa baiño ez yaku-ta. Enda onekoa emoten dau, ta nik uste, saltzekotan sari ona atara leitekela...

Berbok entzutean, otz-ikara batek menperatu ninduan. Tximista baizen argi, mendian erabillitako bizikerea aurkeztu yatan, ta are txarragoa zana, Luzerotxu galduku neuke. Kaiolan zoraturiko txori baten antzera, biotz-taupadak arindu yatazan. Orduan, Pando'ren erantzuna aditu zan:

—Ara, seme, nik ez neuke olakorik egingo; Luzerotxu'ri nai gabe itzela ekarriko leuskio, txakur ori betseña lez maite dau-ta. Bere kutuna da, gero ta maiteago dauala. Ez olakorik egin, seme, bestela Luzerotxu'k egundoko atsekabea artuko leuke.

Miko'k zigarr-o-mutxikiña lurrera bota ta zapaltzen ebala, une batez isillik iraun eban, eta bere buruari berba egiñez, auxe esan eban:

—Aspaldi onetan gauzak okertu egin yakuz, eta janaria urri izanez gaiñera, ezertarako gauzarik ez dan txakur bati agoa bete egin bear yako... Zerbait asmatu bear dot.

Andik laster, Luzerotxu urreratu yatan, eta jolasteari emon geutsan. Urrengo egunean jagi baiño ez, Miko bere aitagana joan zan eta biak txutxumuka egon ondoren, oiko zeregiñetara joan zan. Alako baten, Pando'k zurezko kutxa bat ekarrela, aga baten gaiñean untze batzukaz josi eban. Kutxea alde batetik bakarrik egoan zabalik. Orduan ogi-zati zaar andia kutxan sartuta, auxe agindu eustan:

—Gal, arrapaik arin gero...!

Aginduta lez, ikoti garbi bat az okondoa arrapatu neban, eta Pando'ri eroan neutsan.

—Ederto, Gal, baiña agiñen artean ez estutu orren gogor. Begiraik, ozta-ozta oratu agiñakaz, akaztu barik.

Laster ikasi neban ogiari bigun-bigun oratzen, eta azkenez, Pando'k saritzat ogi-zati bera emon eustan. Gero, oikoa

zanez, Luzerotxu ta biok errekatxu baten ertzetik osteratxu bat egin genduan.

Urrengo goizean, Miko ta mutillak txatar-billa joan zira-nean, Pando'k dei egin eustan, eta auzo-bidekoa zirudian es-tarta baten gora joan gintzazan. Laster, bide-ondoan zurezko kutxa aga baten gaiñean ezarrita ikusi neban, Pando'k berak aurregunean atondu ebanaren antzekoa. Barruan ogi luzeak ego-zan, eta nik ogia arrapatzeko gertatzen nintzanean, Pando'k ezet adierazo eustan, eta beste barik aurrera joan gintzazan. Andik las-ter, iru edo lau etxeko auzune batetik ez urrun, beste ogi-kutxa bat aurkeztu yakun. Orduan, agindu eustan Pando'k:

—Ea, Gal, arrapaik!

Tximista antzera lau ogietarik bat artu ta ijito zaarrari emon neutsan. Jarraian, bide beretik biurtu gintzazan, eta lengo ogi-kutxara eldurik, Pando'k ogia arrapatu nengiala agindu eus-tan.

Ogi biakaz kapardira biurtu gintzazan, Pando'ren aurpegia-ri poztasuna eriola. Egun aretan oi baiño janari geiago emon eus-ten, eta gosez geratu ba-nintzan be, ez oiko beste.

Laster, ba, arazoa menperatu neban, eta ogi-lapurretara bakarrik joaten nintzan, olan ijito-taldeari ekintza ezin egotzi eikioen-eta. Ogi-kutxa bat baiño geiago izatekotan, beti goikotik asten nintzan, eta ogia kapardira ekarririk, bigarren ogi-billa' abiatzen nintzan. Egunoroko arrapakiña ogi bitakoa izan oi zan, eta geienetan arazoa ondo urteten yatan, ogia artu baiño len ingu-ruak begiz zeatz aztertzen nebazan-eta. Bein edo bein lapurketea egitean ikusi ninduen, eta tximista baizen arin ogiari agiñen artean eutsirik, igesari emoten neutsan, baserritar baten deada-rrak atzetik erraikidazala. Bein baten, zipaz tiro bi jaurti euste-zan, eta berun-txirri batzuk zauritu ninduen, baiña bat az beste, gauzak naiko ondo urteten yatazan.

Ijito-taldearen ogigiña izateak ederrespen andia ekarri eus-tan, eta aurrerantzean guztiek begi onez begiratzen ninduen, ber-ba urriko Miko latzak batez bere. Aseten ez ba-nintzan be, bizirik irauteko lain emoten eusten, orraitino.

Jaiegun-arratsalde baten, oitura zanez, bazkaria amaituta ijito-taldeak atsedinari emon eutsan. Miko'k eta Pando'k txuntxu-

muka ziarduela, larretan zear Luzerotxu'gaz jolasteari emon neutsan. Alako baten, Miko'ren txistu zorrotza aditu zan. Axe eban niri dei egiteko ezaugarria.

Tximistea baizen ari ondoratu nintzakion, eta Pando'k soka batatz lotuta eban gauza bat, zuku-atzaz erakutsi ta,

—Arrapaik, Gal, arrapaik! —esan eustan—.

Oillo-lumakaz egindako gauza biribilla zan, eta alde batetik soka-zati lodia dingilizka eroian. Onen muturrean, korapillo bat ikusten zan. Laster ulertu neban. Lumazko biribilkiak, oillo baten gorputza irudikatzen eban, soka-zatiak idunea, ta korapilloak, oilloaren burua. Ari batatz, Pando'k oillo —irudiari eragiten eutsan, onen ariñeketea itxuratuz, klo-klo, klo-klo, zaratatsuak botaten ebazala. Au dana au aztertzen nebala, Miko'k bigarrenez:

—Arrapaik, Gal, arrapaik, senteilla...!

Orduan oilloari eraso egin neutsan, eta gorputzetik atzitu neban. Baiña Miko'k ezezko oiua ta keiñuak egin eustazan. Noizbait, azkenean ulertu neban. Oilloa idunetik arrapatzeko zan, eta gero aidean bira egiñez idune-azurra apurtu ta Miko'ri ekarri bear neutsan. Jarduketa onetan luzaro samar iraun genduan, eta illuntzea orduko, Miko'k nire aalegiñak ontzat emonik, iñarkuna amaitu zan.

Nik ez neban somatzen zetarako izango zan ainbeste ekin eta ekin, baiña urrengo egunean zergaitia jakin neban. Arrastian, illunabarra baiño len, urrun samar egoan auzune baterantz, Miko, Pando ta irurok abiatu gintzazan. Bidea itzita, txaraka batetik bizpairu etxetara urreratu gintzazan. Etxe batetik urruntsu, Oillararak zuzenduriko oillo-talde bat latziñean zear kortara bideratzen zan. Gugandik ez urrun yoiala, Pando'k zirikatatu egin ninduan:

—Arrapaik, Gal, arrapaik...!

Urrenena arrapatu naiez tximista antzera oldartu nintzakion; baiña Miko'ren ikaskizunai oiturik, eta oilloek zear-mearka ariñago ekiñaz, oartu nintzaneko, ostendu izan yatazan.

Zer esanik ez, Miko'ren aserrea nire utsa ikusirik! Mormo-xetan luzaro jardun eban, eta azkenez, kapardira eldu gintzazan. Gau aretan, apaldu barik lotara joan nintzan.

Urrengo arratsaldean, beste ekitaldi bat egin genduan. Orain, baiña, Pando ta biok bakarrik giñoazan. Guk biok bakarrik

joatea, obe litzakela esan izan eutsan Pando'k Miko'ri, onek arte-gatu egiten ninduan-eta. Olan ba, beste auzune batera aalik ezkutu- en bideratu gintzazan, eta inguruak ondo aztertuta, egokigun oillo-taldea aukeratu genduan, eta urreraturik, unerik egokienean arekanantz oldartu nintzan. Au egitean, lodi ta astuna zirudian oillo zaar bat begiz jo neban, eta arrapalada baten oilloari eraso, idunetik oratu, bira bat aidean, eta oillo ederra Pando'ren oiñetan itzi neban. Unerik galtzeke, kapardira biurtu gintzazan, ta guztien oneritsia irabazirik, lengo eguneko baraua burutik kentzeko lain emon eusten; baiña niretzat onena, Luzerotxu'ren besarkada maitekorra izan zan.

Ekin eta ekin, nire jarduna ikasi neban. Bai, noizbait ez zan nik begiz jotako oillorik iges egikeanik, eta andik later, ijitoek euren buruak lazkan sartu gura ez eben ezkerro, neu bakarrik joateko agintzen eusten. Olan ba, goizean ogigin eta arrastian okelari biurtu nintzan. Egia esateko, bere burua ederretsi dagian txakurrak, ez dautso ezelan be oillo-arrapatzeari emon bear; baiña geren au jasaten ba'neban, Luzerotxu'ri jateko ona ekartearren izaten zan, eta nire kutuna atsegiñez jaten ikusteak, jasan bear neban lotsa gorria, aztuerazo egiten eustan.

Egunak gora-beera andi barik igoroten ziran. Gure jarraigoa sartalderantz yoian, eta Bizkai'ko Enkarterria zearkaturik, Santander'en sartu gintzazan. Edonon udabarriaren zantzuak ikusten ziran, eta neguan jasandako zoritxarrak astiro-astiro gogotik ezabatzen yatazan. Goraldi betean, zabaldietako bizitzaren edertasuna berpizten zan, eta nire barruan oi ez lango joran batek menperatzen ninduan.

Bein, erri andi samar baten inguruan kapardia jarri genduan, eta arratsalde aretan, amama Kuka, Luzerotxu ta irurok, errira jatsi gintzazan. Errian sartzerakoan, baratz batetik lora gorri batzuk biderantz jausten ziran, eta pozez txaloka, Luzerotxu'k areitariko ederrena artu ta uleen artean jarri eban. Andik later, erriko enparantzara eldu gintzazan, eta onen zear giñoazala, leio batetik eresi zoragarri baten soiñua, eguratsean zear zabaldu zan.

Alako baten, eresiaren neurriari jarraituz, Luzerotxu dantzari asi zan... Ba-zirudian danza egiñiko aingeru baten amesa

aidean zear yoiala guztien ikusmena laztanduz, edo-ta buruan eroian lora-usaiña igikun ederretan itxuratu izan zala. Nok erakutsi izan eutsan orren zoragarririo dantzaren egiten? Iñok be ez. Beretik etorkion erakusten eban jas gorena. Ezpairik bage, Luzerotxu dantzaren egiteko jaioa zan, txoriak egaz egiteko lez.

Gero, eresia amaitu zan, eta oneaz batera Luzerotxu'ren ekitaldia. Gizatalde batek txaloka inguratzen ginduzan, eta andra eder dotore bat, umeagana urreratu ta mosu luzea emon eutsan. Axe izango zan, urrean, Luzerotxu'k arrotz bategandik arturiko lenengo mosua. Orduan, Luzerotxu'k ule-arteko larrosa ederra artu ta andreari irribarretsu eskeiñi eutsan. Berealaxe, andrearen ondoan egoan bere senarrak, sakeletik euneko txartel bat Luzerotxu'ri emon eutsan, eta andreak barririo mosu bat emoten eutsala, biak joan ziran.

Etxera biurtzen gintzazanean, eunekoa eskuan estu-estu eroiala, amama Kuka'ren aurpegiak dizdir egiten eban, eta Luzerotxu'ren begiak amesetan lez zirudien, ez baiña diru-amesez, edertasun-amesez baiña, noizbait umeak bere gogoa dantzaren idoro izan ebalako.

Ijitoek ez eben gura ezelan be, Luzerotxu'ren doaia alperrik galdu. Diru-iturriari onurea atara bear yakon, eta ondoretzat, taldearen bizikerea osoro aldatu zan. Orain, Luzerotxu taldearen izarra zan, eta dana onen gaitasunari menperatzeko zan. Olan ba, ezustean, izakerea zearo bestelatu yatan.

Erri anditsuak geure elburu biurtu ziran. Oneitariko batera eldurik, inguruetan kapardia jarri ta erritarren arratsaldeko lana amaituta gero, gure taldeko guztiok erriko enparantzara joaten gintzazan, eta emen Miko'k eta Pando'k euren txilibituak atara ta joteari emoten eutsoen, amama Kuka'k eta Pina'k atabal banaz laguntzen eutseela. Miko'k eta bere aitak polito jarduten eben, eta egunen bidean euren trebetasuna obeagotu egin zan.

Baiña Luzerotxu dantzaren asten zanean, ikusle guztiak beroni adi-adi jarten ziran, eta umearen erti gorenari begiratu baiña ez eben egiten. Izan be, ezin asmatu umearen dantzea baiña gauza ederragorik. Ni neu beti begira nengoan noiz elduko zan arratsaldea, Luzerotxu'ren ekitaldi zoragarria ikustearren.

Dantzaldia amaitzen zanean, kirten luzeko antoxin batz,

Pina'k ikusleen artetik diru-batuketa egiten eban. Txin ugari batu ondoren, kapardira biurtzen gintzazan. Agirian egoan ijitoai diru-sarrerak anditu izan yakezala. Gurdi bateko zaldi zaarra saldu ta onen orde besté gazte bikaiña erosi eben. Jatekoa be askozaz obea zan, eta ez etorren kapardira soloetatik artez, orain errietako dendetatik guztiz ondo estalduta baiña. Neu be ez nintzan aspaldiko ogi ta oillo-arrapatari lotsatia. Zenbat-gura jaten neban eta ain zuzen be, nortasunean egunik-egun andiagoa nintzan.

Bein baten, mutikoak geisorik egozala-ta, andrazkoak kapardian geratu ziran, eta Luzerotxu; Miko, Pando ta laurok, oiko dantza-ekitaldira abiatu gintzazan. Luzerotxu'ren jarduna amaitu zanean, gure diru-batzaillea zan Pina, gugaz ez egoan ezkerro, bururapen polita otu yatan. Antoxiña kirtenetik artu ta agiñen artean ondo eutsita, ikuslerik-ikusle diru-eske joan nintzaken. Ekintza onek abegi on-ona lortu eban, eta guztien barre ta zarata ugarien artean, iñoizkorik geien batu genduan. Aurrerantzean, ba, diru-batzaille biurtu nintzan, eta eginbear onek neure garrantzia goratu eban.

Gero, beste bitxikeri bat otu yatan. Ikuslerik-ikusle niñonean, oneitarikoren bat ez ikusiarena egiten ba'zan, orduan anka bat jaso ta belaunean antoxiñaz joteneban, eta ez nintzan joaten antoxiñean txin batzuk itzi egidazan arte. Egikera onek jendeari barre eragiten eutsan, eta ikusleak pozago ta guk diru geiago.

Bein baten, gure ekitaldia amaiturik, ijitoek dendetan zeozer erosi gura ebela-ta, unetxu batez bakarrik geratu nintzan. Ormenka nenbillela, alako baten gizon bat urreratu yatan, eta laztandu egin ninduan. Itxura ezin obeagokoa zan, eta ibilteneasi zanean dei egiten eustan ezkerro, aren atzetik asi nintzan. Ezustean, berebil batetik ur zala, atea zabaldu ta indarka sarrerazo ninduan. Barruan egoan bere lagun batek, burutik zorro bat sartu eustan, eta aida baten erritik aalik ariñen urrundu gintzazan.

Gero ta txarragoak ziran bide ezbarदिनेtatik ordu bete batez-edo ibilli ostean, berebilla gelditu, ta nire burua etxe eder baten aurrean ikusi neban. Gero, areitariko batek idunekotik oratu ta aldetxe baterantz eroan ninduan. Olan giñoazala, batak besteari auxe esan eutsan:

—Ba-daukazu orain gura zenduan eper-txakurra.

—Bai, ta ona be. Txakur asko ikusi izan dot, baiña onen itxura ederrekorik ez.

—Ikusi ba'zendu antoxin bati agoan eutsirik, zein ederto atara-erazoten dautson onek dirua jendeari... Txakur au sentetillea baizen argia da.

Biek barre egin eben. Gero, aldetxeko atea zabaldu ondoren, gelatxu baten sarrerazo ninduen, eta txoko baten janari-zati batzuk jarririk, atea itxi ta joan egin ziran.

Gelea txikia zan. Leiatilla batetik eguneko azken-argia sartzan zan, barrukoa erdi illun agertzen yatala. Ikara larri batek artu ninduan, eta zoraturik, ateari erpe ta aginka eraso neutsan. Laster konturatu nintzan, baiña, alperreko zeregiña zala, ta arnas-estuka txoko baten etzanda jarri nintzan, erosta egiteari izten neutsala. Barrutik, baiña, atsekabe larri batek menperatu ninduan, gogo guztiaz Luzerotxu'ri ixillean bein eta barriz dei egiten neutsala.

Gero, leiatillako argi motela ostendu zanean, naigabe ta neke-pean etenbageko ames txarrek artu ninduen. Ezustean, iratzarri nintzan. Leiatillatik, illargiko izpi galdu batek barrukoa zurizkatzen eban, eta orduantxe nire kutunaren dei etsia nonbaitetik etorkidala iruditu yatan:

—Gal, Galtxu maitea, zergaitik itzi nok? ator neugana barriro, i barik ezin yoat lorik egin-eta...

Orduan andik iges egiteko leia bizia nitzaz jabetu zan, eta zoro antzera leiatillaren aurka oldartu nintzan. Buruaz leiarra apurtzean, zarata gortugarria sortu zan, baiña atzean ba-egoan oraindiño urteera galerazoten eustan zerbait. Oillotegietan erabilten diraneko loro-sare bat illargipean islatzen zan. Orduan sumin basatiaz eraginda, agiñakaz ariak bana-banaka ebagi nebazan. Gero, soiñaren bultzada itzelaz leiatillea zearkatuta, zabaldira urten nintzan.

Une aretantxe, etxeko bazter batetik gizaki bien islak agerturik, egundoko ariñen eta oiuzugarriak botaten ebezala eraso eusten. Arrapalada bizian igesari emon neutsan, eta andik laster, arnasea artzearren txaraka baten babesean gelditu nintzan. Bizkarrean azkura andia oartzan neban. Laster konturatu nintzan, bizkarrean beera odola parrastaka eridala. Leiatilla zearkatzean,

laukian itsasiriko leiar-zati batek zauritu izan ninduan. Atsedean labur baten ondoren, baiña, beste barik, ibiltuari ekin neutsan barriro.

Len igarririko dei ezkutua gero ta argiago etorkidan, eta illargipean ondo marrazturiko bide-zidorretatik, iñoizkorik ariñen mendian beera abiatu nintzan. Ez dakit arrezkero zenbat ordu igaroko ziran, baiña indarrak amaitzen yatazala, Luzerotxu'ren deadar larriak aditu nebazan:

—Gal, Galtxu, erdu, erdu...!

Zaunka bizietan erantzun neutsan, eta ibillera ariñagotuz aurrerantz oldartu nintzan. Azkenez, goizaldeko itzal eta argiunetan kapardia agertu yatan, eta ondoko bide-ertzean, nire biotzeko Luzerotxu neure begira egoala ikusi neban.

—Galtxu —esan eustan—, ire begira ordu batzuk emon yoadaz, baiña azkenean be ba-aut.

Nire makaltasuna ikusirik, Luzerotxu'k katillu bete esne ekarri eustan, eta nik gose itzelak eraginda esnea artzen neban bitartean, umeak bizkarreko zauria garbitu ta jasorikoa azaldu eustan.

Ijitoek nire utsegitea oartu ebenean, berandu zan eta jakin aal izan eben guztia, berebil baten eroan izan ninduela izan zan. Gero, zer egin ez ekiela, kapardira biurtu ta nire zain egotea erabagi eben. Gau aretan Luzerotxu lotan egoala, ezustean iratzarri, ta adi-adi, urrundik nire dei larria etorkiola iruditu yakon. Orduan jagi, ta bide-ondoan geratu zan, arima osoaz niri dei ta dei.

Axe izan zan, urrean, nik gabeen entzuniko dei bizia. Antza, bien arteko gogo-lotura bat sortu izan zan, eta onek neure kutunagana eroan izan ninduan.

Luzerotxu'k bere azalpena olan amaitu eban:

—Ba-ál-yakik gauza bat, Galtxu? Nik uste, biok alkar aditu yagikegukala, alkargandik orren urrun izatekotan be. Begiraik, Gal, egunen baten nigandik urrun ba'engo ta bear izango ba'intzakidak, ire gogamen osoaz dei egidak, eta entzungo aut urrean...

Nire poza Luzerotxu barriro ikusteagaitik andi-andia izan zan. Orduan, berak esanikoari ez neutsan jaramon bereizirik egin, eta pozaren pozez umeari eskutxuak miazkatu neutsazan.

Arrezkero, gure bizikerea betiko antzean igaro zan, Luzero-

txu'k dantzarako eban jasa gero ta bikaiñagoa egiten yakola. Eki-taldi guztietan, abegi ona baita txalo ugariak be jasoten genduzan, eta bizitzak irribarretsu gerabiltzan.

Arratsalde bateko ekitaldian jarduten genduala, udabarrarian sarri askotan jazoten danez, odei batzuk ortzia estaldu ta bapatean euri-jasa lodi batek artu ginduzan. Leku aretan aterperik ezean, luzaro barik guztiok txirrioka busti gintzazan.

Kapardira eldu baiño ez, Luzerotxu laztana dardarrez menperaturik eta sukarrak kiskalduta, oeratu zan. Gau osoa amaibako ames txarpean, zentzunbagekeriak esaten iraun eban. Goizaldean urreratu nintzakion, eta, ni ezagutzean, besarkada estu-estua emon eustan, eta orduan nik aurpegitxu maite kiskalgarria miazkatu neutsan.

—Nire Galtxu maitea —esan eustan berba itoaz—, ez adi nigandik urrundu. Ire laztanak aurpegia ozkirriten yaustiek-eta. Ez joan, egon ementxe nire ondoan, bear aut-eta...

Egun aretan bere ondolik kendu barik iraun neban, bein eta barriro aurpegitxua maiatzkatzen neutsala. Egun luze amaibakoak alkarri jarraituz, igaro ziran. Ijito-taldeari diru-sarrerak amaitu izan yakozan, eta lengo bizikerara biurtu zan; aurtemein erosiriko zaldi ederra saldu, ta azur-eskukada zan beste zaar bataz ordeztu eben; baita neuk be oillo ta ogi-arrapaketeari emon bear izan neutsan. Arazo au beti gogaikarria egin izan yatan, baiña ereti aretan gogo onenaz jarduten neban, Luzerotxu'ren onerako zala-koan, eta augaitik lodienak aukeratu oi nebazan.

Baiña nire kutunak ez eban obazkorik agertzen, eta estul gaizto batek lotu barik astintzen eban. Gero ta txikiago, gero ta argalago zirudian. Aurpegiak argizaiaren itxurea eukan, eta onetan iñoizkorik andien eta ederren, begi illun dizdiratsuak izarrak bai'liran nabarmentzen yakozan. Sarri askotan, eguraldi eguzkitsuetan, agiñakaz jantzitik teink egiten neutsan, nirekin zabaldira latsin eta errekatsetan zear etorri zeitean, aspaldi oi genduan lez; baiña dana alperrik, jangar eta nakar ez eban oetik jagi gura.

Bideetatik giñoazala, erdi-lo zirauan, eta guztion txerai irribarre margul bat az erantzuten euskun. Azkenez, gurdiaren bilinbolakak min egiten eutsoela-ta, taldeak aspaldi baterako kapardia jarrea erabagi eban. Bide-zabala itzita, aldatz leuneko larra baten

zear bideratu gintzazan. Andik laster, arri ta legarren artetik suzmurka joian ur gardenetako ibai zabal baten ertzean, ijito-taldeak kapardia jarri ta egun batzuk an emotea ebatzi eban.

Tokia bene-benetan ederra zan, eta lertxun ederrez apainduriko toki baketsua genduan, ibaiaren suzmurra ta txorien eresiak baiño, besterik entzuten ez zala. Gau aretan bertan, gurdian eban oetik Luzerotxu'k dei egin eustan:

—Ator ona, maite ori. Ez adi nigandik urrundu; aurrerantzean neure ondoan, gurdian, lo egingo yok. Begiraik, Galtxu, zein ederto egiten yokan dantzaz lertxunen orriek... eta arago izarrak dar-dar yabillek otz bai'litzozakan... Neu be batzuetan otz izaten nok. Zergaitik ete...? Ba-al-yakik gauza bat, Gal? Aspaldi onetan ames egin yoat txoriak lez egaz egiten yoadala, ta mendirik-mendi eguratsean zear dantzaz egiten yoadana...

Isillune baten ostean, barriro:

—Baiña izar orreik, zegaitik begiratzen nayuek olan? Txoriak aiña egaz egin gura izango ñeukek, izarretan zear beti gora ta gora, lur, itsaso ta odeiak begimenetik ezabatu arte...

Eta olan, gaua igaro zan, ulertzen ez neutsazan gauza ederrak iñostazala, ta bere begi ederrak illuntasunean zear izarretantz begira ta begira egozala.

Udearen sarreran gengoan, eta egun yaukal luzeek alkarri erraikioen. Egunez oso arazopetuta nenbillen, kapardian bearrezkoak ziran ogi ta egaztiak arrapatzearen. Orain, baiña, gure kapardiak leku berean irauanez, nire ibillaldiak urrun izaten ziran, baserritarrek usaindu ez gengiezan. Janari gozoenak Luzerotxu'rentzat aukeratzen ziran, baiña ala ta guztiz be, umeak jangar eta nakar zirauan. Estul madarikatu arek ez eutsan bakean izten, eta oean etzanda, iñoizkorik txikien zirudian. Umearen bizitasun eta edertasuna aren begi amesgarrietan kokatuak agertzen ziran, gero ta andiakoak emoten ebela.

Gauoro oe-ondoan etzaten nintzakion, eta berak besarkatu egiten ninduan, burua bere aurpegitxuaren ondoan jarten nebala. Sukarra gora egiten ba'yakon, mosu kiskalgarria miazkatzen neutsan, eta ba-nekian atsegin yakola, irribarre egiten eustan-eta. Gaua ames amaibakoetan emon oi eban, eta iratzarten zanean,

nik ondo ulertzen ez nebazan gauzak, esaten eustazan. Beiñola, areitariko ames baten ostean,

—Gal maitea, —esan eustan—, ba'yakik izarrok zer esan yaustiekan? Ara, ba... Jaunari eskatu yaustiek eurakaz joaten itzi yakiadala, gau guztietan arein artean dantzan egin yaidan, eta olan izarrik-izar ikotika, zeruko dantza urdiña egingo yautseat. Galtxu, zer izango ete, dantza urdin ori? Ezin yoat asmatu, baiña Jaunak eroango al ñauk...!

Neuk be, ez nekian zer izango ete zan dantza urdiña; baiña Luzerotxu'ren berbak atsekabetu egin ninduen, eta latz-ikara batek biotza larritu eustan. Umea gero ta zerutik urrago; lurretik ostera, urrunago...

Urrengo eguna eder-ederra izan zan. Gorrimiñez jantziriko eguzkia ikus-mugatik ostendu zanean, izadiak arrausika gauari dei egin eutsan, eta onek urrats lotiakaz danaz jabetu zan. Izarrak iñoizkorik garbien ñir-ñirka agertu ziran, eta lertxunen orri dardartsuek zidarrezko diztirak eten barik erakusten ebezan. Iretargipean, gauaren aintza zuri-urdiña, isil eta baketsu danaz jabetzen zan.

Luzerotxu'ren ondoan nentzala, bildur itzel batek atzitu ninduan. Alako baten, umeak oi baiño estuago besarkatu ninduan, eta gero, lertxunen artetik gau ederrari begira, auxe esan eustan:

—Galtxu laztana, Jaunak eroango al ñauk gau eder one-tan...! Auxe bai gau polita izarren artean dantza urdiña egiteko... Nekatuta naiagok eta otz nok...


Geldi ta isillik, ortziari begira ta begira geratu zan. Egun aretantxe ibillaldi luzea egin izan neban ezkerro, loak laster artu ninduan. Orduak igaro ziran... Alako baten, Luzerotxu'ri antzi luze biguna urten yakon, eta onegaz batera, iratzarri egin nintzan. Nire kutunak ez ninduan besarkatzen... Besotxuak jausita, len lez isil eta baketsu gabeen zear izarrai begiratzen eutsen, baiña begi maite areik itxura ez-oitua agertzen eben, utsari begira bai'liran. Gero, aurpegia miazkatzen asi nintzakion, baiña ez eban nire miazkaden bearrik, berez oztuten asia zan-eta...

Izarrek eurentzat artu izan eben, eta niretzat galdu izan zan betiko... Naigabe esangaitz bat nitzaz jabetu zan, eta gurditik

urtenda, ulu ta uluka asi nintzan. Eguzki-aldeetik, goizaldeko urrea zeruan zear zabaltzen zan.

Nire uluek ijito-taldea iratzarri egin eben, eta guztiak negarez eta erostaka, Luzerotxu'ren ondoan batu ziran. Illuntzean obiratu eben, eta bere aurpegitxu zoragarria azkenengoz ikusi neban. Begi andiak itxirik zituan, baiña ezpanetako irribarre gozogoak aingeru baten itxurea emoten eutsan. Eta an, ibai eresintsuaren ondoan, lertxun tantai baten pean, nire kutuna galdu neban, eta aregaz batera ene bizitzako zatirik maitagarriena geratu zan betiko...

Baiña nik ezin negikean inguru areitan luzaroago iraun. Nora ez nekiala ta eriotza barrutik ebilkidala, andik urrundu egin nintzan... Gero ibai eder aren izena jakin neban; Pas ibai gardena zan, eta ziur nago Luzerotxu'ri amesak betiko edertu eutsazala...



Arrezkeroko egunetan ez dakit ziur zer jazo zan. Aldi areitako gomutapena, atsekabe bizi baten lainoan ezabatzen yatan ezkeron, an-emenka zoro baten antzera ibilli nintzala baiño, ez dot gogoan besterik.

Udako goiz eder baten guztiz indargeturik, mendian gora yoian bide aldapatsuan aurkitu nintzan. Eguzkiaren bero andia uxatzearren, bide-ondoko lizar baten gerizpean etzanda jarri nintzan. Alako baten, bideko okergune urrenetik, ondoan txirrindola bat eroiala, gizon bat egertu zan. Aldatz-gora ibilli ebillen, eta astiro urreratzen yatan bitartean, eresi alaia txistu egiten eban. Nigandik ur zala, aukeran ikusi aal izan neban. Berrogei bat urteko itxura begikodun mutil sendoa zan. Txapel batek ozta-ozta estalduriko uleak, azpitik parrastaka urteten yakoan. Aurpegi atsegiñeko sur zuzen batetik, ondo bereiztuak egozan begi urdin irrikoiai benetako erakarpena erien.

Ondoratu yatanean, txistu egiteari itzita, eta irribarre atsegiña erakusten eustala,

—Kaixo, Kanelo, —esan eustan—, eguzkitik iges egiten, eztok?.

Au esanda, txirrindolea lizar-enborrean jarririk, nire alboan bedar-gaiñean jesarri zan. Gero, adi-adi begiratzen ninduala ta ago atsegiñean irribarrea barrero eratzen yakola, olantxe jarraitu eban:

—Arraioa, Kanelo, zotza baiño argalagoa emoten yok. Baietz zanetan txirrindola onek baiño odol gutxiago. Nondik ibilli aiz

orren itxura zantarra artzeko? Sorgiñen batek begizkoa bota yauk ala?

Bereala, txirrindoleari lotuta egoan zorrotxu batetik, gaztai-zati ta ogi-zerra lodia atara ondoren, gaztaiari azala kenduta bota egin eustan, berak mamiñari ekiten eutsala. Ustebage, jangaiak ikustean, gose itzela sortu yatan, eta aida baten irunsi neban. Orduan ogi-zati bat emon eustan, eta au be lengoa lez garbitu neban.

—Arraioa, Kanelo! —esan eustan irribarretsu—. Osaba Ulojio'ren txirrindolea be jateko gai aizala esango ñeukek.

Au esanik, gaztai ta ogi enparau guztia bota eustan, eta nik beingoan irunsiiten nebazala, berak begi ta ago irribarretsuz begizatzen ninduan. Amaitu nebanean, txapela atzerantz bultzatuz eta bizkarra lizar-enborrean jarririk, zigarro bat erreten asi zan, lotu barik berba egiten eustala. Mutxikiña bota ebanean, jagi, txirrindolea artu ta bidean gora oiñez abiatu zan. Joan aurretik, buruan laztan bat egin eustan, iñostala:

—Agur, Kanelo, urrengorarte!

Nik baiña, ez-entzun egin eta bere atzetik asi nitzan. Gizon aregan zerbaitek erakarten ninduan, eta sentipen ari aurka egin eziñik, jarraitu egin neutsan. Gaiñera neuk bear neban, itoteko zorian dagoanak lagunaren eskuari oratzen dautson lez, eta augaitik isil-isillik jarraitu neutsan. Azkenez, bide-gorenera eldurik, ezkerreko bide batetik zuzendu zan. Alako baten, gizonak atzera begiratuta ikusi egin ninduan.

—Oraindiño be neugaz?

Orduan, makurtu egin zan, sasi-arri bat artzeko itxuraz; baiña nik zirkiñik be ez, eta bidean geldi-geldi geratu nintzan. Banekian gizon arek ez eustana arririk jaurtiko. Eta onetaraxe jazo zan. Azkenez, gizona zutundu egin zan, eta,

—Joan adi, Kanelo, —esan eustan—, txakurrik ez yoat bear eta. Nagusi dotore asko edozein bazterretan topauko yok. Orren itxura zantarra izan arren, agiri-agirian yok, enda onekoa azana. Edozein andikik pozez artuko induke. Nigaz denborea galduko yok. Agur, Kanelo!

Eta burua atzerantz biurtu barik, eresi alai txistu egiñaz

bideari ekin eutsan. Baiña nik jaramonik be ez, eta aren atzetik barrero.

Alako baten, etxe bakarti batera eldu gintzazan, eta etxeko atadian egoan emakume bat olantxe asi yakon:

—Ulojio, Ulojiuko! Ordua da zure burua emendik azaldu dagizun! Nondik ibilli zara, mutil? Aspalditik ba-daukagu etxean tresna ugari zorrozteko, ta zu etorri barik...

—Ai, Errosuka, sasoi onetan ba-da tresna asko ortik, eta guztiok aida baten zorrotzu gura. Ekarri egidazuz erremintak eta bereala zorrozteko dautsudaz.

Errosuka'k tresnak ekarri eutsazan, eta ni ikusirik auxe esan eutsan:

—Ez nekian txakurra zeukanik, Ulojio. Nondik atara dozu ori?

Orduan, Ulojio'k gure alkartasunaren barri emon eta, amaitzekoan, auxe esan eutsan:

—Gosez ilteko agiñean dago. Gosea zeozer kendu dakionean, beste ugazaba bategana joango da, urrean; nigaz jateko ez dau eztitasun askorik izango-ta.

Etxekoandreak orduan tresna-meta andia ekarri eutsan, eta Ulojio'k txirrindolearen gurpilla aidean jarri ta zorrotik edea atara ezkerre, gurpilleko txirrita batetik zorrotzarri-ondoan egoan beste bateraiño luzatu eban, eta oinpekoari eragiñez, zorrozteari ardura andiz emon eutsan. Ni ago-zabalik nengoan, zorrotzarririk tximistak alakoxeak urteten ziran su-txipristiñai begira ta begira.

Ulojio'k lan aretarako ganora andia erakusten eban, eta laster barritutako sorbatzak eguzkipean ditziraka metatzen ziran. Arazoa amaitu ebanean, Ulojio zigarro bati pauta-pauta egiñaz, aulki baten jesarri zan. Andik laster, gurdi bete bedar ekarran idipare ederra zuzenduz, lau edo bost umek inguraturiko gizon bat agertu zan.

—Kaixo, Ulojio! Azkenez ba-zakust! Ezkondu izan zintzazala-edo uste izan dot...

—Ulojio arrapa-eziña da —ebagi eutsan emazteak—.

Ulojio'k zigarroari pauta sakona emon eutsan, eta ezer esan aal baiño len, umek inguratu eben, iñotsoela:

—Osaba Ulojio, esan egiguzu ipuintxu bat...!

Ume bi belaunetan jesarri yakozala ta beste biak lurrean, Ulojio ipuiña esaten asi yaken. Bitartean, etxejoauna, gurdia aldetxean sartu ta idiak kortara eroan ondoren, Ulojio ta umeakaz batu zan.

Andik laster, eskaratzean sartu gintzazan, eta mai-inguruan bazkariari ekin eutsoen. Neuk be asko jan neban, batez be neskatil-mutikoek emoten eustenetik, eta bazkaria amaituta, Ulojio bideari jarraitzeko gertatu zan, baiña ez umeai beste ipuin bat esan barik.

Azkenez, txirrindolea artu ta bidean beera asi gintzazan. Ulojio pozik joian, eta ni neu zer esanik ez, ain luzaro barau egin-da, lenengoz beterik nengoan-eta.

Bidetik giñoazala, Ulojio'k gauza askoren barriak emoten eustazan, eta an urrun ibarrean ikusten genduzan errien izenak jakiñerazoten eustazan. Alako baten, azkenengo biurgunetik amar bat etxeko auzunea aurkeztu yakun.

—Begiraik, Kanelo, —Ulojio'k esan eustan—. Auzune orri "La Ventilla" deritxo, eta or bertan gaua emongo yoagu.

Au esanik, txilibitu antzeko otsgaillua atarata, zorroztaillen ezaugarria joten asi zan. Urreratu ala, etxeetako leioetan andrazkoak agertzen asi ziran, alkarri esaten eutsoela

—Tira...! Ba-dator Ulojiuko... Bein edo bein!

Eltzean egin euskuen agurrakaitik, agirian egoan auzune aretan Ulojio benetan maite ebela. Eta olan, Ongi-Etorri ugarien artean, Ulojio'k etxe geienetako erremintak txandaka zorroztu zituan. Arloari ekin bitartean, andrazko ta neskak batez be, amai-ka itaun egiten eutsoezan, eta guztiak Ulojio'ren ezpanetatik dilindan egozan. Au ez da arritzekoa, gure mutillak jazokerak azaldu ta apaintzeko erakarpen bereizia eban-eta. Neska politen bat isillean urreratu yakon, itaunak lotsati egiten eutsazala; eta Ulojio'ren agotik bere biotzekoaren barriak jakitean, begiak zorionez diztiratzen yakozan, edo-ta oiñazeko antziak ezpan gorrietatik iges egiten eustazan.

Laster konturatu nintzan, nire ugazaba barria, zorroztaile izanaz gaiñera, errietatik zerbait baztertuak egozan auzunetako barriemoillea zana, ta augaitik, urrean, etxe guztietan maite eban.

Eta olan, etxerik-etxe tresnak barrituz eta jakin-naiak

aseten, Ulojio'k arratsaldea emon eban, baita sari naikoa jaso be. Eguneko bearra amaitu zanean, bera, txirrindolea ta irurok, auzuneko arandegi bakarrera abiatu gintzazan, eta txirrindolea sarreran itzirik, barrura sartu zan, ni ezpaitsu ate-ondoan gertzen nintzala.

Ulojio mai baten ondoan jesarri zan, eta atean, barruan sartzen ausartzeke ikusi ninduanean, dei egin eustan:

—Ona, Kanelo! Sartu ta jarri adi nire ondoan.

Gero, apaltzekoa eskatuta, pitxar bete ardaoaren laguntzaz, arloari astiro-astiro emon eutsan. Ez zan nitzaz aztu, jaki-ondakiñak ugari emoten eustazan-eta. Aparia amaitu zanean, beste pitxar bete ardao agindu eban, eta auzuneko gazte biri lagundu egioen eskatu eutsen, eta olan autu bizian ziarduela, ordu bete bat emon eban. Gero, Ulojio bakarrik geratu zan, eta beste pitxar bete ardao eskaturik, gogaketa sakon bati emon eutsan, antzi sakonak urteten yakozala. Noizbait jagi, jan-edaria ordaindu ta urten egin gintzazan.

—Aizak, Kanelo, Ba-yirudik berandu egin dokala. Gaiuazan Feliziano'ren etxera, emen ba-yoagu beti lasto-mandioa gerturik-eta.

Eta ainbeste edan izan arren, artez-arte zabunka ibilli barik abiatu zan. Lasto-gaiñean etzanda jarri zan, baita neu be aren ondoan. Alako baten, antziz menperaturiko berbaz asi zan:

—Tinuka, Tinuka, zegaitik ez zeustan itxaron? Nok zu neuk aiña maite?

Gero, nik ondo ulertu ez negikion bakar-izketa bati emon eutsan, noizean bein Tinuka izena erabilela. Gau aretan eta urrengoetan, or-emenka arturiko itz-zerrenda batzuen bidez, azkenez garandu neban Ulojio'ren atsekabe sakona.

Urrengo goizean, Ulojio gizon barri iratzarri zan, eta gosari ariña egiñik, bera, txirrindolea ta irurok bideetan zear baserrietako erremintak zorroztoz, borda ta auzune garaiak ikertu genduzan. Leku guztietan arrera ona egiten euskuen, eta argi egoan guztiek Ulojio maite ebela. Eguerdia ba'zan, gengoan etxean bazkaria duan eskintzen euskuen. Gabean, barriz, Ulojio'k ez eban arandegietan artzen ebana baiño beste aparirik. Beti konpontzen zan alako toki batera eltzeko, ta, bearrezkoa izanik, giñoazan

bidetik baztertu ta illuntzerako erritxu bateko ardandegira eltzen gintzazan.

Egunen bidean, Ulojio ta bion arteko lokarria sendotu egiten zan, eta berak maite izaten ba'ninduan, nik ez neban bera are gutxiago maite izaten.

Egunoro gure arazoetara abiatzen gintzazala, eten barik berba egiten eustan, eta topo egiten genduan guztien gora-beerak emon oi eustazan. Sarri askotan, nire burua eskuen artean artu ta maitekiro berba egiñez, lepoa laztantzen eustan. Ekintza onek zoriontsu egiten ninduan, eta neuk be, gero ta maiteago neban. Bein baten, auxe esan eustan:

—Ba-al-yakik gauza bat Kanelo? Lenengoz ikusi indudanean, ostikada bataz aldenduko indukedan; baiña i gosez erdi illik ikusteak, biotza bigundu yeustan, eta orain maite be maite aut. Eu bagarik ez yakiat zer egingo ñeukekan...

Udako egun ederrak ba-yoiazan aurrera, ta eguzkipean Ulojio'gaz, txorien eresiz eta bedardietako usain gozoaz inguraturik, eta baserri guztietan egiten euskuen arrera onak poztuta, benebenetan zoriontsua nintzan. Aspaldi izaniko gose gorria ta naigabeak aztu izan yatazan. Noizean bein bakarrik, Luzerotxu'ren gomutapen kutunak, nire zorionaren eguzkitan odei baltzak jarten eustazan...

Bariku guztietan, Ulojio erri andi samarren batera eltzeko konpontzen zan. Emen kiniela-txartel bat erosi ta ostiko-kiroletan tutik ulertzen ez ba'eban be, burura yatorkozan giñoan txartelaren igarrikuneak bete oi ebazan. Gero, aurreko astean izandakoak egiztatu ondoren, auxe esaten eustan:

—Bai, Kanelo, agiri au sakelean ondo gorde bear dok. Egunen baten amalauko igarrikuntza atarako ba'ñeuk, ba-al-yakik zer asmatzen yoadan? Ara... zidarrez apainduriko iduneko ederra erosiko ñeuskik. Eta gero...

Goiko esakerea, baiña, ez eban iñoiz amaitzen.

Gau-uneak, barriz, ez yatazan atsegin. Ulojio'k ardao lar edaten eban, eta mozkortzen ez ba'zan be, gure oiko lasto-mandioara abiatzen gintzazala, ondo bustita yoian, eta lo egin aurretik betiko leloa erabillen, bere biotzeko Tinuka bein eta barriz aitatzuz. Nire laguntasunak, antza, berba-jario biurtzen

eban, eta augaitik, aldiaren bidean gauzak alkar josirik, Ulojio'ren maitasun-isilpea osotu aal izan neban.

Ulojio, mendi garaien artean zetzan aran ederreko erri baten jaio izan zan. Etxean, guraso ta beste anai gazteagoagaz bizi izaten zan. Etxaguntza, larrez eta esne-beiez osotua zan, eta eroso bizi ziran; baiña Ulojio ibiltari jaio izan zan, eta etxeko lanak aspertu eragiten eutsanez, bere aukeran batetik bestera ebillen, benetako lan bati lotu eziñik, gurasoen buruauste biurtzen zala. Bein baten, aldameneko errian jaiak zirala-ta, Tinuka, araneke edertasuna ezagutu eban, eta tximisteak jota lez maitemindu zan. Esku-lanetarako zaletasun gutxi agertzen ba'eban be, barrutik ertilari benetako baten gaillentasunak eragiña zan, eta ertilari-dei onek Tinuka doai guztiakaz edertu eban. Olan ba, maitasuna, dana irusten eban gar kiskalgarri biurtu yakon.

Tinuka, baiña, lurrean bizi zan, eta senartzat erriko dendari aberatsa aukeratu eban. Ulojio'k ezin izan eban alakorik eroan, eta etxetik joan egin zan, alderrai baten bizikereari emoten eutsala. Baiña zelanbait bizi bear, eta bere zaletsaunari ondoen etorkiona aurkeratu eban. Olan, ba, txirrindola zorroztauriduna erabilliz, irrikatzen eban bizikera askeari emon eutsan. Berez mutil arrai ta begikoa izanik, luzaro barik lurralde aretako baserri ta errietan, oso ezagun eta onartua izan zan. Zabaldietako edertasunak bere ertilari-arimeari eragiten eutsan, eta olan Tinuka'ren gomutapena gero ta biziago egin yakon.

Egunez, ogi-bide bati dagokion bizikerea eroian; baiña gaua urreratzen yakonean, beragan zetzan ertilaria iratzarri, ta irudimeneke egoak erabilliz, amesetako lurraldean zear barruratzen zan. Sarri askotan onetaraxe iñoan:

—Tinuka, Tinuka, entzuten nozu? Zure begiak gaua baizen ondobakoak dira, ta gautxori baten egakera dardartsuz noatzu, baiña ezin zaikedaz atzitu... zu beti igeska zaiabildaz-eta, neure kutun ori... Zatozkit eta odei baten gaiñean urrezko mendi urrundarietaraiño joango gara...

Gau geienetan era onetan ziarduan. Edanaldiak bizitza ta amesak bereizten ebazan. Tamal neutsan nire ugazabari amestune areitan ikusten nebanean, atzi-eziñaren billa atsekabeturik, edo-ta nonbait zorionez gaiñezka. Batek ba-daki...!

Dana-dala, ez yatan gogokoa illuntze guztieten orren ardao-pean ikustea. Bein baten, lurralde aretako ibar batetik giñoazala, auxe esan eustan:

—Ez-al-yakik gauza bat Kanelo? Gure burua ganbara baten antzekoa dok. Ganbara onetan amabi jarleku yoaguz; eta edontzi bete ardao edaten yoagunean, urdaillean gora tximiño bat ganbarara igoten dok. Bakarrik yagokanez, lotsaz beterik aulki baten jesarten dok. Bigarren txurrutaz, beste tximiño bat ganbararako bidean gora yoak, eta orduan lengoaren ondoan jesarri ta benatsu berbetan asten dozak. Beste dangada bat, eta irugarren tximiñoa ganbarara. Olan ba, edontzi bete ardao bakotxagaz beste tximiño bat bere jarlekuan jesarri ta lengoakaz txutxumuka asten dok. Boskarrenagaz, arazoa biziagoa egiten dok eta tximiñoen jardunak zaratatsuagoak bihurturik, buruko oldozkunak aren baten bizkorragoak, eta ire berbak azarriagoak be. Amargarrenerako, tximiñoen jarduna oso bizia biurtzen dok, eta orduan, norberaren bururapen alai ta baikorrak, lagunakaz itz-jario burrunbatsuaren bidez urtekera izaten yoek...

Baiña amairugarren tximiñoa ganbarara igon, eta berarentzat jarlekurik ez yagokala ikustean, orduan, Kanelo, istillu gorria sortzen dok. Emengo oni buztanetik oratu, angoari belarritik teink egin, aulki ta guzti urrengoa irauli, tximiño guztiek deadar eta burruka itzela sortzen yoekaz, eta azkenez jarlekuak iskillutzat erabilliz, alkarri erasoten yautsiek. Auxe dok mozkorra, Kanelo, ta olakorik jazo ez yakian, ez yozak ezelan be ganbarako aulkietan baiño txurrut geiago egin bear...

Orixe izan zan Ulojio'k bein baten esan eustana, edaleari ardaoak dakarkion giroa adierazoteko. Urrezko lege au ondo gordeta eroian nire ugazabak, eta asko edaten ba-eban be, ez zan inoiz mozkortzen, gauoro ondo txolinduta oeratu arren.

Dana-dala, guztiz zorientzua nintzan, eta Santander'ko zabaldian geroian bizitzak atsegiñez beteten ninduan, Ulojio ta bion arteko maitasun-lokarriak sendotzen zirala.

Arratsalde baten, larradi ederren artetik giñoazala, muiño baten egian, basetxe zuri txanbeliña agertu yakun. Etxea ikustean, Ulojio'ren aurpegian irribarre atsegiña loreturik,

—Begira, Kanelo —esan eustan—, etxe orretan izeko Mariuka

ta lengusu Toñuko bizi dozak. Izeko Mariuka nire ama zanaren aiztea dok, eta ezkondu baiño ez, azur barritan aurkitzen zala, senarra il egin yakon, eta gero Toñuko jaio zoan. Izekoa, munduko onenatarikoa dok. Amar beien ekarriez, nasai bizi dozak.

Andik laster etxera eldu gintzazan, eta Ulojio'k egiñiko agurrai erantzunez, andrazko bat urten zan. Lobeza ikustean, besarkatu egin eban, inñotsala:

—Azkenez be ikusten zaitut, traskil ori! Gaur zuretzat barriak dodaz, baiña ez dautsudaz esango aparria amaitu arte. Bidebatez, nagiak atarateko nik aparria atondu bitartean, ebagi egidazuz egur orreik.

Ulojiok egur-ebateari emoten eutsala, Toñuko agertu zan, eta Ulojio agurtu ondoren, beiak jaistearren kortan sartu zan.

Aparria amaituta, Toñuko auzoko neska bat ikusi bear ebala-ta, joan egin zan, eta orduan izeko Mariuka'k barruan ebana botateko irrikan, Ulojio'ri auxe esan eutsan:

—Ez-al-dakizuz zure errialdeko azkenengo barriak?

Ulojio'ren ezetza entzutean, olantxe jarraitu eban:

—Ganorabako, besteren ganorabako, denganiño ori! Zure etxeko barriak be ez zendukez jakingo neu lango baten batek esango ez ba'legizuz. Ai zentzunbako ori...! Noiz arte ibilliko zara ortik eskeko baten antzera? Ulojio, Ulojiuko... bai poztuko nintzakela, lan bati lotuta ezkonduko ba'zintzaz, eta orren edateari uko egingo ba'zeitso... Baina ariari goakiozan...

Ona eldurik, izeko Mariuka'k lobearen edontzia ardaoz bete eban. Gero, gaiari ekin eutsan:

—Begira, Ulojio. Ba-dira iru illabete-edo, Tinuka alargundu dala.

Aurpegia orma baizen zuri biurtzen yakola, Ulojio esku dardartsuaz edontzia ezpanetara eroan eban, baiña ez eutsan izekoari ezer erantzun.

—Bai, Ulojio —autuari jarraitu eutsan izeko Mariuka'k—; azkenengo aldietan Tinuka'ren senarrak baso-erosketari andika emon eutsan, eta asikeran gauzak polito joan ba-yakozan be, alako baten eta erosketa andia zorrean egin ondoren, egurraren sariari jauste itzela etorri yakon, eta diru bagarik geratu zan. Arrezkero, denda, etxea ta eukazan ondasun guztiak, saldu egin

bear izan ebazan, eta burutik eginda or-emenka ebillen. Azkenez, illuntze euritsu baten erreka ur bizietan ostendu, ta urrengo egunean itota agertu zan.

Aurpegia zuri-zuri biurturik eta eskuak dardarikatzen yakozala, Ulojio'k isillik irauan. Noizbait oso nekez,

—Eta Tinuka? —itaundu eban—.

—Gaisoa bere iru umeakaz erriko etxe baldar batera aldatu ondoren, bearrian gorrian bizi ei'da.

Ulojio'k ez eutsan beste itaunik egin. Lo-ibiltari baten antzera, izeko Mariuka'k berarentzat beti gerturik eroian gelara joan zan. Gau aretan, oso txarto lo egin eban, kezkaz beteriko ames txarretan, bere maiteari dei ta deika.

Egusentian jagi ta gosaldu ondoren, urteteko gertatu gintzazan. Izekok Ulojio besarkatu, ta auxe esan eutsan:

—Ez larritu, Ulojio, dana atonduko da, Jaungoikoa lagun.

Gero, lengusu Toñuko'k agur esan euskun, eta tinko-tinko begiratu ninduan. Nik ez dakit zegaitik, baiña jaurti eustan begi-kaidea ez yatan gogokoa izan.

Mendian beera giñoazala, eguzkia jagi zan Bizkai-aldetik, egun ederra iragarritz. Txorien txorrotxioek eta larraetako bedarraren usain atseingarriak inguratzen ginduezan. Alako baten, Ulojio gelditu egin zan, eta nire burua bere eskuetan artuta, sentipen bakanaz jabeturik, auxe esan eustan:

—Ai, Kanelo maitea, diruak ez yaustak iñoiz be bost ardura emon, baiña orain aberatsa ba'nintxok! Berak bear izaten yok, eta nik ezin emon...!

Gero isillik bideari ekin eutsan, bular sendotik antziak etenbage iges egiten eutsazala. Eguraldia iñoizkorik ederrena ba-zan be, Ulojio'rentzat itun eta margula izan zan.

Urrengo egunetan, Ulojio'k ezin eban oiko alaitasuna irabazi, ta gogo mingarrietan murgildurik bizi zan.

Bein, erri anditsu baten zear giñoazala, barikua izanik nire ugazaba kinieategian sartu, ta txartel bat az urten zan. Eguerdia zan, eta enparantzako jarleku baten jesarri, idaztekoa atara, ta txartelaren igarkuneak beteten asi zan. Ulojio'k ostikalaritzan ez eban tutik be ulertzen, eta zenbakiak etorkiozan giñoan jarten

ebazan. Amairu lenengoak idatzi ondoren, azkenengoan ezpaitsu gelditu zan.

—Begiraik, Kanelo —esan eustan—, aspertuta naiagok. Ea azken onetan euk laguntzen yaustakan. 1 izatekotan ezkerrekoa, ta 2 ba'litzok eskumako belarria eragiok. Baiña X jarri bear ba'ñeukek, buztana jaso egik.

Nik ez nekian zer egin, baiña errazagoa yatan ezkerro, buztana jaso neban.

—Ederto, Kanelo —esan eustan—, X bat ipiñiko yoagu ta kito.

Gero, kinieategian txartel-zatia kutxa baten sarturik, enparausa sakelean gorde eban, eta arazoari beste jaramonik egin bage, bideari jarraitu geuntsan.

Amabost egun igaro ziran, eta erri txiki baten jarduten genduala, erriko urrutizkin-etxetik, Ulojio andik igaro eiteneko deia etorri yakun. Joan gintzazan ba, ta ango arduradunak auxe esan eutsan:

—Gaur amabost, txartela bete zenduan kinieategitik, zuretzat mandatu auxe bialdu dauskue: andik igaro zaitezala, zerbait etorri yatzu-ta.

Ulojio'k ez eutsan arazoari jaramon andirik egin, baiña naiz batera naiz bestera bardin yakon ezkerro, iraduz barik biurtu ta aste bete igarorik, erri aretara eldu gintzazan.

Kinieategian sartu baiño ez, ango arduraduna zauskada itzelaren menpean oiuka urreratu yakun.

—Ulojio, Ulojio! Ordua da, baiña nondik ibilli zara, ba? Begira, amalauko igarrikuntzea taka egin dozu, ta begira, Ulojio... berrogei milloitik gora etorri yatzuz! Non daukazu txartel-agiria?

Sakeletan arakatu ondoren, Ulojio'k txartel-agiria idoro ta emon egin eutsan. Orduan arduradunak eskutitz bat zirriborroturik, itz onekaz emon eutsan:

—Onegaz eta txartel-agiriaz joan zaitez Torrelavega'ko diru-etxe onetara, ta an dirua emongo dautsue.

Une batez, Ulojio zur eta lur geratu zan, baiña noizbait andik urteten lortu eban. Kalean beera giñoazala,

—Kanelo, —esan eustan—, egia izango ete? Ez nok amesetan izango-edo?

Astirik galtzeke, urrun ez egoan Torrelavega'ra, Ulojio, txi-

rrindolea ta irurok abiatu gintzazan. Andik iru ordutara eldurik, ni atean begira nengoala, Ulojio sartu zan. Ordu erdi igarorik, Ulojio diru-etxeke nagusiagaz atean azaldu zan.

—Ba-dakizu, On Eulojio. Etxe onetakook zeure aukeran gagoz —esan eutsan diru-etxeke nagusiak—. Ez dozu agindu baiño. Ona emen zure Txeke-liburutxua. Dirua bear dagizunean, orri bat bete ta dirua eskura. Agur, On Eulogio, zeuk agindu arte.

An bertan gaua emon genduan, eta urrengo egunean erritik urten baiño len, tresnategi batean sartu ta Ulojio'k garbigaillu ta otzgaillu ederrak erosirik, izeko Mariuka'nera bialdu egiezan agindu eban.

—Orain, Kanelo, —esan eustan gero—, nire agintzaria bete bear yoat.

Denda baten sartu gintzazan, eta zidarrezko idunerik edereena erosi ta nire lepo-inguruan jarririk, auxe esan eustan:

—Erri andietan ito egiten nok, Kanelo. Gaiuzan kanpora, ta zabaldian, zer egin bear ikusiko yoagu.

Eta Ulojio, txirrindolea ta irurok erritik urtenda, bide aldapsuan gora luzaro samar ibilli ondoren, tontorrera eldu gintzazan. Andiko ikusgaia zoragarria zan, eta bide-ertzean jesarrita, Ulojio'k zigarro bat iziotu eban. Alako baten, begiak txirrindolan ezarririk, bere kolkorako auxe esan eban:

—Baiña, Ulojio, zetarako gura yok orain tramankulu ori, zorroztarri ta guzti? Egokitzat jotzen al-yok, On Eulojio andikia txilibituaz erririk-erri ibiltea? Ori ezelan be ez.

Jagi zan, txirrindolea artu ta bultzada indartsuaz mendian beera jaurti eban. Txirrindolea firi-firika joan zan, eta azkenez dendua galdurik, zilipurdika jarraitu eban, trokako aitz batzuetan joteraño. An geratu zan txatar-meta biurturik. Gure bideetako lagun zintzoa olan ler eginga ikustean, tamal andi-andia artu neban.

Orduan, Torrelavega'ra barriro biurtu gintzazan. Bidean beera giñoazala, Ulojio'ri begiak diztiratu egiten yakozan, eta Tinuka izena bein eta barriro esaten ebala, beste gizon bat zirudian.

Errian, Ulojio'k taxilari bategaz tratu egin eban, eta jarraian nik ezagutzen ez nebazan bideetatik abiatu gintzazan.

Olan giñoazala, auxe esan eustan:

—Orain, Kanelo, nire jaioterrira goaz, eta andik ur bizi dan Tinuka ikusiko yoagu. Bai, Kanelo, ango jauregi ederrena erosiko yoat, eta gero... gero ikusiko yoagu... Zoriona ez yauat gaur baizen eskura ikusi, Kanelo... Gaiuzan aurrera.

Andik iru ordutara-edo, aitz andiz inguraturiko aran ederreko erri batera eldu gintzazan. Gau aretan, Ulojio'ren gurasoen etxean geratu ta urrengo egunean, bide-zabalean gora ibarreko erriburua aurkeztu yakun. Erri polita zan benetan. Garbi ta txukuna. Sapaillo luze, begiratoki eroso ta lorez ederturiko etxeak ikusgarriak ziran. Egun aretan bertan, Ulojio'k "Indiano'enea" eritxon jauregi andi ta ederra erosi eban. Jarraian bearrezkoak ziran atonketak egiñik, andik egun batzuetara jauregi aretara aldatu gintzazan.

"Indiano'enea" jauregia bizileku bikaiña zan benetan. Kaletik urruntsu jagiten zan. Zugatz eta arkakaratzetik inguraturik, arkesiz mugaturiko estarta batetik atadira eltzen zan. Sapaillo ta begiratoki ederretatik, lorak dilindan jausten ziran.

Ulojio'k neskame zaar bat aurkitu eban, eta maratza izanik, etxea garbi ta txukun erabili eroian. Nire nagusiak, begiratokiko areto ederra lo-gelatzat aukeratu eban, eta oe-ondoko azpioial bigun baten gaiñean lo-erazoten ninduan.

—Entzuik, Kanelo —esan eustan lenengo gabea—: lasto-mandioetan geroiakan lez emen be. I beti nire ondoan izangó aiz, eta On Eulojio'ren txakur bikaiñari yagokon lez, artz-narru goxo onetan lo egingo yok. Egik lo nasai biar arte, gure neskameak txali bete gosariaz iratzarriko gaiozak-eta.

Era berean, Ulojio'k amabitsu jantzi, ogeta-edo arkondara, seiren bat kapela, ta nik ez dakit ainbat eta ainbat gauza agindu ebazan. Buruan lasto-kapelea, soiñean jantzi garbia, oiñetako zuri-baltzak, eta eskuan kaiñaberazko makillea erabillezala, ta nik zidarrezko idunekoa, egun eguzkitsuetan inguruetatik egurasten gintzazan. Bein baten auxe esan eustan:

—Begira, Kanelo, gaur iñoizkorik dotoreen jantziko gaituk, munduko andrarik zoragarriena ikertuko yoagu-ta. Bai, txabola baten bizi dokan printzesa zoragarria ikusiko yoagu.

Arratsalde aretan errian zear giñoazala, Ulojio'ren begiko-

tasun eta lerdentasunak, zaldun baten itxurea emoten eutsoen, eta ni iñoizkorik arroen bere ondoan niñoan. Erriko inguruetan jagiten zan etxetxu lander baterantz bideratu gintzazan. Urreratu-ala, Ulojio'ri eskuak dardarikatu egiten yakozan, eta begiai joranezko txinpartak eriezan.

Baratzeko atakea kirrinka zaratatsuaz edegi zan, eta etxerantz abiatu gintzazan. Etxaurreko aulkian emakume bat egoan. Ondoko, amar eta amabiren bat urteko neskatil bi ta inguruan jolasten ziarduan bost edo sei urteko mukitsu ebazan. Gu ikustean, jagi, ta zer esan eta egin ez ekiala, ezpaitu zutunik geratu zan.

—Tinuka, Tinuka! —Ulojio'k oiuru egin eutsan—.

Gero oardarka urreratu yakon, eskuai oratzen eutsela.

—Ulojio! —emakumeak erantzun, irribarretsu begizatzen ebala—.

Baiña egia izango ete? Gure aurrean ez egoan nire ugazabak ames egiñiko printzesa zoragarria, ez... atso baten aurrean gengozan. Tinuka'ren irribarre-atzetik, aginbako ago bat ikusten yakon... betazpi sakonez inguraturiko begi nekatuak... tximurrez zearkatuak bekoki ta aurpegi zimela... ezpan margulak... sorbaldatik beera jausten yakozan sapa errautsuak... gorputz kizkurrea... esku gorritza arrakalatuak... Non egoan, ba, Ulojio'k ames egindako printzesa yaukala?

Biak aurrez-aurre egozala, ezin eutsoen alkarri barbarik be egin. Azkenez, Tinuka'k isillunea ebagi ta auxe esan eutsan:

—Ulojio, barruan sartu gura dozu? Edari bat atonduko dau tsut...

—Ez, ez... emendik igarotean ikusi zaitut, eta zuri agur egitea otu yat. Ume politak dozuz... Jaungoikoak gorde dagizuzala urte askotarako. Agur, Tinuka...

—Agur, Ulojio. Eskerrik asko...

Noizbait kalean aurkitu gintzazan, eta etxerako bidea artu genduan. Non egoan, baiña, Ulojio'k lentxu izandako zaldun baten itxura lerdena? Gaztetasuna bapatean joan izan yakon. Soin tantaia kizkurtua, ba-zirudian ogei urtez zaarragoa. Aurpegiak atsekabe bizi-bizia agertzen eban, eta begiai oiñaze larria erien. Ixil-mixilka, nik ulertzen ez neban autu amaibage bati emoten eu-

tsan. Inguruan ikotika asi nintzakion, gogapen areitatik atara naiean, baiña dana alperrik. Illuntzean etxera eldu gintzazan.

Gau aretan, Ulojio'k ardaoketa itzela edan eban, eta gero neskameari koiñak atara egiola agindurik, papar-lepo bitartera bonbil-erdi sartu eban. Gero, guztiz mozkor oeratu zan. Andik laster, bere zurrungak gela bete eban.

Neu be, lotan asi nintzan. Alako baten, oiuru batek iratzarri ninduan. Leioko zirrituetatik goizaldeko argi motela sartzen zan, eta argi urribean Ulojio oean jesarrita ikusi neban. Aurpegitik beera negar-arpuluak jausten yakozan, eta berba itoaz auxe esaten eban:

—Tinuka, Tinuka, zer jazo yatsu...? Amabost urteotan aldia- ren bide latzak ondatu egin daustaz nire amesak. Amabost urteko ames kutun laztanok, non zaree orain? Izango ete, bearbada, bizitzari dagokion baiña urrunago joan nazala, ta zeruan bakarrik idorotzeko dan edertasunaren atzetik nabillela?

Unetxu batez isildu egin zan, eta gero auxe geitu eban:

—Baiña neure gogoan itxuratu ta edertu zaitudan lez, betiko iraungo dozu. Egunen baten nik ames egindako antzera idoroko zaitut, nire biotzeko kutun ori...

Ulojio'ri malkoak mara-mara eriozan. Olan ikustean, urreratu egin nintzakion, eta aurpegi bustia miatzatu neutsan. Berak besarkatu ninduan, eta negar-arpuluak neure uleetan legortu ebazan.

—Kanelo —esan eustan berba itoaz—, ez naik itzi orain. Dirua ta eu bakarrik geratzen yatazak. Dirua ez yoat maite, baiña i maite aut...

Estu-estu besarkatu ninduan. Orren lur-jota ikustean, iñoizkorik maiteen yatala konturatu nintzan, eta aalegin guztiaz zainduko neukela erabagi neban.

Arrezkero, Ulojio'k ez eban kalera urten gura, ta jauregiko baratzera be oso gutxitan jaisten zan. Aulki baten jesarrita, galduriko begiratzez leiotik kanpora urrutiko zabaldia begizatzen eban, eta alboko bonbil batetik edan baiña ez eban egiten, guzurrezko igesa idoro naiean, antza.

Urrun-miñez beterik, Ulojio'gaz zabaldian izandako aspaldi zoriontsuak gogora yatordazan, bera, txirrindolea ta irurok an-

emenka genbiltzala. Aldatz-beera asten zanean, Ulojio txirrindola-gaiñean azkon baizen arin oldartzen zan, eta orduan nik taka-taka nasaitsuz jarraitzen neutsan... Ba-nekian oso urrun ez litzakidala joango, ta ain zuzen be, urrengo aldatz-gora asita, an topau oi neban txirrindolatik jatsita, inguruetako larren usain gozoa bizi-naiaz ats egiten ebala.

Zabaldian, galduriko zoriona gure begira egoan, baiña Ulojio ez zan betikoa. Jangar eta nakar, edan eta edan baiño ez eban besterik egiten. Txera asko egiten neutsazan egoera larri aretatik ataratzearren, eta askotan jantzitik oratzen neutsan aterantz neroiala. Berak urten gura ez ba-eban arren, ez neban bakean izten baratzeru urten arte. Orduan arkesien artean egurasten gintzazan, eta inguruan ikotika nenbilkion, baiña asperturik, auxe iñostan laster:

—Kanelo, gaiuazan barrura, otz nok-eta.

Etxean sartzen gintzazan, eta Ulojio'k ardaoaren berotasuna billatu oi eban, gero ta geiago edanez. Ganbarako tximiñoak gogora etorten yatazan, geienetan amabi tximiño baiño geiago bazituan-eta. Laster, lo-korromoan bizi izaten asi zan, eta arrezkero, nire aalegiñak arren, ez neban baratzeru atara aal izan. Azkenez, jinebra edateari emon eutsan.

Udagoia asi zaneke, nire ugazaba oso txarto ikusi neban. Gauak ames txarpean emoten ebazan, bein eta barriz oiuka irartzarten zala. Orduan urreratu egiten nintzakiñ.

—Kanelo, Kanelo —zoro antzera iñostan—, ken eidak orko arratoitzar ori! Ez-al-yok ikusten? Suge baten begiak yozak, uxatu eidak arren...!

Orduan aurpegia miazkatzen neutsan eta baretu egiten zan. Gero, beste ikuspen izugarriak oean jesarrerazoten eban, eta barriro dei egiten eustan, ikara larria kendu nengion.

Bein baten, neskameak osagillea etxera ekarri eban, eta, Ulojio aztertu ondoren, nasaigarri batzuk agindu eutsazan. Arrezkeroko arratsalde baten, Ulojio'k auxe esan eustan:

—Entzuik, Kanelo, gaur ez yoat ezer edan, adimen zorrotzaz zerbait egiteko yaukuak-eta. Asko maite izan yoadana bearrian gorrian yagok, eta joan baiño len, arazo bat bete egin bear yoat.

Idaztekoa atara, ta esku dardartsuz arloari emon eutsan.

Amaitu ondoren, eskutitza estalki baten sartu ta gaiñean izki andiakaz auxe jarri eban: "Neure azken naia". Gero ene burua laztanduz,

—Ez-al-yakik gauza bat, Kanelo? Ba-naroiiek osasun-etxe batera. Yirudikanez, an osatuko nok, baiña batek ba-yakik..! Ara joateko baiña, baldintza bat jarri yautseat: neugaz etorri aiteala. Baietz esan yaustiek; beraz, biar joango gaituk.

Urrengo egunean, berebil andi bat gure etxe-aurrean gelditu zan, eta gizon sendo bi etxean sartu ziran. Orduko, Ulojio geriturik egoan, eta berebillean sartu ginduezan. Gidariaren ondoan jarri ninduen eta atzeko jarlekuan Ulojio, gizon sendo bien artean. Abiatu gintzazan, eta andik ordu batera-edo, Ulojio lotan asi zan. Orduan, areitariko gizon batek gidariari auxe agindu eutsan:

—Gu goazan lekuan ez dabe txakurrik artzen. Gelditu berebilla ta bota txakur ori kanpora.

Esan eta egin. Konturatu nintzaneke, berebilla bideko okergune batetik ostendu zan. Larritasun itzel batek menperatu ninduan, eta berebillaren atzetik oldartu nintzan. Zorionez, arin ibiltetari oituta nengoan, eta nire ibillerea neurtzen nebala, jarraitu egin neutsan. Gaiñera, ez zan arazo zailik, bidean ondo itsasia egoan berebillaren usaiñagaitik, eta olan uts egin barik niñoan.

Illuntzerako, orma garaiaz esituriko etxe andi-andi bateko burdiñazko atera eldu nintzan. Berebillaren aztarrenak antxe bertan amaitzen ziran. Orma guztia arakatu arren, ezin nintzan ezelan be sartu. Alako baten, konturatu nintzan, ormako leku batetik lurra igoten zala, muiño txikia eratuz. Tontorretik, eta aurreko ankak orman jarrita, osasuntegiko baratz geiena ikusi zeitekean. Orduan, tala aretan geratzea erabagi neban.

Biamonean, jagoleen zaindaritzapean geisoak banabanaka egurastera urten ziran, baiña ez neban nire ugazaba ikusi. Urrengo egunean, nire talatik baratza aztertzen nebala, orra or Ulojio agertu zala. Eskuak sakeletan eta buru-makur ibilli ebillen, alako itxura atsekabetua erakusten ebala. Zaunka bizi bat urten yatan, eta nire deia entzutean, niganantz arindu zan.

—Kanelo, Kanelo, —oiu egin eustan—, erdu nigana!

Beste barik baratzeru oldartu nintzan, arrapalada baten

urreratu nintzakion, eta aurreko anak bularrean jarririk, aurpegia miatzatu neutsan,

—Kanelo, nire lagun maite ori —esan eustan besarkatzen ninduala—, ez joan, geratu aite nigaz beti, bakarrik naiagok-eta!

Laztanten ninduala, eskuak dar-dar egiten yakoan, eta begiak gorrizkatuak zituan. Ustebagerik, makilla batek lepoan jo ninduan basaki, ta gizon indartsu batek idunekoa oratzen eustala, ateraiño narrazka eroan eta an ostikada bat az kanpora bota ninduan. Bitartean, Ulojio beste gizon bien artean oiuka jarkitzen zan.

Nire talara eldu nintzaneko, baratzean ez neban Ulojio ikusi. Niretzako egun baltza izan zan. Orrezaz gaiñera, luzaro nerabilen barauagaitik oso makal aurkitzen nintzan. Zoritxarrez, aldamen areitan ez neban janari-zantzurik ikusi. Olan ezin nengikean luzaro iraun.

Urrengo egunean, nire ugazaba barrero agertu zan, baiña ez neban lengo egunekoa egin, eta geldi-geldi geratu nintzan, zaunka leunak botaten neutsazala. Ulojio'k esku bat az agertu ninduan, eta gero ez-arian lez ara ta ona ebillela, urreratu egin yatan, eta ondoan zala,

—Ez aite joan, Kanelo —esan eustan—. I ikusteak poztasun andia yakarstak...

Ezin izan eban jarraitu, barruratzeko ordua zalako, ta joranez beterik begiratzen ninduala, alde egin eban.

Illunabar aretan talan kokatuta baratza ikustatzen nebala, indarren amaian nengoan. Makaltasun utsaz eziñezkoa yatan olan jarraitzea, ta zer egingo neuken buruan nerabillela, baratzean zear zuriz jantziriko andereño pertxenta bat urreratu yatan. Orma-ondoan zanean, auxe esan eustan:

—Janari-ondakiñak ekarteko agindu yaustak ire ugazaba.

Berba oneik esanda, orma-gaiñetik pardeltxu bat bota eustan, eta alde egin eban. Zoro antzera janariari eraso ta aida baten irunsi neban. Gau aretan ondo samar lo egin neban, eta urrengo egunean indarrez beterik iratzarri nintzan.

Era onetan ugazaba ta biok egunero alkar ikusten genduan, eta illunabar guztietan, zuriz jantziriko andereñoak janaria ekarstan. Baiña Ulojio gero ta itxura txarragoa erakusten eban. Eskuak eta herbak dardarikatu egiten yakoan, eta begien gorritasuna

geiagora yoiakion. Abots totalaz iñostana, nekez ulertzen negikion.

Egun baten, auxe esan eustan:

—Begiraik, Kanelo..., biziera au ezin yoat eroan... biar bertan alde egingo yoagu... ta txirrindola bat erosirik... zabaldian zear joango gaituk aspaldian lez,... ezta, Kanelo...?

Urrengo egunean, baiña, ez zan azaldu. Illuntzean, zuriz jantziriko andereñoak janaria emoten eustan bitartean, negarrez esan eustan:

—Ire ugazaba il dok, Kanelo! Gizon on-ona zoan, eta eskupeko asko emoten yeustan. Obe olan, oso zoribakoa zoan-eta. Atzo bertan, il baiño len esaten yeustan txirrindola bat erosiko lieuskekala, ta igaz larretan zear abiatuko litxokela... Bai, asko maite induan ire ugazaba gaisoak...!

Gau aretan korapillo bat eratu yatan eztarrian, eta ez neban janaririk artu aal izan. Gau osoan ulu negartsuak jaurti nebazan, oiñaze bizi batek biotza zapaltzen eustala.

Urrengo egunean, burdiñazko atea zabaldu zan, eta bidean egoan berebillean, zerraldo bat sartu eben. Urreratzen nintzakiola, nire ugazabaren usain berezia oartu neban. Berebilla bereala abiatu, ta bide-ertzean bakarrik geratu nintzan. Nik, baiña, ba-nekian norantz yoian, eta, ibillera neurtuaz, bideari ekin neutsan.

Eguerdirako, aitz aldapatsusakaz mugaturiko aran ederrean egoan Ulijio'ren errira eldu nintzan, eta "Indiano'enea" jauregira jo neban; baiña etxea utsik egoan, eta erritik or-emenka asi nintzan. Alako baten, elizatik laguntalde andia urtetan zala ikusi neban, eta onen atzetik nire ugazabaren zerraldoa agertu zan. Begiratzen neutsala, esku batek laztandu ninduan.

—Kanelo, emen ago i be? —esan eustan izeko Mariuka'k—. Maite geindukanontzat benetako tamala. Gure Ulojio maite, zintzo, on-ona yoan yakuk. Ator gurera, Kanelo, ta geratu adi betiko...

Orduan, aren seme Toñuko urreratu yatan, eta laztan bat egiten eustala, nire zidarrezko idunekoari begira ta begira geratu zan. Toñuko'ren begitadea ez yatan atsegin izan. Mutil aregan siñisbiderik ez jarteko iñostan barruko sen batek.

Jarraian, laguntaldea obitegira bideratu zan, eta orduko gerturik egoan obian, zerraldoa jatsi ta gaiñean lurra bota eu-

tsoen. Azkenez, arnabar ederraz obia estaldurik, jendetza saldoka urten zan. Udagoiko aize zakar batek, zugatzen orriak sakabana-zen zituan, eta ulu negartsuen artean orbelek karraska motelak egiten ebezan, or-emenka zurrunbilloen besoetan norabarik yoi-zala.

Bakarrik itzi ninduenean, nire ugazabaren gorpua estaltzen eban arnabarren ondoan etzan nintzan. Nekaturik eta makal nengoan, baiña ez nintzan gose: aurreko egunean saman eratu izan yatan korapilloak, jateko gogoa eragozten eustalako, urrean. Lokuma batek artu ninduan, eta atsegin izango litzakidala otu yatan, olan, nire ugazabaren ondoan, betiko bakean lo egin.

Arrats-beeran iratzarri nintzan. Kirrinka batez sarrerako atea edegi izan zan, eta baltzaz jantziriko andrazko bat, nentzan lekurantz urreratzen yatan. Tinuka bereala ezagutu neban. Obi-ondora eldu zanean, arnabar-gaiñean lora-txorta bat itzirik, otoi-zari emon eutsan. Otoi bitartean, malkoak mara-mara eriozan. Gero, suzmur eta erostaka, nire ugazabari dei egin eutsan:

—Ulojio, Ulojiuko, eskerrak biotz-biotzez... Asko maite izan bear nozu. Zelango mesedea egin daustazun...! lur-jota nengoan jatekorik be ez nebala... eta orain zelangura biziteko beste, zeuri eskerrak. Atzetik zenbilkidanean, jakin ba'neu noraiño maite ninduzun... Agur, Ulojio, ez zaitut iñoiz be aztuko...

Gero, negar-anpuluak txukatu ta jagi egin zan. Azkenengoz ikusi neban. Urteak igaro izan arren, egun aretan bere aurpegiak edertasunezko aztarrenak erakusten ebazan, eta zelanbait antz emon eustan, maite izatea merezi ebala. Gero, urteerantz biurtu ta atetik ostendu egin yatan.

Gaua eldu zan, eta onegaz batera ordu latz, mingarriak. Aizea bareturik, euri-jasa lodiak artu ninduan. Otzez dar-dar eta urez txirrioan, goizaldeko argi makala noizbait agertu zan. Toki aretan betiko geratu gura izango neukean, baiña ni baiño indartsuagoa zan zerbaitek dei egiten eustan. Izeko Mariuka'ren itz maitekorrak gogora etorkidazan... "Ator gurera, Kanelo, ta geratu adi betiko...". Eta illobia azkenengoz begizaturik, biotza oiñazez ler egiteko zorian, goizaldeko argietan zear, izeko Mariuka'ren etxerako bidaldi luzeari emon neutsan.

Etxea menditxu batetik ikusi nebanean, azkenengoetan aur-

kitzen nintzan. Ba-ziran egun bi mendi-ibar-zelaietan gora ta beerra, janari ta atsenden artu barik, sen bereizi baten deiak neroala. Begimen-laiño artean, nire elburua zan etxea ikustean, arnas estuka etzanda jarri nintzan, eta nire ugazaba il zanetik, noizbait lenengo zorion-unea izan neban. Gero, arrapalada baten etxerantz oldartu nintzan.

Izeco Mariuka atadian egoan, eta ikusi ninduanean, atsegiñezko oi u bat urteten yakola, besarkada estua emon eustan. Gero, nire itxura negargarria ikustean, janari-zati batzuk eskiñi eustazan, eta gosebera irusten nebazala, irribarretsu begiratzen ninduan. Amaitu nebanean illunabarra zan, eta lo-gura aztunak menderaturik, sukaldeko ate-ondoan ikusi neban lasto-meta baten gaiñean etzan, eta bereala lo geratu nintzan.

Alako baten, agotsen zarraparreak iratzarri ninduan. Eskaratzetik, izeko Mariuka ta Toñuko'ren berba asarrekoiak etorkidazan. Nik ez dakit zeri buruz ziardeen, baiña eurentzako garrantzi andiko arazoa izan bear zan. Toñuko'k baietz, eta izeko Mariuka'k ezetz, luzaro samar eztabaidan iraun eben. Azkenez, Toñuko'rena baiño beste barbarik ez zan entzun. Gero, barruko argia amaituta, dana isil-isillik geratu zan, eta bake arek laztanduriko, loak artu ninduan.

Urrengo egunean, goizean goiz, kate bat ekarrela, begitarte atsekabetuz izeko Mariuka urreratu yatan.

—Entzuidak, Kanelo —esan eustan—; atsegin ez ba-yatak be, lotu egin bear aut. Bart Toñuko'gaz eztabaida itzela izan naiuan, eta azkenez bakeagaitik amor emon bear. Ez yakiat buruan zer yarabikan, baiña lotu bear indukedala esan yeustan.

Maitasunezko itxuraz lotu ninduan, eta alde egin baiño len, auxe esan eustan:

—Ez larritu, Kanelo, zenbat gura janari emongo yauat, eta olan, galduriko indarrak irabaziko yozak.

Eta olantxe jazo zan. Atsedean eta janariaz indarrak laster irabazi nebazan, baiña bizitzarako alaitasuna ezin irabazi. Jopu-antzera sentitzen nintzan, eta zelan edo alan askatu baiño ez neban buruan besterik erabilten. Toñuko egunean birritan etorkidan, eta saietsak ukutzen eustazan. Ni gero ta lodiago ikustean, aurpegi goibela alaitu egiten yakon. Niri, baiña, naigabea ez yatan

joaten, eta iñoizkorik sendoen Ulojio'ren, nire ugazaba maitearen eriotza biotzean neroian. Ai, bera bizi izan ba'litz...!

Illuntze baten, zapi ta diztiragarriaz Toñuko'k zidarrezko idunekoa garbitu egin eustan. Amaitutakoan, itxura atsegiñaz begiratu ninduan, eta gero pozez txistuka joan zan. Andik laster, izeko Mariuka etorri yatan.

—Ez-al-yakik gauza bat, Kanelo? —esan eustan nire burua laztanduz—. Biar bertan joango aiz. On Jerolimo, or beko itsasaldean udea emoten yokan aberats bat, eu ikustera etorriko dok. Gizon au, Palentzi'ko erri andi bateko barataria dok, eta aspaldiz eiza-txakur on bat erosteko asmotan yabik, eta, i salgai aizala jakitean, ikustaldi bat egingo yauskuk. Toñuko'k i iduneko barik saldu, ta gero idunekoa beste aldetik saldu gura yuan, diru geiago atarako yualakoan; baiña nik ez naiuan olakorik gura, Ulojio'ren gomutapena dokalako, ta azkenean biak batera saltzekotan geiago artuko yokalaren eritxira ekarri yoat. Maite be maite aut, Kanelo, baiña obe yok emendik yoatea, zoriontsua ez aiz-eta...

Gau aretan, askatasun-egarria baretuko yatala bururape-naz, lo geratu nintzan.

Urrengo eguneko eguerdian, berebil dotore bat etorri ta gizon lodikote biribilla jatsi zan, eta, Toñuko laguntzaille ebala, azterketa zeatza egin eustan. Begiratzen ninduala, betoker andia zala konturatu nintzan.

—Ez da itxura txarrekoa —esan eban On Jerolimo'k—, baiña zuk eskatzen dozun beste ez dau merezi.

—Ikusi dautsazu zidarrezko idunekoa?

—Bai, baiña alan eta guzti be askotxu eskatzen daustazu.

—Eta eizan? —Toñuko'k guzurti bota eutsan—. Ikusi ba'zendu tximista baizen arin egaztien usaiña artu, jarraitu, ta bein mugatuta, buztana tente untzatuta lez zelan gelditzen dan...Begera, zidarrezko iduneko barik, iru milla laurleko gutxiagotan itziko neuskizu.

Baiña On Jerolimo'k osorik nai ninduan, eta azkenez bat etorrita, saldu izan nintzan.


Izeko Mariuka'k begiak bustirik ebazala, besarkatu egin ninduan.

—Agur, Kanelo, zoriona opa yauat.

Gero, On Jerolimo'k iduneko begitean ede dotorea jarri eustan, eta berebillera eroaten ninduala, erabiltaillari,

—Etxera —agindu eutsan.

Bidean gora ta beera, azkenean mendiak atzean itzirik, ordoki batetik abiatu gintzazan, eta iru ordu-edo igarorik, erri andi samar bat aurkeztu yakun. Noizbait, arrizko etxe eder baten sartu ninduen.



On Jerolimo mutilzarraren sendia oso laburra zan. On Jerolimo bera, ta onen arreba Nitxu neskazarra. Gaiñera, ba-zan etxean beste bat, sendikoa ez zana, baiña etxekoai oso atxikia: Lina neskame zaarra.

Gure baratariari etxean ez eutsoen Jerolimo esaten. Etxe aretan "txu" txikigarria erabili izaten zan edozetarako.

—Lina, —sarri askotan etxekoandreak neskameari esan oi eutsan—, joan zaitez azokara, ta ekarri egidazuz libratxu bat gozaki, opiltxuak, azatxu bat, eta oiko sagartxuak.

—Bai, Oña Nitxu —erantzuten eutsan Lina'k— berealaxe joango naz, eta bide batez, etzirako okelatxu ta azurtxuak aginduko dodaz.

Eta gerotxuarte esanaz, neskameak alde egiten eban.

Olan, ba, On Jerolimo'ri On Motxu iñotsoen, eta izen onez erri guztian ezagutzen eben (ez, baiña, bere aurrean). Ez dot iñoz jakin On Motxu'ren arrebearen benetako izena, etxean Nitxu edo Oña Nitxu esaten eutsoen-eta. Lina'ri buroz bardin: ez nekian au bere egiazko izena zanik, ala beste baten txikigarria.

Etxea, erriko onenatarikoa zan, eta benetako baratariari dagokionez, enparantza zabalean jagiten zan. Mailla bitakoa izanik, beekoa, kaleko sastran egoan, eta onen sarrera ederretik goimaillarako zurezko zurubi zabala asten zan. Eskaratza, jatokia, iker-aretoa ta Lina'ren lo-gelea, beeko mailla onetan egozan. Goi-koan, iru lo-gela ederrak eta On Motxu'ren liburutegi bikaiña.

On Motxu'ren lan-tokia edo idazgelak, kale Nagusiko etxe

baten egozan, eta lan asko etorkionez, laupabost laguntzaille zituan. Barruti aretako baratari bakarra izanik, idaztegiara arazo asko etorkion, eta On Motxu'ren irabazteak andiak ziran. Au agirian egoan etxean erabilten zan bizieran. Neuk izan ezik, On Motxu'k, Oña Nitxu'k eta Lina'k asko ta ondo jaten eben, eta danak bederatzi arroatik gora ibilliko ziran. Olan ba, On Motxu'k irudi biribilla erakusten eban, eta amar arroak atzean itzi ebazanean, biotz-ondoezak etorri yakozan ezkerero, erriko osagilleagana joan bear izan eban.

Argaltzea derrigorrezkoa zala, osagilleak esan eutsan, eta orretarako urdail eta agiñai oporraldia emon, edo osterantzean kirolai bear dan lez eutsi. On Motxu'ri lenengo bidea ez yakon gogoko etorri. Gaiñera, arrebeari osagillearen erabagiak azaldu ondoren, Oña Nitxu'k auxe esan eutsan:

—Janaritzua gutxitu? Ori ezelan be ez Motxu. Orain daukazu itxurea galtzea tamalatu litzake. Eta gaiñera, zuk lango adimen-lanari bizi-bizi emoten dautsanak, indar-galpen andia izaten dau; beraz, beste iñortxuk baiño areago jan egin bear dozu. Nik uste, daukazun gorputz sendoaz, kiroletarako onenatarikoa izango zarala. Kiroltxu on bat aukeratzekotan, gauzak euren zere-ra biurtuko dira.

Ez egoan beste aukerarik, beraz, eta arrebatxu ta urdailtxuaren burubideai jarraituz, kiroltxu egoki bati emotea aukeratu eban. Zeiñi, baiña? Auzi au garbitzeko, kasinoko bere lagunakana joatea erabagi eban.

Kasinoko lagunartea, erriko iru osagilleek, botikalariak, alkateak, udaletzeko idazkariak, ertzaiñen buruak, albaiteruak eta aberats batzuk osotzen eben. On Motxu'k burubide-billa onekana jo eban, eta gizonaren garrantziari egokionez, auziari benetako ardurea emon eutsoen. Azkenean zeatz guztiak aztertutik, txirrindolaritza, oin-lasterketa ta olango iñarkunak baztertzea erabagi izan zan. Izan be, nekez asmatu leiteke On Motxu'ren atzekalde mardoak praktatu baten atzetik doi-doi ostenduta, txirrindolari edo oin-lasterketari ekin eta ekin. Barataritzari ta kasinoren izen onari egokienez, beste jardundibe bat idoro bear zan, eta azkenez, eizea aukeratu izan zan.

Olan ba, On Motxu'k eiza gertuerai buru-belarri emon eu-

tzen. Erriko arotz onenari iskillotege dotorea agindu ta onetan iru zizpa bikain ipiñi ebazan. Gero, jantziaren arazoa etorren, eta Oña Nitxu'gaz autu luzea izan ondoren, auzi au azkenerako iztea erabagi zan, au da, eizaldia etorri arte. Argaltzeko zan ezkerero, orduan bertan jantzitxua egingo leuskioe.

Noizbait txakurraren arazoari ekin bear izan eutsan. Kasinoko bere lagunek, ago batez auzi oni ardurarik andiena emoten eutsoen. Beraz, eiza-txakur on baten billa asi zan, ezagun guztiak txakurrarena jakiñerazoz. Egun baten, oporrak emoten ebazan itsasaldeko erritxutik, basetxe baten, txakur ona salgai zanaren mandatua etorri yakon. Eta olan, On Motxu itsasaldera joan zan, eta emendik izeko Mariuka'ren basetxera igonda, erosi egin ninduan.

Asieran, beeko maillan bizi nintzan. Zurubipean lastamarraga antzera zorro batzuen gaiñean lo egiten neban. Auxe zan benetan etxe aretan emoten eustenik onena. Janari ta maitasun gutxi izaten nabazan; baiña niretzat txarrena, etxean katigu bizi izatea zan, batez be, zabaldietako bizikereari oitua izanik. Olan ba, beti gose, beti askatasun-egarriz bizi izaten nintzan. Gaiñera, Ulojio nire ugazaba zanaren gomutapen biziak etenbage atsekabetzen ninduan. Gau-aldietan zoriontsuagoa nintzan, eta sarri askotan ames egiten neban, Ulojio, txirrindolea ta irurok, bideetan gora ta beera giñoazala. Baiña urrengo goizean iratzarten nintzeanean, etxe aretako ituntasun eta joputasunak larri biurtzen ninduen.

Janaria, —edo janaritzua, egokiago esatearren—, oso neurtuta emoten eusten, eta askotan Motxu'k Nitxu'ri auxe iñotsan:

—Kontuz gero, Tximist'i emoten yakon janariaz. Gutxitxu jateak, eiza-txakurrai soiña arinduz gaiñera, zentzunak eta adimena zorrozten dautsez. Begiratuizu, Nitxu:

Au esanik, janari apur bat aidean botaten eustan, eta gosearen-gosez irunsi egiten neban. Egia esateko, ez nintzan konturatzen irusten neban ala ez, baiña ziur naz urdailerako bidean galtzen zala, itua lortu barik. Izan be, On Motxu'k eizarako tresnatzat begiratzen ninduan, eta ez zan nire bearrizanaz arduratzen. Lina'k ezkutuan emoten eustazan apurrai ezkerak, bizi aal izaten nintzan.

Aztu yat, baiña, esatea, On Motxu'nean lengo izena kendu ta barria emon eustela. On Motxu'ri ez yakon eder "kanelo" izena neu lango txakur batek eroan egian. Guda-izen indartsua, bere eiza-txakurrarentzat nai eban, eta buruari asko eragin ostean, "Tximist" izena jarri eustan. Izen onek, etxeko andrazko bien one-ritsia irabazi eban. Pozik egotekoa zan, "Tximistatxu" izenaz bataiatu ez ninduelako.

Ain zuzen be, izen ori ondo egokidan. Tximistearen indarra ta arintasuna nebazalako ez, aren argaltasunaren irudikoa nintzalako baiño.

Illuntze baten, kasinoko bere lagunek ikusi nengien eroan ninduan. Jarleku erosoetan bost edo sei gizon garrantzitsuak egozan, autu nasai bati emoten eutsoela. Eldu nintzanean, alkarrizketea eten egin zan, eta On Motxu agurtu ondoren, guztiek begi zorrotzez aztertu ninduen. Areitariko albaiterua zanak, bezero baten aurrean bai'litzan, egundoko azterketa egin eustan, begiak, belarriak, burua, agiñak, anakak, buztana ta soin guztia, esku ariñaz arakatzen eustazala. Amaitutakoan, On Motxu'ri auxe esan eutsan:

—Txakur on-ona da, Jerolimo; baiña oni zelango jatekoa emoten dautsazu? Txakur baten erradiografia deritxo. Olan jarraitzekotan, egazti biurtuko yatzu.

—Bai —beste batek geitu eban—, olan ez dozu zizparen bearririk izango.

—Baiña ez zeustan zeuk esan —erantzun eutsan On Motxu'k—, zure azterpen-gelara joan nintzanean, nire gatxa loditasuna zala? Orra or, ba, zegaitik zaintzen dodan txakurra gatx orretatik...

—Ain zuzen be, olantxe da; baiña emen argaldu dan bakarra, txakurra da. Zuk, ostera gero ta lodiago emoten dozu.

—Ba'leiteke —On Motxu'k erantzun eutsan—; baiña itxaron; eizean asi naitenean...

Eta autu onetan luzaro samar iraun eben. Azkenez, eiztarien artean sarri askotan jazoten danez, eiza-ipuiñak alkarri esaten asi ziran. Albaiteruak izkirimiri au eralgi eutsen:

—Bein baten, eizea amaiturik gosez makalduta bazkaria egiteko erritxu baten sartu gintzazan. Noizbait erriko ostatu baka-

rra topau genduan. Ostatua euliz beterik egoan, eta maiak batez be areikaz estalduta agertzen ziran.

—Bazkaldu daiteke emen? —itaundu eutsan ostalariari guretariko batek.

—Bai, Jaunak.

—Ba-al-daukazu bazkal-aurrekoak eta solomokia?

—Bai, Jaunak, baiña...

—Ekarri egiguzuz, ba, lenbailen.

—Bai, baiña...

—Zer da "baiña" ori?

—Jaunak parkatu beiste, baiña nik etxeko jaki bereizia eskiñiko neuskie...

—Zein da jaki ori, ba?

—Txapel-erako arrautzak, edo bestera esanda, arrautz txapelarrak.

—Ez dot egundo be, jaki ori entzun. Ze arraio da ori?

—Aditu begie Jaunak."

" Une aretan sukaldetik neska batek txapelaz estalduriko azpil bat ekarren, eta erriko gizon baten aurrean ipiñi eban. Orduan, onek txapela jaso, ta, tximistea baizen arin, ogi-zati bat sartu ta atara eban, txapela barrero jarriez.

—Baiña zetan dabil gizon ori? —guretariko batek ostalariari itaundu eutsan.

—Begira, Jaunak; erregosiriko arrautz bi txapelpean dagoz, euliek ukutu ez dagiezan. Orain, bazkalariaren trebetasuna da, ogia arrautzatu ta atara euliak barruratu baiño len. Erri onetakook maisuak ditugu arazo onetan, eta euliak gosez ilten asi yakuz.

—Asmakizun itzela da ori —esan geutsan—. Atara egiguzuz bakotxari ba, txapela-erako arrautzak.

—Arazoari kiroltasuna emotearren —geitu eban ostalariak—, emen beintzat, lagunen arteko postorea egiten da, ta euliren bat txapelpean sartzen yakonari, onek lagun guztien janaria ordaintzen dau."

Era onetako izkirimiriak alkarri esan eutsoezan. Niri, baiña, autuak ezer esaten ez eustan ezkerro, jesarleku baten azpian lo geratu nintzan.

Noizbait etxera biurtzeko garaia eldu zan, eta On Motxu ta biok urteerara abiatu gintzazan. Zurubian beera giñoazala, albaiterua urreratu yakun, eta nire ugazabari adarra jotearren, antza, esan eutsan:

—Egia esateko, txakur ori ez da orren argal...

—Orixen da nik diñodana, ba, baiña goiko iñuzenteok, ez dabez txakurrak ondo ezagutzen.

Alkarri agur egin ondoren, etxerako bidea artu genduan. Argi-ontzi baten azpitik giñoazala, On Motxu gelditu egin zan, eta betezkel begiratzen ninduala, ixil-mixilka auxen esan eustan:

—Ain zuzen be, Tximist denganiño ori, ez ago orren argal... Ik salokeria baiño ez yaukak.

Jasaten neban bearrizan gorriari, gosekeria esan...! Nire saietsak kitar-ariak baiño argalagoak, eta salokeria baiño ez zala...! On Motxu'ren eperdiari ez erasotearren, indarraldi itzela egin bear izan neban.

Arrezkero, On Motxu'k etxean jarritako neurriakaitik, nire goseak ez eban mugarik ezagutu. Gau ta egun, janarixua zelan lortu baiño ez neban besterik buruan. Egunez oso gatxa zan eskaratzean gauzarik arrapatu, andrazko bietarik bat gutxienez beti an egoan-eta. Janariaz ames egiten neban ezkeron, adimena zorroztu egin yatan, eta guztiak lotara joaten ziranean, eskaratzean sartzeko eretia etorten yatan.

Gauoro, oera joan aurretik, Lina'k eskaratzeko atea kisketaz ixten eban. Gabeko bakean etxekoen zurrungak entzuten ziranean, ateko kisketari ekiten neutsan. Asieran ez zan gauza errazarik izan, baiña ekin eta ekin agoaz kisketa bira egiten ikasi neban. Lenengotan kisketak zarata egiten eban, baiña azkenez leunki eragiñez, isillean egiten ikasi neban. Eskaratzeko arasea giltzaz itxita egoan, eta nire aalegiñak arren, ez negikean zabaldu.

Itxaropen bakarra, adalapean egoan txokoa zan, baiña onen atea maratilla bat azkiurtatzen eben. Txoko onetan, suil bete janari-ondakin gorde eraien. Laster ikasi neban aurreko anka bat azkiurtatzen, maratilleari ekin eta atea zabaltzen. Suillean, beti zeozer topau oi neban, eta oni eskerrak nire gosea zerbait baretzen zan. Gero, maratillea lengoan jarri, eskaratzeko ateari kisketa emon,

eta zurubipeko nire oatzera barriro. Olan ba, bizi-iraupenari eutsi neutsan.

Eskaratzean, etxeostera begiratzen eban leiatilla bat egoan. Emen, neguan batez be, okela ta antzekoak galdu ez zeitezan gorde eroiezan. Gau baten, usaimenak zeozer gozoa egoala adierazo eustan. Sutundu nintzan, eta maratilleari ekin ondoren, atetxua zabaldu egin aal izan neban. Kanpoko aldean gau-otzpean, oillasko bi somatu nebazan. Ezin, baiña, zirikalidiari aurre egin, eta areitariko bati agoan eutsirik, an bertan azurrak, erpeak eta guzti garbitu neban. Gero, leiatillako maratillea lengoan jarri ta aztarrenak itzi barik, nire lo-lekura biurtu nintzan, eta, izan be, iñoizkorik ondoen lo egin neban.

Urrengo egunean, On Motxu idaztegiara joan izan zala, Lina'ren oi bizi batek goizerdiko bakea eten egin eban.

—Ai ene, ai ene...! Oña Nitxu, mesedez erdu ona, oillaskotxu bat ostu dauskue...!

Nik neure etzategian ez entzun egin, eta ondo iratzarrita, andrazko bien autuari arreta andiaz jarraitu neutsan.

—Txakur madarikatu ori ez al-da lapurra izango?

—Ez dot uste, Andrea, nik neuk maratilleaz itxi neban-eta.

—Begira ea ondakiñen aztarrenak non edo non agertzen diran.

—Ez, Oña Nitxu. Ez da ezeren zantzurik ikusten.

—Alan eta be —erantzun eutsan Oña Nitxu'k—, nik txakur barrabasa ori izan dalakoan nago.

—Lengo egunean —otu yakon Lina'ri—, oillotegiko tellatuan katu bat ikusi neban, eta ondo dakizunez, teillatu orretatik gure etxeostera ta emendik leiotillara gauza erraza da.

—Baiña, Lina, iñuzente ori, zelan demoniño sartzen yatzu buruan, olako oillaskoa katu batek arrapatu dagian, eta gero aztarren itzi barik, teillatuan gora ostendu?

—Eta zelan sartzen yatzu buruan, txakur batek sukaldeko kisketa erabilli, gero leio txikiaren maratilleari eragin, oillaskoa artu, iruntsi, ta dana lengoan itzi dagian?

—Ez dakit, Lina; baiña nire nebea bazkaltzera etorri daite-nean auzia ebatziko dausku.

Eguerdian, On Motxu etorri zan, eta jazoriko guztiaren jaki-

tun ipiñi eben. Zer guztiak ondo ausnartu ondoren, a lango gizon garrantzitsuari dagokionez, berba arranditsuakaz auxe esan eutsen:

—Auzi ori oraintxe berton garbituko dogu. Ez dakit zelan ez yatzuen otu, txakurra gose dan ala ez, egiztatzea. Oillaskotxua iruntsi izatekotan, ez da goserik izango. Ikusi dagigun: Tximist, ona, ona!

Ariñeketan joan nintzakion, eta inguruan ikotika, jolas-jaiak egin neutsazan.

—Lina —On Motxu'k deadar egin eutsan—, ekarri egidazu okondo bat!

Salomon erregeari berari egokion burutapen bardinbakoa zan, baiña On Motxu'k, aspaldi aretan jasaten neban gose gorria ez eban aintzakotzat artu izan. Gaiñera, amabi ordu igaro izan ziran oillaskoa jan nebanetik, eta urdailla beti lez janari-eske ebilkidan.

On Motxu'k okondoa jaurti eustan, eta bertan-bera iruntsi neban. Gero beste bat, eta nik bardin.

—Ez dago ezpairik —erabagi eban On Motxu'k maisu baten itxuraz—:Txakur onek ez dausku oillaskotxua jan.

Orduan, sorgiña langoa zan Oña Nitxu'k auxe esan eutsan:

—Baiña, Motxu, ez-al deritxazu txakurrari sabela anditu egin yakola? Nik neuk beintzat baietz esango neuke.

On Motxu'k sabela aztertu eustan, eta gero arrebeari auxe esan eutsan:

—Ori zure eritxikeria da, ta ez adimenaren errazoiak. Nik uste, okondoen agerbideak naikoa dirala auzi au argitzeko. Bideren bat idorotea da orain dagokiguna, oillaskotxuarena barrero jazo ez daiten.

Orduan autu luzea izan zan, eta azkenez, ganbaran egoan kanario zanaren kaiolea egokia zala, Lina'ri otu yakon, eta aurre-rantzean okela ta antzekoak kaiolearen barruan, leiatillako ozkiri-jarriko ebela erabagi zan.

Baiña jazoerea ez zan emen amaitu. Gau aretan Oña Nitxu sorgiña, bere nebeari arren eta arren ibilli yakon. Ezin izan neban jakin zeri buruz ziarden, gelako atea itxirik egoalako, baiña urrengo egunean dana jakin neban. Gosaldu baiño ez, Lina'k

etxeosteko atea edegi eustan, eta nire lastamarragea eratzen eben zorroak ango txoko batera eroan ebazan. Etxe-barruko epeltasu-netik, izarpeko etxeoste otzera kanporatu izan nintzan. Eta goseaz gaiñera, orain negu gogorreko otzak usigiko ninduke.

Orma garai bik eta oillotegiak, lauki erakoa zan etxeostea mugatzen eben. Oillotegia txabola txikia zan, eta emen seiko oillotaldearentzat, lo egiteko agak eta arrautz-abia egozan. Len bai'eizan oillarra, baiña bein baten arrautzen billa sartu izan zan Oña Nitxu'ri, beste oillo bat zalakoan-edo, eraso egin ei'eutsan, eta ekintza onek Oña Nitxu'ren duintasuna mindu eban ezkerero, oillarra garbitu egin eben.

Leku onetan, ba, nire bizitzaren beste ekitaldi bati asiera, edo obeto esateko, nire goseteari jarraipena emon neutsan. Baiña orain negu-miñean gengoan ezkerero, goseari otza geitzen yakon. Etxe ta oillotegi arteko txokoan, nire izarpeko lo-gelea aurkitzen zan, eta teillatuko egapean egoan ezkerero, euria zanean ez nintzan erdizka baiño bustiten.

Gauak amaibakoak egiten yatazan, gose ta otzak etenbage zirikatuta; baiña adimenari ekin eta ekin, azkenez otzari aurre egiten ikasi neban. Zorroetariko bi, bizkar-gaiñean burusi antzera ipintea lortu neban, eta olan otzaren eztenkadak uxatu aal neban. Goseari buruz, zelan edo alan zerbait egin bear, eta, buruari eragin ondoren, emoten eusten apurkeriari zeozer geitu aal izan neutsan.

Oillotegiko aurrekaldea atea eta orma motz batek eratzen eben. Atea beti giltzaz itxita egoan eta orman zulo bat eratuta eukan, oilloak urten eta sartu zeitezana. Ormeak metro bateko goiera izango eban, eta ortik gora, oillo-txabola burdiñazko saretegi bataz itxirik egoan. Olan ba, oillotegian eguneko argia sartzen zan; alde baten lo egiteko agadia egoan, eta beste aldeko txokoan arrautz-abia ta janari-erratillua.

Oilloek geienetan etxeostean jarduten eben, baiña gose ziran-edo arrautza erruntzeko garaia etorkienean, baita eguraldi txarra zanean be, zulotik txabolan sartzen ziran.

Goizean, Lina'k edo Oña Nitxu'k aurreguneko janari-ondakiñak erratilluan jarri ta arratsaldean eguneko arrautzak jasoten ebazan. Atea edegiteko, giltza erabillen, eta giltz ori beti

gorde eraien. Oso gatxa yatan, beraz, nire gose gorria baretzea.

Askotan, zulotik burua sartu ta barrukoa begiz aztertzen neban. Bein baten, ondakiñen erratillua zulotik ur samar egoala konturatu nintzan... Orduan, zulotik anka bat sartu ta aalegin andia egiñez, erpeaz erratilluari eutsi ta zuloraiño ekarri neban. Gose gorriak eraginda, aida baten dana iruntsi ta ispillua bai'ltzan garbitu neban. Olan ba, erratillua zulotik urrun ez izatekotan, oilloen janariaz jabetzen nintzan.

Arazo onetan, baiña, ez neban zuur jokatu. Alde batetik oilloen errunketea gutxitu, ta erratillua garbi-garbi ikusteak bestetik, Oña Nitxu'ren susmoak iratzarri ebezan, eta begirari jarrita, bere oillotxuen janariaz jabetzen nintzan bein baten, eskuan makillea eroiala oldartu yatan, auxe iñostala:

—Lapur alako ori! Lapur alena! Nire oillotxuen janaritxua ire kolkorako...! Lengo eguneko oillaskotxua euk ostu yeustan, eta ez Oña Plorentzi'ren katutxuak, denganiño orrek!

Eta makilleaz jo nai ninduan; alperrik, baiña, bera baiño ariñagoa izanik, aren zartadak alderatu egiten nebazan-eta. Azkenean, aspertuta, bakean itzi ninduan. Gero konturatu nintzan, oso zentzunbako jokatu izan nebala. Erratillua ain miazkaturik itzi ez ba'neu, ez neukez neskazar sorgin aren susmoak iratzarri. Nire burubagekeriak merezitakoa ekarri izan eustan, eta irauteko bearezkoa yatana, galdu egin izan neban.

Arrezkero, nire ondolik igaroten zan bakotxean, begiai txinpartak eriezala, mutxurdin prakerre arek auxe esan oi eustan:

—Lapur alakoa! Iretzat orrenbeste egin ezkero, ori dok guganako yokan begirunea!

Sorgin aren berba ozpintsuek ez eusten ardura andirik emoten. Egoera goseti aretan ez neban astirik janariatxaz ames egiteko baiño. Noizbait, jazoerak nire alde jokatu eben, eta eziñezkoa zirudiana, au da, toki aretan janaria aurkitu aal izatea, jadetsi neban...

Goiz argitsu baten, oillotegiko zulo-aurrean eguzkitan nentzala, taldeko ederrena zan oillo gorriak sartu gura izan eban; baiña sarrera eragozten neutsan ezkero, or-emenka zaratatsu asi zan. Azkenez, baiña, gelditu zan eta arrautza gorri ederra lurrean bertan errun eban. Arrautzea ikusi baiño ez, arrapalada baten

oskol eta guzti iruntsi neban. Izan be, axe zan nik egundo jandako kopaurik gozoena, ta arazoari merezi eban ardurea emon neutsan, emon be.

Oillo gorriak iru egunetarik arrautza bi errun oi ebazan. Lenengoa goizean, bigarrena urrengo eguneko arratsaldean, eta irugarrena oporrekoa zan. Gora-beera oneik jakiñik, ba-nekian oilloaren itxuratik erruntzeko garaia noiz izango zan, eta orduan zuloaren aurrean etzanda jarten nintzan. Sartu eziñik, oilloak kanpoan erruntzen eban. Ez zan gauza andirik, baiña benetako bizikaia zan ezkero, emoten eusten apurkeriari geituz, askozaz obeto nengoan.

Eguren bidean, oillo gorria egoera barriari oitu, ta laster asi zan txoko egokiren billa, arrautzak egiteko leku erosoak naiago dabez-eta. Laster igarri eban, lekuri erosoena lastamarragea zana, ta nire etzanlekua erruntegizat aukeratu eban. Zer esanik ez, arrautzea egin baiño ez, nire urdailerako zala. Luzaro barik, eta zuloaren aurrean oztoporik ez izanik be, nire txokoa barruko abia baiño naiago eban. Olan ba, ez neban zuloari beste jaramonik egin bear. Lastamarragan etzanda ba'nengoan be, nire ondoan erruntzen eban, eta uleetan mokoka, kili-kili bigunak egiten eustazan.

Bein baten, nire alboan arrautzea egiteko zorian zala, oilloentzako janaria ekarrela, Oña Nitxu agertu zan. Ondakiñak erratilluan itzirik, janari-billa etozan oilloak zenbatzen asi zan. Bein eta barriz bost oillo baiño ez ebazan kontatzen. Orduan urten, eta etxeostearen arakatzeari emon eutsan. Emen be seigarren oilloaren zantzurik ezean, begitarte salataria neugan untzatu ondoren, garrasi bizietan, etxean sartu zan.

—Lina, Lina! —oiu egin eban—, Txakur denganiño orrek gure oillotxu gorria jan egin dausku. Ba-niñoan lengo egunean, gure oillaskotxu gaisoa berak arrapatu izan euskula!

Neskazar ozpintsuak olan ziarduan bitartean, noizbait oillo gorriak arrautzea bota eban, eta, oi lez mokoaz kili-kili asi yatan. Ni, baiña, ez nengoan atarako, ta arrautzea iruntsirik, txokotik etxeosteko erdiraiño uxatu neban. Une artantxe andrazko biak agertu ziran, eta, oillo gorria ikustean, Oña Nitxu tartailoka asi zan:

—Baiña, baiña zelan izan daiteke ori? Len ez egoan emen, ba...

—Begira, Oña Nitxu —esan eutsan Lina'k—: gure begiak gero ta makalago.

—Ziñez diñotsut, Lina, len ez egoan emen.

—Len ez eta orain bai? Ziur-ziur, Oña Florentzi'ren oillarra ikustearren, egaz yoan yaku, ta bere On Juan ikusi ondoren, emen dogu barriz.

—Ez dakit, ba...

Azkenez emakume biak etxean sartu ziran, eta larri-aldia igarorik, arrautzearen egosketa egiteko, etxeostetik ibillalditxu bat egin neban.

Nire bizikerea, baiña, ez zan beti bardiña. Astean bein guxtienez, au da, jaiegunetan, On Motxu ta biok egurastera urten oi genduan. Erabagi izan eban nire ugazabak, bere amar arroari aurre egiteko, biderik egokiena ibiltea zala; ta ainbat obe beragaz joan ba'neinte, olan bien arteko alkar-aditzea, eizaren onerako sendotuko litzake-ta.

Arazo oni eskerrak, astean bein gutxienez nire egunoroko asperraldia astindu, ta kanpoko zabaldiran ordu biko zoriona txatatzen neban. Ereti areitarako, On Motxu kirolari jatorrari dagokionez jazten zan. Oiñetako ta polain diztiratsuak, praka zabal orlegia, botoiez josiriko jake gerriduna, ta buruan mendi-kapela dotoreaz jazten zanean, benetako itxura zauskagarria erakusten eban. Gero, burdiñazko muturra eban makillea artu ta kalera urtetan gintzazan.

Gure urteera ikusgarria izaten zan. Olan jantziriko On Motxu'ren amar arroak eta biok, kaleetan zear gudarien ibillera ariñaz zabaldirantz giñoazala, ikusten ginduezan guztiakan zarrastada itzela egiten genduan, eta zerbait garrantzitsua egin bear dauan bati dagokionez, egiten eutsoezan begirunezko agurrai, On Motxu'k itxura urrutiaz erantzun oi eutsen. Olan ba, ta erritarren ederrespena barrutik ausnartuz, Santxo Panza zirudian On Kijotea, Ta On Kijote baizen argala zan zuen Santxo Panza au, erritik urtetan gintzazan.

Erriko etxeak atzean geratzen ziranean eta iñok ikusten ez

ginduzala, On Motxu'ren ibillera burrukalaria eten egiten zan, eta sakel-zapiño bat azurpegiko izerdia txukatuz,

—Tximist —esaten eustan—, Kirolaren lenego ekitaldia amaitu dok. Orain gauazan bigarrenari, benetako eiza-iñarkunari. Ea, ba, egaztiak jaso eidazak!

An ez zan ormatxoriak baiño beste egaztirik, eta areitariko baten bat ikusten nebanean, aregana oldartzen nintzan, eta txoria egadea jasoten ebanean, On Motxu'k guzurrezko zizpa bat soiñean tinkatu ta, abots durundutsuaz, deadar egiten eban:

—Pum! pum!, beste bat gure lapikorako.

Eta ordu bete batez olan giarduan, On Motxu patxada osoan ibilli ebillela. Iñarkuna amaiturik, astiro-astiro errirantz biurtzen gintzazan. Erritik ur samar gengoazala,

—Tximist —ugazabak iñostan—, orain irugarren ekitaldia!

Orduan ibillera txairoaz, barriro kaleetan zear itxura guda-koiaz, guztiek ikusi egien zelango jasekoa zan euren barataria. Etxera eldurik, On Motxu'k ondo irabaziriko txirria artu oi eban, eta nik zurubipean, une batzuk emoten nebazan bera agertu arte. Izan be, iraduz beterik itxaroten neban, egun aretan jatokira sartzen izten nindualako. On Motxu'ren ondoan egoten nintzan: berak jan eta jan, nik begira ta begira. Alan eta guzti be zeozer bayatordan eta beste egunetan emoten eustenaren ondoan asebetea zan. Bazkaria amaitu ondoren, etxeostera biurtu bear izaten neban, barriro oillo gorriak arrautzea noiz egingo ebanaren begira.

Olango ekitaldi batzuk egin eta gero, On Motxu sorbaldan zizpea ta sakelean latontzi uts bat eroaten asi zan. Saio barri areitan txoriai ez geutsen jaramonik egiten. Arri andi baten gainean latontzia jarten eban, eta, zeozer urrunduta, tiroka asten yakon. Nire ugazabaren ezkeltasuna bide zala-edo, zartada guztiak latontzi-ingurutik joaten ziran. Bein edo bein, berunezkoren batek latontzian oztopo egiten ba'eban, axe bai On Motxu'ren poztasuna!

—Begiraik Tximist! —esan oi eustan—, zelan zulotu yoadan. Ai, epertxu bat izan ba'litxok...!

Areitariko iñarkun baten, eziñezkoa zirudiana jazo zan. On

Motxu'ren danbadak, latontziaren erdi-erdian jo ta onek egurats-ean zear egaz egin eban.

Atsegiñezko oi u bat bota eban, eta, atzetik nerraikiola, arrapalada baten latontzirantz oldartu zan. Bere ondora eldu nintzaneke, garaillearen itxuraz esku bat az goian eusten eutsan, bein eta barriz deadarka:

—Ondatu, ondatu egin yoat!

Baiña benetan ondatu izan yakona, praka orlegia zan. Antza, latontzi artzerakoan, bere gorputzari egokion baiño ariñago makurturik, atzekaldean prakea ta barrukoa urratu egin izan yakozan.

Asikerako goraldian, On Motxu ez zan oartu, baiña etxerako bidean eguerdiko ozkirriak, antza, atzekalde zabalean kili-kili egin eutsan, eta goralditik bere senera etorrita, ondapena egiztatu aal izan eban.

—Arraioa, Tximist —esan eustan—, au ez dok errian sartzeko itxurea. Olan ikusten ba'nauek, nire lepotik amaika barre egingo yoek. Bideren bat idoro bear yoagu...

Andik laster, nire ugazabak urtenbide ezin ohea topau eban. Kapela menditarra atzean jarri, ta era onetan bere garrantziari egokion duintasuna iraindu barik, etxera eldu gintzazan.

On Motxu'k bere pisua asteoro zaintzen eban, eta azkenez, bein baten bere amar arroai libratxu bat kendu izan eutsela oartu zan. Pozez gaiñezka, eiza-jantzia agintzeko garaia eldu izan yakola erabagi eban, eta erriko jantzigille onenari dei egin eutsan.

Arratsalde bateko illuntzean etxeostean iñoizkorik asper-tuen nentzala, Lina neure billa etorri zan. Garrantzi andiko arazoa izan bear zan, ni etxean sarrerazoteko. Izan be, nire susmoak bete egin ziran. Etxeko aretoan argi guztiak izioturik egozan, eta erdian On Motxu'k eiza-jantzi barria erabillen. Izan be, jantzia maisu-lana zan, eta gelan egozan guztiek, ots, Oña Nitxu'k, Lina'k, jantzigilleak eta argazkilari batek, ago-zabalik begiratzen eutsoen. Egia esateko, ez zan gutxiagorako, ta aretoan sartu nintzanean, arrigarritasunezko zaunka bat ozta-ozta menderatu aal izan neban. Oin bat aurreratuta, kartutxugaletik aitzotzar bat dilingan, eskuak zizparen zuloen gaiñean ipiñita, buruan luma urdin batek apainduriko eiza-kapela, ta begi ezkelai tximistak eriezala, ba-

zirudian erensugearen aurka abiatzeko zorian zan antxiñako zaldun azkarra. Isillune baten ondoren, Lina, azkenez, auxe esaten ausartu zan:

—On Jerolimo, zetarako da aitzotzar ori?

—Ai Lina, Lina! —erantzun eutsan errukitsu ugazabak—. Zizpaz zaurituriko basurderen batek erasoko ba'leust, orduan azkenbidetzat aiztoa erabiliko neuke.

—Olakorik! Eta kapelako luma urdiña?

—Jaungoikoarren, Lina, zelango iñuzentekeriak itauntzen dozuzan! Gudari ta eiztariak kamuflatzeko edo itxurea ezkutatzeko, amaika asmakizun darabille. Eizarako onena zein ete-dan eritxirik asko dago, baiña nik onenatarikotzat lumea daukat.

Nik ezin neban ulertzen gure On Motxu zelan kamuflatu edo ezkutatu zeitekean lumatxu baten atzean; baiña, gaurko aurrerapenak dirala-ta, ez dakigu noraiño joango garan... An egozan guztiek On Motxu'ren adimen-zorroztasuna goratu eben, eta azkenez, ago batez argazki batzuk egiteko garaia zala, erabagi zan.

On Motxu, mendi batzuk eta erreka baten ur biziak itxurazten ebazan margozki baten aurrean jarri zan, eta bere ondoan jarrerazo ninduen. Orduan, erriko argazkilaria lanean asi zan, guztitariko ikuspenak egiten euskuzala. Ain zuzen be, On Motxu'ren itxura kementsuak ondo merezi ebazan guztitariko argazkiak.

Gero, jantzigille ta argazkilaria joanda, On Motxu eiza-jantzi ta guzti apaltzen asi zan, eta ni oi ez lango saritzat gau aretan bere ondoan geratu nintzan, eta, egia esateko, iñoizkorik ondoen apaldu neban. Aparia amaituta, etxeostera atara ninduean, auxe esan eustan:

—Gertu adi, Tximist, laster asiko gaituk benetako eizan-eta. Askok barre egin yauskuek gure saioetara giñoazakala, baiña laster ikusiko yoek, iñuzenteok, nortzuk gaitukan...

Nik, baiña, jasandako gosegaitik, ez neban uste eizarako egoera onenean nintzanik, eta On Motxu'ri buruz ba-nebazan nire zalantzak; baiña eiza-ekintzetan ikaspen gutxiakoa nintzan ezker, nire eritxia ez zan aintzakotzat artzeko.

Noizbait benetako eguna eldu zan. Larunbateko arratsalde baten, On Motxu ta biok berebillez erri txiki batera eldu gintzazan, eta apal-ostean, nire ugazabaren gelako atean lo egin neban.

Urrengo egunean goiz jagi ta gosari ariña arturik, gure bospasei laguneko taldea eguzkia jagi zaneko sakabanatu zan.

Asieran ez neban egazti askorik ikusi; baiña erritik ordu beteko bidea egiñik, eperrak agertzen asi ziran, eta barruko jasari jarraituz, nire ugazabak il egiezan, jasoteari emon neutsan, baiña... latontzi bati joten ez dakianak, egaz egiten dauanari zelan emon? Goiz aretan nire susmorik illunenak bete ziran, eta eper bakotxari zizparen danbada bi botaten ba-eutsazan be, dana alpe-rrik. Betokerra-edo izanik, ez dakit begi bataz zizpea zuzendu ta besteaz egaztia artu; dana-dala, ez eutsen lumatxurik be kendu.

Uts egiten eban bakotxean, nekez menperatu aal izaten neban bere atzekalde lodian usigi egiteko gurari bizia. Eguzkia gero ta beroago etorren ezkerro, On Motxu izerditan eta ats-andika asin zan. Neu be jasandako goseteagaitik, oso makal aurkitzen nintzan. Azkenez, On Motxu, mukur baten gaiñean jesarrita, surzapiñoaz aurpegiari erion izerdia txukatzen asi zan, makaltasun utsaz bere ondoan etzaten nintzala.

Alako baten, inguruko eiztariek jasotako eper bat, gugandik ur samar egoan sastraka baten ertzean kokatu zan. Ugazabak eta biok, batera ikusi genduan, eta azkona baizen arin eraso neutsan. Eperra egaz egiten ikusi ebanean, On Motxu'k zizpea oratu ta edo-zelan, sorbaldan tinkatu barik, danba egin eutsan. Orduan, gauza arrigarria jazo zan... Bete-beteen artuta, eperra sastrakara jausi zan, eta lurrera barik, aida baten oldartu nintzakion. Laster, illik topau neban. Pozaren pozez oiuka, aldatz-gora doan treña lez arnaska, On Motxu yatordan. Eperra ikusi nebanean, gosearen gosez begiak laiñotu egin yatazan, eta zelango zatarkeri itsusia ni lango txakur batentzat izango litzaken konturatu baiño ken, luma ta guzti eperra jaten asi nintzan. Atzetik, pozez ler egiteko zorian, On Motxu urreratzen yatan.

—Aupa, Tximist, geurea dok! Bai, epertxu eder ori dise kau ta gero, etxeko aretoan adartxu baten gaiñean jarriko yoat... Baiña zer demoniño...?

Eperra arin jaten aalegindu ba-nintzan be, On Motxu ondoratu yatanean, ez neban osoa irusteko astirik izan, eta eperraren erpeak nire agotik dilindan ikusten ziran. On Motxu'k ezin egi-


kean siñistu ikusten ebana, baiña azkenez bere asarre biziak ler egin eban.

—Zatar alako ori, denganiño saskel ori! —esan eustan orruka—. Ire alde ainbeste egin ondoren, ori dok niganako yokan esker-ron eta begirunea, lotsabako orrek...!

Eta, bere legezko asarrea jabetu eziñik, On Motxu'k zizpea artu ta alako ukaldi itzela bota eustan. Nik, baiña, igarri neutsan, eta, garaiz alde egiñik, zizpea lurrean jo ta erditik ausi zan. Orduan, On Motxu'ren deadar sumiñek jarraiturik, igesari emon neutsan. Gero, lats batera eldu nintzan, eta miikada batzuk edan ondoren, eperraren egosketa egin bitartean, gogarte sakon bati emon neutsan.

Orduko, On Motxu'ren deadarrak ez ziran entzuten. Laster erabagi neban, gosez ilteko ez zala ugazabaren bearrik, eta askozaz obe izango litzakidala etxeoste goibel baten baiño, neure esku bizi izatea. Onezaz gaiñera, On Motxu'k ez ninduan maite. Berarentzat ez nintzan maite bear dan abere zintzoa, eizalaguna, ez; beti begiratu izan ninduan gauza bat lez, bere eiza-naikeria osotzen eban apainketea.

Gau aretan, izarrek urrumaturiko, lats-ondoko orbelgaiñean lo egin neban. Goizaldeko argiak iratzarri ninduanean, dei ezkutu batek erakarrita, iparrerantz, itsalderantz, abiatu nintzan.



Ezin neintekean, baiña, arin joan, janaria idoro bear neban-eta. Orraitiño, etenbage itsasalderantz niñoan. Lenengo egun aretan eiztariren batek zaurituriko eper lodi bat sastraka baten illik topau neban, eta olan bideari jarraitu aal izan neutsan, baiña ezin negikean itxaron eperrak bidean nire begira egongo litzakezaia. Bizirik irauteko, beraz, bearrezkoa yatan errietatik igarotea.

Olan ba, erririk-erri joaten asi nintzan, janari idoroteari neure kabuz ekiten neutsala. Asieran, bizikaia sastegietan gaez billatzen neban; baiña olan niarduala bein baten, sastegian arratoitzar-talde iguingarria ikusirik, larriak botateko zorian alde egin neban. Arrezkero, bestelako janaria billatzea erabagi neban.

Gogoan oso bizirik marraztuta neukan ijitoen artean jasan-dako bizikerea, ta ikasitakoa nire onerako erabilli neinkela otu yatan, au da, ogi ta oillo-arrapaketeari barriro emotea. Leku areitan baserririk ezean, bide-gurutzetan gure aberrian jarrita dagozan ogientzako kutxak ez ziran ikusten, baiña oilloak erri guztietan ikusten ziran.

Orduan, gau-arrapaketeari itzi ta eguneko argitan oillo-lapurketeari emon neutsan. Edozein lekutan lo egin ondoren, egunsentia asten zanean, astiro-astiro bideari ekiten neutsan; eta, urrutian erritxuren bat agertzen yatanean, urreratu egiten nintzakion, eta iraduz barik aren inguruan ibiltzen asten nintzan. Luzaro baiño len, or-emenka lurtean aztarka oillo-taldetxuren bat ikusten neban, eta ez-oartua lez urreratzen nintzakion. Une egokia etorkidanean, urrenenari eraso, idunetik oratu, ta ariñeketan iges egiten

neban. Gero, arrapakiña erritik urrun iruntsirik, bideari jarraitzen neutsan, eta illuntzean edozein toki erosotan lo egiten neban.

Biziera aske a atsegin yatan, eta zenbat-gura janari lortzen neban ezker, indartsu ta bizkor oartzen nintzan. Izan be, orduko bizikereari jarraitzekotan, otsoen oiturak artuko neukezan. Otsoak... Bein baten barruti menditsu ta bakarti batetik niñola, atzetik zerbaitek erraikidala konturatu nintzan. Asieran ezin negikean nire jarraitzaillea ikusi, baiña txaraka-soil baten tontoretik ikusi nebazan.

Lau otso ziran, eun bat metrotik jarraitzen eustenak. Ez neban iñoiz otsorik ikusi aal izan, baiña Ulojio zanak sarri askotan areitzaz gauza asko esan izan eustan, eta areik ikustean, ikara andi batek larritu ninduan. Trapala-trapala jarraitzen eusten, eta ba-zirudian abazuzi barik yoiiazala, ta onek bildurra geitu eustan. Ulojio'k iñostanez, otsoek arrapagaiari orduak eta orduak trapala nasaiaz jarraitu oi dutsoe, ta azkenean nekearen nekez inguraturiko aberea, il egiten dabe.

Bildurak eraginda, neu be lauñan asi nintzan; baiña Ulojio'k esanikoa gogoraturik, ez nintzan larregi arindu, arein ibilneurriari neurea egokitzen neutsala. Aspaldi aretan naiko bizkor aurkitzen nintzan, janari naro ta zabaldietako bizikera osasuntsuari eskerrak. Olan ba, nire burua alperriko arrapalada bizian ez galtzearren, zuur jokatu neban.

Onezaz gaiñera, ba-nekian nire itxaropen bakarra, ordu asko igaro baiño len erriren bat topatzea zala, osterantzean nireak egingo eban. Augaitik, muiño guztietatik ardura andienaz aurreantantz begiratzen neban, baiña alperrik: basamortu aretan etxezantzurik ez. Eiza isil, izugarri aretako ordu bi igaro ziran, eta nekatzen asten nintzala oaturik, bildurrezko zauskada batek atzitu ninduan. Orduko, tartea berrogei bat metrokoa izango zan; otsoak beraz, gero ta urrago yatordazan.

Aurrera begiratu neban, baiña basa-bazter aretan ez nebazan tontorrak eta tontorrak baiño ikusten.

Beste ordu bete bat igaro zan, eta guztiz nekaturik, bitartea ogei metrora laburtu izan zala egiztatu neban. Otsoen arnas-estua argiro etorkidan, baiña nirea askozaz neketsuagoa zan, indarren mugan aurkitzen nintzala. Andik laster, beste muiño bat aurkeztu

yatan, eta azkenengo indarraldian bizkargunerantz ekin neutsan. Gora eltzean, konturatu nintzan gaiñean yatazala, ta orduan bertan lau otsoek inguratu ninduen...

Orduantxe, baiña, tontortxu-bizkarra igarorik, ara non esi arantzaduna aurkeztu yatan... Andik ez urrun, beste alderdian erritxu bat ikusten zan. Azkenengo indarraldiz esi-gaiñetik oldartu nintzan, baiña ezin izan neban garbiro zearkatu, ta areitariko arantza batek iztarra urratu eustan. Azkenetan nengoan, baiña errirantz ekin neutsan. Muturrutsik geldituriko otsoak ez ziran aurrerago ausartu, ta, aserrez beterik zaunka egiten eustela laster ostendu yatazan. Gau aretan, erriko aldetxe bateko lastoan lo egin neban.

Urrengo egunean, oiko oillo ederrari esker, indarrak barriro artu nebazan, eta beti lez iparrerantz abiatu nintzan. Zabaldiko itxura, baiña, aldatzen asten zan. Aurrean, mendi garai batzuk gaillur edurtsuak erakusten zituen, eta arein mendarte baterantz bideratu nintzan. Ibili nenbillela, zaurituriko iztarra min egiten asi yatan. Urrengo egunean, mendartea zearkaturik, beean nire aurrean urrutirantz zabaltzen zan ibar eder zoragarria begiztatu neban. Ikus-mugan, itsasoaren urdin garbia diztiratzen zan, eta unetxu batez itxaropen bakanaz jabeturik, begi-aurreko edertasunari begira ta begira geratu nintzan. Neguko azkena zan, eta egun aretako eguraldi gardenean, ibarreko erritxu sakabanatuak eta an-emen lurreko orlegi barrian kokaturiko baserri politak erakarri ninduen. Eta olan, aran ederrari begiratzen nengoala, zeozer eza-gun antzekoa ba-ebala iruditu yatan.

Gau aretan orbel-meta gozoaren gaiñean lo egin ondoren, egunsentia egin zanean, ibarrean beera asi nintzan, baiña zaurituriko izatarrak min andia egiten eustan, eta azkenez, iru-oinka jarraitu bear izan neban. Ibilkera au oso nekagarria zan, eta ete-naldi ugari egiten beartua izan nintzan. Gaua etorri zanean, guztiz makal, lo egiteko etzan nintzan; baiña miñak eta sukar gaizto batek menperaturik, etenbako ames txar batek esetsi ninduan.

Urrengo egunean, sukarrak garaiturik eta jangar, mendian beera abiatu nintzan. Zelan eta noiz gogoratzen ez nazala, ibai abeslari batek erakarrita, illuntzerako lertxun ederrez apainduriko landa zoragarria aurkeztu yatan. Ibaiaren ur garden zabalak

legarren artean suzmurka yoiazan, eta orduan lertxun garai bat aurkeztu yatan... Izango ete...? Bai, axe berbera zan Luzerotxu'ren obia gordeten eban lertxun tantaia. Pas ibaiaren ertzean nengoan, eta izen beraren aranean zear ibilli izan nintzan.

Luzerotxu'ren obiraiño urreratu nintzan, eta zugatzaren ondoan etzanda jarri nintzan. Guztiz makal, indarge, aurkitzen nintzan, eta iztarreko zauri zitalak sukar andia emoten eustan. Ba-ziran iru bat egun janaririk artzen ez nebanetik, gosea joan egin izan yatan-eta. Il-urren nengoan, baiña bizi izateak ez ninduan arduratzen. Nire bizitza orain bakartasun utsa zan. Ez neban zeri maite, zeregan itxaropena jarri, ez zan iñor nitzaz arduratzen. Ba-nintzan aldearrai yoian bizitzaren izpitxu aztuta, ostentzeko zorian ebillen ezerezkeria... Betiko loan murgiltzeko, ezin negikean idoro toki egokiagorik, Luzerotxu maitearen illobia baiño, ta olan lertxun tantaipen, eriotz aringarriaren begira, bedar-gaiñean amildu nintzan.

Illuntasun betea egin zan. Itsas-aize bigun batek eraginda, zeru odeitsupean, lertxunen osto geldi-eziñek isil-isillik ur suzmurlarien gaiñean dantzan egiten eben, eta noizbait oartzeke, loak artu ninduan...

Alako baten ikusi neban. Luzerotxu berbera zan lertxunaren enbor-ondoan jesarrita. Esku samur bigunez burua laztandu eustan, eta begi eder andiek maitekiro ikustatzen ninduen.

—Gal, Galtxu maitea —ziraustan—. Gauean zear entzun yoat ire dei larria, ta emen nok; zer dala-ta orren naigabeturik izateko?

—Begira, Luzerotxu, ez dot bizi gura. Nik benetan maite nebazanok, zu ta Ulojio, joan zaree. Zeu izarretan zear betiko dantza zoriontsu bati emoteko, ta Ulojio, galduriko maitasunaren billa. Eroan nagizu zurekin Luzerotxu. Emen lurrean dantzan egiten zenduan, beti laguntzen neutsun. Gomutatzen zara, Luzerotxu? Itzi egidazu izarren arteko zure dantzari, len lez lagundu dagiodan, eta poz-emoitzak diran izarren diztirak, zidarrezko azpiltxu baten zeuretzat batuko dodaz. Eroan nagizu Luzerotxu...!

—Ezin yoat baiña, Gal. Ezin aiteke nigaz etorri. I langoak izartegian ez daitekez etorri-ta...

—Baiña, Luzerotxu, besterik ezean, itzi nagizu emen zure

ondoan, lertxunpean eta ibaiaren betiko suzmurrek inguraturik, geratu naiten. Noizean bein ni ikusten oraintxe lez izarretatik jatsiko zara, ta joandako aldi zoriontsuak gogora ekarriko doguz...

—Ori eziñezkoa dok.

—Emen, nire oiñaze ta etsipenaz itziko ete-nozu, Luzerotxu...?

—Beti eugaz izango nok, Galtxu. Gomutatzen ete-aiz ostu induenean gau aretan, zelan nire deia entzunik etorri intzakidan? Len lez ez aut itziko orain. Entzuik au ondo, Galtxu: biar bertan biurtu adi aberrira...

—Aberrira nondik joaten da?

—Ire aberria eguzkia sortzen dan norabidean yok. Goizalde guztietan arek erakutsiko yauk bidea. Ez bildurrik izan, Galtxu. Aberrian nonbait itxaropen eta zoriona ire begira yozak. Joan adi lenbailen. Atsekabe ta ezbearrak bidean aurkituko yozak; baiña azkenean gau-illuntasuna amaiturik, ire zain yagokan norbaitek artuko aut, eta orduan jasaniko guztia atzean geratuko dok. Agur, Galtxu maite ori, ez larritu, eugaz beti izango nok-eta...

Eta azkenengoz besarkatzen ninduala, eguratsean zear izarrik-izar dantzan egiten ebala urrundu yatan. Luzerotxu'ren irribarre gozoa ta begi ederren maitasunezko jarioa, gaindegietan ezabatu zan... Eta gauza arrigarria benetan: lo atsedengarri batek artu ninduan.

Iratzarri nintzanean, eguzkiaren mosu gorriak ibaiaren arantzagoko mendien atzetik, argi gorrimiñaz aberrirantz dei egiten eustan, eta Luzerotxu'ren azken-naia betetzeko, jagi ta... Orduantxe konturatu nintzan iztarreko zauri edegiari zikinkeria eriola, ta, sukarra joanda, oiko indarra irabazi izan nebala.

Adorez beterik aberrirantz bideratu nintzan. Aal baizen laster oiko oilloa arrapatu neban, eta iraduz barik sortaldeko norabideari ekin neutsan.

Egunak eta asteak igaro ziran, eta noizbait Enkarterri'tik Bizkaia'n sartu nintzan. Barruti ederra zan, eta antxe geratuko nintzakean; baiña indar bakan batek aurrera eragiten ninduan. Bein, ibai bateko bi ertzetan sakabanaturik, mendi batetik uri andi-andia ikusi neban. Zoriona nire begira izango ete uri andi aretan? Ez nekian zer egin, baiña uri ari erion ke-mordoak aurre-

ra eragin eustan, eta olan astiro-astiro, egun batzuk geroago, Bizkai'ko biotzean aurkitu nintzan. Neroan indar ezkutuak emen itzi ninduan, eta norabidea galdurik, or-emenka alderrai asi nintzan.

Olan nenbillela egun baten, baserritar batzui euskeraz egiten entzun neutsen, eta zauskada batek eraginda, arein jarraian asirik, noizbait erri andi samar batera eldu nintzan. Aspaldi zan erririk ikusten ez nebala, ta, ikusgura indartsu batek bultzatuta, ikerraldi bat egitea ebatzi neban.



Olan ba, erri anditsu aretatik osteratxua egiten erabagirik, kalerik-kale asi nintzan. Enparantza ta kale nagusiak aztertu ondoren, alboetako kale estuen ikertzeari emon neutsan, erriko biotzetik gero ta urrunago niñola. Alako baten, kaletxu ziztrifetik nenbillela, dendatxu bateko ate-ondoan jesarrita, gizon bat ikusi neban. Bere aurretik igarotean, adiskidetsu esan eustan:

—Kaixo, lagun, apari-billa, ezta?

Itzok entzutean, gelditu ta gizonari adi-adi begiratu neutsan. Itxura ikusgarrikoa zan benetan. Gutxi gora-beera berrogei urteko gizona zan. Bizar arrezkaz estalduriko aurpegi atsegin argalean, betaurrekoen atzetik, begi txiki diztiratsuek lagunkiro begiratzen eusten. Betaurrekoai adartxu bat uts egiten yaken, ausita-edo, ta sur luze azurtsuaren gaiñean bear dan lez kokatu zeitezan, adartxua ordezteko ari-zati bat belarri-atzetik biurturiko loro-zati bati josita egoan. Ezpan irribarretsuen artetik, agin andi bellegizkak ikusten yakozan. Goibe erditsukoa zan, eta andiagoa emongo leukean, ain bizkarroker izan ez ba'litz.

Soiñez arrigarri, jantziz areagoa zan. Zuloz beteriko txapel zaarpean, tximak atzekaldean jakeagaz bat egiten ziran, eta alboetatik belarrien erdiraiño etorkiozan. Amaika uger beteriko txartes luzea, belaunetaraiño jausten yakon, eta bizar lodia bular-erdiraiño luzatzen zan. Azpikaldean, praka zaar altzitua oiñetako anditzarretatik arrabetera amaitzen zan, bitartean galtzerdi ezbarriñak ikusten yakozala, bata urdiña bestea orlegia. Oiñetako bati azpikoa askaturik, kordel bat az bere tokian atxikia egoan.

Ezin negikean, baiña, nire begiak oiñetako anditzar areitatik kendu, zerbait ez-oitua lez emoten eben-eta. Azkenez, oiñetakoak esku-aldatuak ebazala konturatu nintzan. Geroago jakingo neban aldaketaren zergaitia...

Alako baten, auxe esan eustan:

—Zu ta biok alkartu geintekoz. Zatoz neugaz etxera, ta arazoa garbituko dogu.

Au esanik, dendea zulsareaz itxi, ta onen ondoko atadi bateko zurubian gora, denda-gaiñean egoan etxean sartu gintzazan. Bizi-leku arek ez zituan gela bi baiño: lo-gelea zan aurrekoa, ta atzekaldetik edatzen zan eskaratza. Sartzean, txartesa kendu ta kako batetik arduratsu eskegi eban, gaiñean txapela jarriaz. Beste kako batetik jake zaar koipetsua artu ta gaiñean jarririk, aulki besodun baten jesarri zan. Jarraian, kale-oiñetakoak kendu ta etxeakoak sartu ondoren,

—Begira, Lagun —esan eustan—: zu ta biok zertu gaitzekoz. Nik etxe onetan artuko zaitut, eta orren ordaiñez oiñak berotuko daustazuz. Bai, Txanton'í odola gero ta otzago dabilkio, ta, berogarririk bear izatekotan, zein zu baiño bero-emoille obeagorik?

Olan berba egiten eustala, arrituta begiratzen neutsan. Lenengoz, ikaren orde zuka esaten eusten. Txanton'ek nire arri-tasuna igarririk, auxe esan eustan:

—Ba-dakit zuei ika egiten dutsuela, baiña zuka baiño merkeagoa ez dan ezkerro, alperriko erabilketea da. Beraz, eta gaiñera zurekiko neure begirunea adierazotearren, zuka erabiliko zaitut...

Ona elduta, unetxu batez ixildu egin zan, eten egiñiko aria idoro naiez, urrean.

—Zetan nenbiltzun? —jarraitu eban oldozkor—. A, bai! Zu nire berogarria izatearen truk, etxe onetako estalpea izango dozu. Jatekoa, baiña, zeure kontura izango da, Txanton gaisoari arazoak gero ta larriago yoakoz-eta...

Unetxu batez isillik iraun eban, antzi sakonak urteten yakozala. Gero, eskaratzeko ormatik igaroten zan kebidea atzamarrak erakusten eustala, ariari ekin eutsan:

—Begira, Lagun, kebide ori etxe onen atzetik dagoan Kaxinto'ren jatetxekoa dozu, ta ortxe emongo dautsue, urrean, janari-

ondakiñak. Olan ba, zeure aukeran bizi izango zara. Orain zatoz ona, ta jarri zaitez neure oiñen gaiñean.

Urreratu nintzakion, eta bere oin-gaiñean etzan nintzan. Alako baten, isillune luze samarraren ondoren, oiuka esan eban:

—Botoi madarikatuok...! Begira, begira zelan josten diran orain botoiak...!

Jakeko botoi bat ari bakarretik dingilizka egoan. Txanton jagi, ta, arasa baten azterturik, loro-zatia ekarrela jesarri zan barriro.

—Orain, ba, ez zara galduko, Txanton'ek josiriko botoiak betiko dira-ta...

Au esanik, loro-zatiaz botoia jakean josi eban, eta jarraian mutur biak gorrika baten bidez biurrikaturik, agopeka abesten asi zan:

Txanton'ek josiriko botoiak
ez dabe aririk ezagutzen,
baiña arek jositakoiak
ez dira iñoiz makaltzen,
zerura doi-azan otoiak
aiñako ziur gertatzen.

Gero, bere buruagaz poz-pozik, eskuak alkar igurtzi ondoren, jagi ta eskaratzean sartu zan, auxe iñoala:

—Ikusi dagigun zer dagoan gaur apaltzeko.

Au esanik, Kaxinto'renetik igaroten zan kebidera abiatu, ta emen sartuta egoan zipotz bat atara eban.

Arrituta nengoan, iñondik be ez neban janariren zantzurik ikusten-eta. Laster, baiña, ulertu neban. Zabaldutako zulotik, txipiroi-saltzaren usain gozo-gozoa sukaldean barreiatu zan.

—Senteilla! —esan eban Txanton'ek begiak dizdir— . Apaltzeko txipiroi gozo autatuak doguz. Aspaldi onetan izandako porrusaldakaz ba-nengoan zeozer aspertuta. Aupa gure Kaxinto!

Arasatik Idiazabal'go gatzai-zati ta ogi pizka bat atararik, mai koloka baten ondoan jesarri, xerra bana ebagi, ta astiro-astiro noizean bein arnas-artze sakonak egiten ebazala, jaten asi zan.

Nik zur eta lur eginde begiratzen neutsan, gatzaiari azala

beti kentzen yakola ikusi dot-eta. Txanton'ek nire arritasuna igarri-edo egin eban, eta auxe esan eustan:

—Begira, Lagun: etxe onetan ez da azalik botaten. Jangai guztietan bitamiñik osasungarrienak azalean egoten dira, ta buru-bagekeria litzake botatea, batez be kontuan arturik, gauzen truk kentzen dauskuezan diru itzelak.

Txipiroyi erako gaztai ta ogia amaitu ebazanean, maian ikusten ziran apur urriak ardura andienaz batu ta agoratu ebazan. Au egiñik, jagi ta zipotza zuloan sartu ondoren, barriro logelako aulki besodunean jesarri zan, ni len lez oiñen gaiñean etzenerazoz.

Gizaki bakartiak oi daben lez, Txanton'ek bakarrikzeta etenbakoari emoten eutsan.

—Gaurko ogia gogortxua izan da, lengo astekoa dalako, baiña ogia gogorra izan bear dalakoan nago. Alde batetik gutxiago jaten da, ta bestetik agiñetarako jardun ezin osasungarriagoa izanaz gaiñera, aginlariakana ez da joan bear. Oneik kentzen dabazan diruak gero...!

Bitartean illundu egin zan, baiña Txanton'ek ez eban argirik iziotzen. Sapailloan zear, kaleko argi-ontzi baten dizdir urria sartzen zan. Aren ateetako leiar geienek uts egiten eben ezker, plastiku-paperaz estalduta egozan, eta oraindiño itsasitako leirrak garbi-garbiak ikusten ziran, aalik eta argi geien sartu zeitean.

Txanton'ek bere bakar-izketeari jarraitu eutsan:

—Emen ez da tximistargirik, ez krisaillurik erabilten. Lenengo oso garestia dalako, ta bigarrena arriskuz beterikoa. Nik neuk ba-daukadaz Iberdueru'ko akziñotxu batzuk, eta benetan egokia litzakit jarraibidea emotea, baiña Jaungoikoak duan bialtzen daustan kaleko argiari, destaiña egitea izango litzake, ta nik olako pekaturik ez dot egin gura...

Olan, gai batetik bestera etenbage aldatuz, aldia igaro zan, eta azkenez, Txanton oera joateko jagi zan. Burdiñazko oe ederra eban, baiña torlojuak kili-kolo izanik, edozein eragiñez kirrika itzelak egiten ebazan, amiltzeko zorian bai'litzan-edo. Txanton'ek, oe aiñako aulki kirrikatsuan jantzia ipiñi eban, eta oeko burusipean sartu zan. Urrengo baten esango leuskidanez, egunen bidean

izarak urratzen ziran, eta jake-botoien antzera loro-konpontzerik ezean, arein erabilteari uko egin izan eutsan.

Egokitu zanean, oe-gaiñera igon neintela agindu eustan, eta oiñak nire soinean jarririk, Gure Aita bat esan eban, eta andik laster bizar lodia burusi-gaiñean ezarrita, zurrungaka asi zan. Kirrikak lagunduriko oatze bigun aretan, lo gozo batek laster artu ninduan.

Urrengo goizean, Txanton jagi ta sapailora urten zan. Eguraldia ondo aztertu ondoren, gelan sartu ta auxe esan eustan:

—Egun otza da gaur. Izan be, izparringiko eguraldia dogu.

Asikeran ez neutsan ulertu zer esan gura eban, baiña nire zalantza laster argitu zan. Txoko batetik izparringi-orri batzuk artu ta arkondarapean sartu ebazan, niri ziraustala:

—Au da benetako berogarria. Jendeak artulezko gorantx garestiak darabillez, baiña ez daki paperak dauan otz-aurkako bereizitasuna, artulezko gaiarenak baiño askozaz andiagoo dala, ta gaiñera, gura izatekotan, egunero barriztu dagikegu.

Gero, aulki kolokan jesarri ta oiñetakoak sartzen asi zan. Egokiezan oiñetan sartuko ebazala uste neban nik, baiña oker nengoan; aurregunean lez esku-aldatu ebazan.

—Bai, Lagun —esan eustan, arduratsu sartzen ebazala—; oiñetakuok lortu nebazanean, andiegiak zirala oartu nintzan, baiña merke-merkeak jadetsi izan neban ezker, beste barik baztertzea tamal andia zan, eta izparringien paperari eskerrak egokitu yatazan. Geroago konturatu nintzan esku-aldatu izatekotan, ez nebala izparringirik bear, eta olan erabilten asi nintzan. Asikeran ba-nebazan nire gora-beerak, baiña ekin eta ekin, artaratu egin nintzan.

Jantziketea amaitu ebanean, arasatik sagar bat arturik auxe esan eustan:

—Orain, Lagun, goazen lanera. Illuntzerarte aske zara, baiña nire eritxiz, Kaxinto'renetik osteratxu bat egitea ondo etorriko litzakizu, bazkalorduan batez be.

Zurubian beera asi gintzazanean, zurezko eskudelaren orde, soka lodia egoala oartu nintzan. Txanton'ek esku batzok sokeari eutsi, ta ardura andienaz jasten asi zan. Mail baldarrak ezbardiñak ziran, eta laster igarri neban zegaitia. Maillaren bate-

ko ola austen zanean, Gure Txanton'ek aren gaiñean edozein olzati untzez josi ta kito. Olan ba, mailla batzuk oso garaiak ziran, eta beste batzuk, ostera, txikiegiak. Zurubi aretatik ibiltea, ez-ustez beteriko ekintza zan. Jatsikerea amaitzeko zala, Txanton'en oinpean karraska itzelaz mailla bat ausi zan.

—Arraioa! —bota eban Txanton'ek—. Ez da aspaldi, ba, mailoni ol bat josi neutsala. Gaurregun edozein gauzari ol esaten yako. Ea gaberako ol zatiren bat topatzen dodan...

Txanton'ek dendea edegiten eban bitartean, erritik osteratxu bat egin neban, baiña andik laster biurtu nintzan. Aulki baten jesarrita, Txanton'ek metalezko txatar-pillo batetik sailketea egiten eban. Burdiñea alde batera, ta metalak beste batera. Dendea, goiko bizitza lako bardiña zan.

Txanton'ek guztitariko ondakiñak erosi oi zituan. Dendako alde baten aparra-mantarrak ondo garbirik eta sailkatuak egozan. Ondoan, burdiñazko oe-zatiak. Beste ondoko txoko baten, paper zaarrak eta piltzarkiak; aurreko alderantz, ondo sailkaturiko metal eta burdiñazko metak.

Eguerdia baiño len, paper-pillo zaarra ekarrela mutiko bi sartu ziran. Txanton'ek pilloa aztakin baten jarri eban, eta aren pisuaren giñoan txin batzuk emon eutsezan. Mutiltxuak pozaren pozez ikotika urten ziran. Andik laster ordu batak jo ebenean, txartartegia itxi ta biok kaleetan zear erriko enparantzara abiatu gintzazan. Emen, diru-etxe apain baten aurrean, Txanton gelditu ta leio baten agertzen ziran Boltsategiko gora-beerak aztertzen asi zan.

—Arraioa! —bota eban bizarrari eutsiz— Iberdueruak oso ondo dabiz, baiña Teleponikak beerakada itzela egin dabe. Olan jarraitzekotan, oneitariko batzuk erosiko doguz. Ikusi dagigun orain Labeak... emen dagoz... Senteilla...! Au da benetako ondapena, Txanton... Nik neuk erosiriko erdian dagoz... Kaxinto'k erosteko ta erosteko esan eustan, eta orra or... Errua neurea da, sukaldari orren errekomendaziño ganorabakoai jaramon egiteagaitik. Labe Andiak baiño, Labe Txikiak esan bear izango geuskioe... Ai Txanton!, egon zaitez dendan lan eta lan burua jaso barik, eta orra or blindi-blaust!, ille bitako irabaztea ondatuta...

Bizarraren teink egiteari itzi barik, merkaturantz abiatu

zan. Txanton'ia ez yakon egun zoriontsua izan. Zeiko enparantzara eldurik, igalitegirantz bideratu zan, aste osoko sagar-erosketa egin bear eban-eta. Baiña saltune guztietan, lengo astean baiño kiloan laurleko bat geiago eskatzen eutsoen. Noizbait, azkenengo saltunean gelditu zan.

—Joxepa! —saltzailleari esan eutsan— Zenbat kenduko daustazu sagar orrekaitik?

—Oneik, kiloa iru ogerlekotan itziko neuskizuz...

—Iru ogerleko!!! —oiuka erantzun eutsan Txanton'ek, zerurantz begiratzen ebala—. Jauna, Jauna!, zelan ez dozu zure asarrea mundu zital oni bialtzen!!! Zugatzetatik eskuz artu baiño ez, eta iru ogerkelo eder, lodi, Txanton gaisoari kendu...!

Azkenez, gangaillenez egin ondoren, eta berandu samar zalako, urrean, Josepa'k erreal bi beeratu eutsazan.

—Pitxien salneurria ba-da be, oraingo onetan sagarrok eroan egingo dodaz, baiña —gaiñeratu eban Txanton'ek atzamarraz olezko kutxa bat erakutsiz— kutxa orren ol bat emotekotan.

—Tira, ba, emen doatzuz bi —erantzun eutsan Joxepa'k, sagarrak emoten eutsozala—. Baiña, Txanton, zetarako eskatzen daustazuz orren sarritan olak eta olak? Zetan zabiz orrenbeste olaz, etxeko solairua barriztu gura dozu, ala...?

Joxepa'ri jaramon egin barik, Txanton'ek sagarrak eta olbiak artu ebazan, jarraian dendara biurtzen zala. Kaleetan zear giñoazala, jende askok agurtu ta arraiki berba egiten eutsan. Nire ugazaba barriak, antza, errian lagun asko eban.

Azkenez, Txanton dendan sartu zan, eta sagar-jateari emoten eutsala, Kaxinto'renetik osteratxua janari-billa egitea erabagi neban. Jatetxea itxura onekoa zan, eta atean geratu nintzan. Begira ta begira nengoala, erratillu bete ondakin eroiala mosu gorriko gizon lodikotea agertu zan.

—I aiz Txanton'en txakurra, eztok? I baiño len beste iru etorri dozak gaur, baiña bezero asko ta ondakin aren baten.

Zenbat gura jan egin neban. Gero, ibillaldi norabakoari emon neutsan, eta noizbait Txanton'en dendara biurtu nintzan. Orduan bertan, Txanton'ek denda-ixteari emoten eutsan.

—Goazen etxera, Lagun, ea eskillara madarikatu ori konpontzen dogun.

Maillua, untzak eta zerrea esku baten, eta bestean olak eroiazala, etxeko atadian sartu gintzazan, Kaleko argia sartu zeiten, illuntzea zan-eta, atea zabalik itzi eban, eta zerrea erabilliz ola neurriari egokitu, ta beste barik arrakalatuaren gainean ugerutako untzez josten asi zan. Maillua erabillela, agots ijimajatsuz kantatzen eban:

Ai Txanton ugerra
au dok bizimodua
beti konpondua
ire eskillara ederra.
Ol, maillu ta zerra
larri ta estua
lanari lotua
ez ei'da alperra.

Amaitu ebanean, mailla barriaren egoerea bere gorputzaren pisuz egiztatu eban. Ikusirik baiña, askotxu makurtzen zala, aren gainean bigarren ola len lez josi eban, agopean urrengo bertso au urteten yakola:

Mundu gaiso onetan
gauzak beti txarrak,
txatar eta sagarrak
ba-dabiz goietan.
Ol oneik benetan
itxuraz bai ederrak
baiña gero alperrak
ezer ez indarretan.

Bigarren ola josita, mailladian gora joan gintzazan. Etxean sartu baiño ez, arkondarea ta bular-arteko izparringia kendu, ta oi eban lez jantzia aldatu, eskaratzean sartu zan, auxe inostala:

—Ea gaur zer atondu dauskun gure Kaxinto'k.

Ke-bideko zipotza kenduta, txilindron gozoaren usain pizgarria sartu zan.

—Au bai aparti ederra! —deadar egin eban Txanton'ek—. Bil-doski au Kaxinto'ren maisu-lana dogu.

Pozez beterik, eskuak alkar biurrikatu ebazan, eta arasatik Idiazabal'go gaztaia mai-gaiñean jarririk, txilindron erako gaztaia azaleko bitamiñak eta guzti, astiro-astiro mamurtzen asi zan. Jarraian, mai-gaiñean jausiriko apurak agoratu ondoren, len erosi-riko sagar bat jan eban. Izan be, ikusgarria zan jardun onetan. Txanton'en agiñak legarrak birrintzeko gai ziran, eta laster sagarren muskin eta ailla, urdaillerako bidean ostendu ziran.

Gero, besaulkian jesarri, ta oiñen gainean jarten nintzakio-la, oi eban lez bakar-berbeteari emon eutsan.

—Bai, Lagun, alan-bear bati eskerrak, Kaxinto'ren jaki gozogo-zaok ezagutu aal izan dodaz. Bein baten, bizarra kentzearen bearrezko yatan izpilluarentzat untze lodia ke-bideko orman sartzen niarduala, untzea luzeegia zalako-edo, ormea alderik-alde zearkatu, ta orduantxe konturatu nintzan egindako zulotik erreki gozoaren usaiña etorrela. Olan ba, jazoerea nire onerako erabillirik, zuloa anditu, ta zuk dakizun zipotzaz itzi neban. Ordutik ona, Kaxinto'ren bezero zintzoenatariko bat biurtu naz. Gauza on asko ba-daki gure sukaldari onek egiten, baiña txilindron, txipiroiak, xangurroa, lebatz saltzaduna ta makaillua, ago-sabairako goren-go jakiak dira. Era onetan, bizarra kentzeko ipiñi bear neban izpilluari eskerrak, Txanton'enean beste iñon baiño obeto jaten da.

Ona elduta, Txanton'ek betaurrekoak garbitzeko isillune laburra egin eban, eta gero ariari ekin eutsan:

—Bizarra kentzeko izpilluaren untzea... Orain, baiña, ondo ikusi dagikezunez, ez dot orren bearrik. Diru asko kentzen eusten jabo ta labanakaitik, eta jabo barik bizarra kentzen ikasi baneban be, labanak zorrotailleagana eroan bear... Orduan arazori merezi eban ardurea emon neutsan, eta bizarra azten iztea erabagi neban. Illabate batzuk geroago, bizarra luze-luze egin yatan, eta orduan nire poz andirako, munduan zear paparrek bagarik ibilli neintekeala konturatu nintzan, eta gainera, arkondarea ez zan ain sarri garbitu bear. Olan ba, txikikeri batek onura itzela ekarri eustan.

Ona eldurik, Txanton'ek bakar-izketea eten egin eban, agintzar bellegien artetik garau-zati bat kentzearen. Gero, berbeteari jarraitu eutsan:

—Nondik nenbillen...? A bai!, bizarrarena aitatzen neban. Gaiñera, beste alde andia dakar: norberaganako begirunea. Izan be, bizardunari bizarbakoari baiño lotsa geiago erakusten yako. Begira, gure San Jose'k begirune bardiña irabaziko leuke, aurpegia sein batena baizen leunaz itxuratuko ba'litzakioke...? Bizarra, baiña, ez da guztiek erabilli dagikeen gauza edo apaingarria... Ara zer gertatu yakon Errosendo'ri, erri onetako gazte bati. Ezetan nabarmentzen ez zan Errosendo onek, bizarra azten iztea erabagi eban. Andik illabete batzuetara, gure gazteari itxurea ezin esan alako bestelatu izan yakon. Erri onetako apaingarria zan bizar baltz, bigun, kirimilduak, len jaramonik egiten ez eutsoen neskatillai, maitasunezko antziak bota-erazoten eutsezan. Ez zan arritze-koa, beraz, gure Errosendo'k bere bizarra aalik ondoen zaindu egian. Bein baten, drogategian gantzu baten billa sartu izan zala, jaubeak auxe esan ei'eutsan:

—Ño, Errosendo,...! Orixe da bai benetako bizarra, ta ez or baztarretan ikusten diran inerratuak...

—Bai, ba...

—Begira, Errosendo, gauza bat jakin gura izango neuke...

—Esan, ba...

—Oean zagozala, zelan ipinten dozu bizarra, izara-gaiñetik ala azpitik?

—Ain zuzen be, ez naz inoiz konturatu...

—Ori garrantzi andiko gauzea da, Errosendo, ta arazoari dagokion ardurea emon bear izango zeuskio.

Gaur berton bagiratuko dautsat gaiari.

Esan eta egin. Gau aretan oean sartu zanean, Errosendo'k bizarra izara-gaiñetik jarri eban eta "Ez, olan ez da". Orduan barrura sartu, ta "Olan be ez". Errosendo gaisoak bizarrarentzat ez eban jarrera egokirik gau oso artan idoro aal izan, bizarra barruan eta kanpoan etenbage jarten ba'eban be. Gau guztian lo egin eziñik iraun eban. Urrengo goizean, bizartegia zabaldu baiño ez, sartu ta bizargilleari auxe esan ei'eutsan.

—Kendu egidazu au. Ezin dot ulertzen jendeak zelan egin dagiken lo olango bizartzarraz.

Eta olan, gure erriko apaingarria zan Errosendo'ren bizar

ederra, bein betiko garbitu izan zan. Arrezkero, gure erria ez ei'da lengoa.

Txanton'ek barre egin eban, baiña alako baten aurpegiko itxurea goibeldu egin yakon, eta agots erostaritsuz, auxe esan eustan:

—Bene-benetan, Lagun, gaur ez dot barre egiteko eguna, nire diruai atzimur ederra emon dautse-ta...

Gero, oera joateko jagi zan. Jantziak eta arkondarapean eroian izaparringia erantzi, betaurrekoak oe-maitxuan jarri, ta oiñetakoak kendurik, oean sartu zan, auxe inoala:

—Niri, bizarrak ez daust lo egiteko buruausterik emoten, asikeratik izarapean sartzen oitu nintzalako, kanpotik ipintzekotan izarea altzitu egiten da-ta...

Lotan asi baiño len, betiko ekanduari jarraituz, Gure Aita esan eban.

—Gure Aita zeruetan zarana (ea zure seme onen arazoak obeto zaintzen dozuzan...), egin bedi zure naia (noiz izango da, baiña, zura naia, Txanton gaisoaren baloreak igon daitezzen...?), emoiguzu gaur gure eguneroko ogia (bai ta sagarrak be, baiña merkeagoak)... Ez gu tentaldira eroan (Jauna, balore txarrak erosteko tentalditik gorde nagizu)... Amen.

Otoitza amaitu ta arraushi andi bat egiñik, Txanton lo egiteko gertatu zan. Andik laster bere zurrungak gelan zear kaleraiño zabaldu ziran, eta ni aren oiñak berotzearren oe-gaiñean egokitzen nintzala, lotan asi nintzan.

Txanton'egaz neroian bizikereak, jaiegunetan izan ezik, beti bardin zirauan. Goizean, dendea zabaldu, ta bezeroen begira egon bitartean, metalak eta burdiña sailkatu, erosiriko jantziak garbitu, ta metalezko oe zaarrak margoztu. Inurria baizen langillea, Txanton'ek ez ekian ezelan be geldirik egoten. Sarri askotan, mutikoek ikertzen eben, nire ugazabari guztitariko gauzak saltzearren, au da, ingi, mantar eta txatarrak. Gauza onein truk txin batzuk emon oi eutsezan, eta danak pozik. Baiña beste gaiak ziran bere diruaren ekarleak.

Burdiña ta metalezko txatarretan, saltzaille garrantzitsuenak ijitoak ziran. Onek baiña, gauzak pisuka saltzen eutsoezan;

eta orretarako pisu bat erabilen. Ijitoek ba-ekiezan txatarren gora-beerak, eta oso zailla zan salneurrietan txoko andirik egitea. Arazoari, baiña, gure Txanton zuurrak, merezitako ardurea emon izan eutsan.

Ijitoek pisuaren gaiñean txatarrea jarten ziarduela, Txanton'ek trebetasun itzelaz iman bat toki egokian ipinten eban, eta olan pisuaren besoari beerantzako indarra eragiten eutsan. Onetaxaxe, ba, pisualdi bakoitzean gure Txanton'ek amabitsu kilo kentzen eutsezan. Sarri askotan, pisuaren benetasuna egiztatzearren, ijitoren batek bere buruaren pisuketa egiten eban; baiña orduko, imana Txanton'en sakelean egoan. Zailla zan, benetan, ijito arei ziria sartzea, baiña gure Txanton ez zan orretarako makala.

Andrazkoek, etxean zaar egindako amaika gauza ekarten eutsoen, batez be metalezko oerak, sueteko tresnak eta antzekoak. Txanton'ek ba-ekian zaartutako kobrezko ontzi ta metalezko oeen baliotasuna, ta gauza oneik irabazte andiak ekarten eutsoezan.

Illean bein, Bilbao'ko andizkako txatarlari baten kamioia Txanton'enetik igaroten zan, eta metatan sailkaturiko gaiak pisatu ta ordaindu ondoren, eroan oi ebazan. (Emen Txanton'en imana ez zan gauza, Bilbao'ko txatarlarienean jeneroak barrero pisatzen ziran-eta).

Txanton'ek astean bein, baturiko dirua erriko diru-etxe batera eroian. Noiz edo noiz, eta une egokia zala uste ebanean, diru-etxeke nagusiari bere kontu agiritik zeintzuk akziño eta zenbaten erosi bear ebazan agintzen eutsan. Olan ba, urteen buruan akziñotan Txanton'ek diruketa andia lortu izan eban.

Illero, diru-etxetik bere ondasunaren gora-beerakaz, esku-titz bat etorkion. Txanton'en lenengo egitekoa, silluari begiratzea zan; eta osorik edo gutxi marratuta izatekotan, estalkia uretan sartu, ta gero sillua kendurik, kutxatxu baten gorde eroian. Onen ondoren, eskutitza irakurrita, ingurrazti baten bere zenbakiak egin eta estalkian gorde oi eban. Jarraian, eskuak alkar igurtziz berekautan auxe iñoan:

—Ez dago txarto, baiña Irailla'n eroseriko akziñotxu mada-rikatu areik, lengoan eutsi izan ba'lebe...

Gero, agopean urrengo au abestu oi eban:

Txanton'en ondasuna
ba-ei'da ugari
iñoren eukiari
beti joritasuna.
Olan izango zan
akziñotxu zitalak
gero ain makalak
azaldu ezean.

Jaiegunetan, ostera, gure bizikerea guztiz ezbardina izaten zan. Berandu jagiten gintzazan, eta oiko sagarra iruntsirik, ama-bietako mezatara joaten gintzazan, ni kanpoan geratzen nintzala. Gero, lagunakaz berbetan eragoion, autua diruaren arazoa zala. Txanton oso begikoa zan, eta bere esaerak guztiai barre-gurea eragiten eutsen. Bazkal-orduko, Kaxinto'ren jatetxera joaten gintzazan. Emen, nire ugazaba agurtzearren, etxeko guztiak agertzen ziran. Oiko agurrak alkarri esan ondoren, maian jarri baiño len, auxe itaundu oi eban:

—Ta, Kaxinto, zelango lapikokoa atondu daustazu gaur?

—Atsegin izango yatzuna, Txanton. Urdai biguna ta Txorie-rriko odoloste ospatsuakaz atonduriko indiaba gorriak.

—Zure burubideak baiño obeagoak ez ba'dira...

—Zer, ba?

—Zer, ba? Teleponikak erosteko ta erosteko. Erosi nebazan, bai, ta gero zer? Blindi-blaust egin...!

—Ez saldu, gero...! Begira, Txanton —Kaxinto'k ezkutuzko itxuraz esaten eutsan—: bart emen apaltzen egon zan andiki batek, esan eustan irutatik akziño bat duan bananduko dabela...

—Ez da egia izango! —begiak dizdir Txanton'ek erantzuten eutsan—. Ekarrri egidazu, ba, lapikoko ori...!

Txanton'ek indiabatan-eta, jateko gai zana siñisgatxa zan. Kareleraiño beteriko iru azpiltzar bete indiabak, arrapalada baten papar-lepo bitartera sartzeko, ba-zan nor. Gero, aieneka bizietan Kaxinto'ri ordaintzen eutsan, eta eskaratzera joanda, zerbitzariai eskupekotzat, gatz eta piperra erioezan bertso batzuk bota oi eutsezan.

Jarraian, erri-ingurutik ibillaldi luze samar egiten genduan, indiaben egosketa ondo egiteko, urrean.

Euria ba'zan, dendako txartesa erabilen. Izan be, oso koi-petuta egoan ezkerro, euria gaiñetik laban egiten eban.

—Bai ete-da au baiño zira oberik? —pozez gaiñezka esan oi eban Txanton'ek—. Euritakoa aizeak itzulietara jarri oi dau, ta gabardiñai botoiak galduz gaiñera, joskUNETatik euria sartzen yake. Ori dirutan kentzen yakuna kontuan artu barik.

Ibilli genbiltzala, indiaba gorriek-eta, korrokada itzelak eragiten eutsoezan. Jakiña, jaiegUNETako gauetan barau egiten eban, baita neuk be.

Egunen bidean udabarria eldu zan, eta izparringi-egunak amaitu ziran. Txanton'en oiñak otz ba-ziran be, ez ninduen len beste bear izaten.

Bein baten, Andoni Deuna'ren aurregunean, Txanton'ek dendako jantzi zaarretatik tripazko praka ta txartes garbia auke-ratu zituan; eta makilla zuri bat txoko batetik artuta, etxera eroan ebazan. Gau aretan oera joan aurretik, makillea estalki baltzean sartu eban; eta betaurrekoak kandela ketsu baten gaiñetik eutsita, barrukaldetik baltzitu egin ebazan. Erabilten eban ardura ta tre-betasunagaitik, ba-zirudian lan garrantzitsu onetan askotan jar-duten ebala. Amaitu ostean,

—Bai, Lagun —esan eustan—. Biar Urkiola'ra goaz gure San Antonio'ri urteroko ikustaldia, ta, bidebatez, sasoiko lenengo jar-duna egitera.

Au esanik, abestuten asi zan:

Ai, Urkiola'ko Santu andia
esanda or-konpon
ez aztu zure Txanton
emon egiozu egun argia.
Urtero doa zure zerbitzari
otoitzari emonik
zelan ez jaramonik
bere sakeleko bearrianari?

Urrengo goizetik jagi, praka, txartesa ta betaurrekoak zorro baten sartu, estalki baltzean gordetako makillea artu, ta erriko

enparantzara abiatu gintzazan. Lenengo autobusa Urkiola'ra urte-teko zorian egoan, eta arrapalada baten, "eroan eta ekarri" txar-tela atararik, berebillean sartu zan. Neu be sarrerazo egin gura ninduan, baiña zaindariak txakurrak eroaten galerazota egoala esan eutsan. Jarleku-azpian joango nintzala esan eutsan Txan-ton'ek, baiña dana alperrik. Azkenez amor emon bear izan eban. Urten aurretik, enparantza laiñoz estalduta ikustean, auxe esan eban:

—Ibarrean laiño, eguzkia mendiraiño.

Andik laster berebilla abiatu zan, eta ni aren atzetik asi nintzan, baiña luzaro barik ikusmenetik galdu egin yatan, eta taka-taka, erromesen artean bideari ekin neutsan. Urkiola'ko aldatza asi ondoren, laiñoa ezereztu ta aitz zorrotzen artetik eguzkia agertu zan. Bidea, baserritarren taldez beterik egoan, guztiek janari ta edariak eroiezala. Noizbait gora eldu nintzan, eta bereala elizara bideraturik, ate-ondoan geratu nintzan bero ta nekeak ler eginda. Ozta-ozta bizkortzen asi nintzanean, Txanton'ek atetik agertuta, auxe esan eustan:

—Orain, Lagun, gure lanera, baita albait ariñen. Erromeria ikusteko ez gara etorri, tartekoak izateko baiño. Oste andia eltzen asi da, ta geure lekua artu bear dogu.

Orduan, jenderik ez egoan baztar batera joan gintzazan; eta inñarradi txiki batera elduta, erabillezan jantziak kendu, tripazko praka ta txartes barria jantzi, ta jarraian kedaturiko betaurrekoak sur-gaiñean jarririk, bizarra arrezka gantzu baltzaz igurtzi eban. Itxuraldapena egiñik, lokarri bat idunekoan lotu eustan, eta makilla zuriari estalkia kenduta, elizarako bidera biurtu gintza-zan. Abiatu baiño len, lengo jantzia inñarradian ezkutatu eban.

Egia esateko, jantzi barriak, kedaturiko betaurrekoek, eta bizar baltzak, beste itxura bat emoten eutsoen, eta izan be ez zirudian Txanton Zekena. Artutako ardurak zuurrak ziran, erromesen artean erriko ezagun asko egoan-eta.

Orduko, bide-ertzetan guztitariko eskale, geiso, elbarri, alper eta gorputzeko ezbearrez jotako zoribako asko eskean ikus-ten zan.

Nire idunetiko lokarriari eutsirik eta makilleaz lurrari azta-muka, ba-yoian gure Txanton astiro-astiro. Pago baten gerizpean

jarri zan, eta lurrean sartutako makillari itsu-mutiltzat lotu ninduan. Jarraian, lau arriz eutsiriko zapi bat lurrean jarri ta bedarrean jesarrita, eskean asi zan. Otzurrean asi baiño len, erritarrek bere agotsez ezagutuko ez ete-leukeen, nire buruari itauntzen neutsan; baiña Txanton'ek ba-ekian zelan jokatu. Agots ijimajatsu ta dardartsuz asi zan:

—Ikusi, anai maiteok... zuek ikusi ba-dagikezue-ta, gaiso onen zoritxarra... Beti gau, beti illun bizi bear au... Zuek, ostera, gure Jaunak egiñiko edertasuna ikusi ta gozatu... San Antonio errukitsuak betiko illuntasunetik gorde zagiezala... baita pekatuetatik be, beartsuari ez lagundu izanetik batez bere... Ai, gaiso onek ikustearren munduko urre guztia emongo leuke... baiña Jaunaren borondatea olan dan ezkerro, bedeinkatua bedi... Gure Aita, zeruetan zarana...

Ikustekoa zan Txanton'en irudia, aurpegia zerurantz jasorik ebalata ta besoak zabal-zabal eginda, ain ondo ikasiriko otowitziak eta Gure Aita esaten. Benetan biotz gogorrekoa izan bear, dirurik ez emoteko. Olan ba, erromesen txiñak zapiñoan metatzen ziran, Txanton'ek gero ta biotzeragilleago, maisukiago, jarduten ebalata. Askotan, bere zoritxarraren ziñaldaritzat jarten ninduan:

—Ez dakizue, anai maiteok, beti txakur bati lotuta egotea zer dan... Beti berak eroan gura gaituan lekura joan bearra... Ai!, onek berba egiten ba'leki, esango ez leuskizuenena... Agur, Maria, graziaz betea...

Zorionez, ezin negikean barbarik esan; baiña barrutik Txanton'en antzerkirako gaitasunak arritu egiten ninduan. Izan be, an egozan eskeko guztien artetik ondoen jarduten ebana, bera zan.

Bidean gora neskatillak urreratzen ba'ziran, ba-ekian arein emoitzak zelan beraganatu. Agotsari txandaka gora ta beera eragiñaz, ondo ekizan berba bigungarriakaz, auxe esaten eutsen:

—Emen datoz udabarriko lora zoragarriak... eguzkia baiño diztiratsuagoak ezkongaiak eskatzera... San Anton gureak, edozein gizoni zoriona ekarriko leuskioe argi-zati onei, merezi daben mutil zintzoa emoiezu... bai, ta ondo ezkondata bizitzaren argia urte askotarako ikusi dagiela... ez itsu gaisoak lez, beti illuntasunean... Zeruko zatitxuok, erruki zakidaze...

Alako baten, bidean gora aberats itxurako gazte bategaz, neskatil eder-eder bat urreratu yakun. Neskatilleak iñotsana, mutillak isillik aditzen eban. Bikotea ikustean, Txanton olantxe asi yaken:

—Emen yatorku Urkiola'ko erregiña, leoi baten biotza dauan bere zaldunagaž. San Antonio'k gorde dagizan erregiña onen urrezko billoak, begi urdin zerutiarrak, eta Jaungoikoak bioi ume asko emon dagiezala...

Gure ondora eldurik, neska ederra irribarretsu gelditu zan, Txanton'i zirautsala:

—Itsu izanik, zelan dakizu mutil batek laguntzen daustana, nire uleak urrezkoak ete begiak urdiñak diranik?

—Ai, nire biotzeko zeru-zatitxu ori...! Ondoan yabiltzun gazte orren oiñots gizontarrak entzun dodaz. Nire argibako bizitzan, neska baten barre ta berbetatik, zelangoak diran bere billo ta begien margoak bereizten ikasi dot. Ai ene...!, nire izakera luze illun onetan, aukera izan dot ainbat gauza ezagutzeko...! Santa Maria, Jaungoikoaren Ama...

Neska politari zauskada ona egiteko, urrean, gazteak zapiño-gaiñean diru-mordo bat itzi eban, eta Txanton'en zerulurreko bedeinkapen guztiek laguntzen eutseela, bikote ederra erromesen artean ostendu zan.

Era onetan, nire ugazabak bazkal-ordurarte jardun eban, eta erromesen kopurua urritzen zala, iduneko lokarritik askatu egin ninduan, auxe iñostala:

—Lagun, emon osteratxu bat ortik. Orain erromesek bazkaltzen diardue, ta zenbat gura jateko jadetsiko dozu.

Izan be, goizean egiñiko ibillaldi luzeagaitik gose nintzan, eta zugatzen gerizpean bazkaltzen egozan taldeen artetik, oremenka asi nintzan. Toki guztietan janari-ondakiñak emon eustezan, eta luzaro barik asetuta, Txanton'en ondora biurtu nintzan, len lez itsu-mutil zintzoa jokatzeke.

Arrastian, goizean lez jazo zan. Orain, baiña, erromesak sendi-taldeetan bidean gora joan bearrean beerantz yoiazan, batzuk oiñez, besteak berebillez, etxera biurtzeko. Txanton'ek itsuaren leloari jarraitzen eutsan, eta bere eskaera erostagarriek lo-

erazo ninduen. Iratzarri nintzanean, eguzkia ostentzeko zorian egoan, eta nire ugazaba, alde egiteko gertatzen zan.

Goizean jantziak ezkutaturiko lekura biurtu gintzazan eta emen Txanton lengora itxuraldatu zan. Gero, elizara abiatuta, atean auxe esan eustan:

—Zagoz unetxu batez emen, Lagun. San Antonio'ri iru Gure Aita esaten eta txin batzuk iztera noatzu-ta, ea datorren urtean Txanton gaisoaz errukiturik, gaur besteko eguraldi ederra ta erro-mes emonkorrak ekarten dauskuzan.

Urten zanean, bide-zabalaren ondoan egoan ardandegi baten sartu zan, eta eroian zorro aztunaren txiñak diru-txarteletan aldatu ebazan. Urten gintzazaneko, gau betea zan eta gure errirako berebilla egoan tokira joanda, Txanton goizeko lekuan jesarri zan. Bildur nintzan goizeko bidai luze, nekagarria, barrero egin bear izango ete-neban. Larri-larri, bide-ondoko bedarretik nire ugazabari begiratu neutsan; berak, baiña, ez eustan jaramonik egiten. Ba-zirudian beste iñoren txakurra nintzala. Berebil-zaiña jagole egoan, eta bein eta barriz susmoz beteriko begikadak botaten eustazan. Zintzurrean korapillo bat eratzen yatala, berebilla abiatzeko zala konturatu nintzan, zaindaria goiko maillara igoten asi zanean.

Orduan, atea zabalduz, Txanton'ek keiñu bat egin eustan eta aida baten aren jarlekupean ezkutatu nintzan. Benetan esker-tu neutsan egindakoa! Ai, olan beti jokatu ba'leu...!

Aldatzean beera giñoazala, Txakurzulo'ko biurgune zorrotza igarorik, arkondarapean gordetako diru-txartelen kili-kilik eraginda-edo, Txanton abesten asi zan:

Ai, Urkiola'ko Andoni gutarra
neskazarren izar garaia,
Izango al-da zure naia
topau dagiela euren senarra.
Txanton gaisoa munduan bakarra,
merezi dauan neska ernaia
gerta bedi bere ezkongai
ta gero betiko lagun azkarra.

Ez emon edozein zantarra
txatxala, burubako ta zoraia
Txanton'en etxeko galtzaia,
bai, ostera, urrezko txatarra.

Eta olan aldarte onenean, bertso, kantu ta santzoka, gauerdian errira eldu gintzazan, eta eguneko gora-beerakaz guztiz nekatuta, oean etzan biño ez, loak artu ginduzan.

Era onetan, Txanton'en beste alde arrigarria ezagutu neban. Uda aretako asikeran beste erromerietara eroan ninduan, eta nik baselizetako santu geienen ezaguerea egiten nebala, diru-kopurua biribiltzen yakon.

Gau baten bere ondoan nentzala, gordetako silluak kutxatxutik atara ta arein aztertzeari emon eutsan.

—Arraioa, Lagun —esan eustan—: bai dala gatxa iru sillu egokiak topatzea! Korreosetako mutillak ez dira makalak sillu eder margotsu oneik ilteko. Ba-dirudi sillu-iltzailleek mailluka marratzen debezala. Ona emen sillu bi naiko garbiak... irugarrena, baiña... Emen dago bat irudiaren aurpegian, begi-ondoan ain zuzen be, marratxu bat erakusten dauala... bai, euli baten korotza dalakoan pasatuko ba'litz... Emen dago beste bat goiko txokoa marratxu bataz zearkatuta... marratxutik ebagi ezkerro... Baiña ez, sasoi onetan euli asko izaten da, ta axe erabiliko dot.

Aukeraturiko iru silluak alde batera jarririk, enparauak kutxatxuan sartu ebazan. Gero, olantxe jarraitu eban:

—Bai, Lagun, gaur amabost, sinposium edo batzar garrantzitsua ementxe ospatu bear da. Sinposium geienak, arazoak aztertzeko atxakiz dei egiten dira, baiña batzar orreitan arazo gutxi ta guiski asko erabilten da. Arratsaldeetan berbaldiak izaten dira, bakotxak bere aukeran, janari gozoaren egosketa lokau baten bidez egin dagian...

Txanton barre egin eban, eta gero bakarrizketeari jarraipena emon eutsan:

—Gure batzarrak, ostera; ez dira sinposium orreik langoak, bai zera...! Guk, azkenengo aurrezki-arloan egindako aurrerape-nak, zeatz eta sakon aztertzen doguz, olan gure ondasunak ugari-tzeko gai izan gaitezkan. Aspaldi dala, bi urtetarik bein, zekenak,

edo obeto esatearren, gordelariak gure batzarra ospatzen dogu. Zekendi au orain arte beintzat, Bidaso'z onaindiko gordelariak soilik osotzen dogu; baiña urteen bidean Euzkadi'ko lagun guztiai dei egitea gure asmoa da. Orretarako, Donostia'ko gure bazkidea aurten iparreko anaiakaz artu-emonetan asiko da. Ba-dirudi angoak be mutil piñak dirala.

Txanton jagi zan, eta, arasatik iru paper-zati, beste ainbeste estalki zaar, baita bearrezkoak ziran idaztortz eta idaztura arturik, deiak egiten asi zan.

—Lenengo au, Iñaki'ri, Donostia'ko gure anaiari bialduko dautsat, gaur amabost emen izango dan batzarrera etorri dadin. Mutil bizkorra dogu au. Izan be, gure anaidiko itxaropen andia da, aparra-mantarreko arazoan benetako ezagulari bikaiña. Nik neuk, gai orretan Euzkadi'ko andiena dala esango neuke.

Lenengo deia amaituta, bigarrena idazten asi zan.

—Au, Iruña'ko gure Pirmiñ'i idatziko dautsat. Lagun au zigarro-mutxikiñen arloan oso ernaia da. Azkenengo batzarrean zerbait larri ba-égoan... ea oraingo onetan bere ekintzak merezi dauan obaria ekarri dautsan...

Jarraian, azkenengo deiari ekin autsan:

—Irugarren au, Gasteiz'ko Pruden zuurrarentzat izango da. Senteilla! Au bai mutil argia...! Boskarren balaunekoa da, arazo bardiñari ekin eta ekin. Bere aurretikoak lez, zorro zaarren salerosketeari emoten dautso. Asikeran ez eban zorroak erosi ta saldu baiño agiten. Mutil bizkorra zan ezkerro, baiña, Araba'tik oso zabaldua dan lur-sagarren azkuntzari emoten diran lugiñai, zorro utsen truk lur-sagarrez beteriko zorroak artzen asi yaken, eta gero oneik Gasteiz'en dendarik-denda salduz, onura eleganteak ekarri dautsoez.

Gero, silluai itsasgaia emonik, estalkien gaiñean jarri eban. Estalkiak, baiña, erabiliak izanik, gaiñetikoz izena ta zuzenbidea marratu ta oraingoak idatzi bear izan ebazan. Amaitu eban oeratzeko ordua zan, eta erantzi bitartean, arazoaren beste gora-beerak emon eustazan.

—Len esanda lez, batzarra bi urterik bein egiten da, ta izan be, batzar-lekua uri batetik bestera aldatzen da. Aurtengoa neure etxean egiteko da. Lauron arteko gora-beerak alkarri esan ondo-

ren, aurrezki-ekintzarik garrantzitsuena egin dauanari, txapel-dun-ezaugarritzat domiña bat emoten yako. Ba-daukat, txatarretan agerturiko brontzezko ederra, eretirako gordeta...

Gero, oiko Gure Aita esanda, Txanton lotan asi zan, eta udea izanik, nire ugazabak oiñetan berorik bear ez eban ezkerro, solairu-gaiñean etzanik loak artu ninduan.

Andik egun batzutara, batzarrerako baietza emonaz iru eskutitz eldu ziran. Gau aretan pozaren pozez eskuak alkarri igurtziaz, Txanton'ek auxe esan eustan:

—Begira, Lagun, gure eskutitzai erantzunak eldu yakez. Guztiek onartu dabe nire deia. Izan be, bildur nintzan iruetarik baten bat silluagaitik bere lekura eldu ez zedin. Bai, eulikorotzaren antzekoa zanarena batez be; baiña dirudianez, arazo orretan Txanton ez da makala.

Barre egin eban, eta bere buruagazko atsegin utsaz, bizarrari teink batzuk egin eustazan.

Urrengo egunetan, zekenkideen batzarrerako bearrezkoak ziran gertuerak egiten asi zan. Dendatik etxera iru aulki, ta zegokien burusiakaz iru lastamarraga eroan zituan. Onezaz gaiñera, txatarratik irabaziriko iru azpil, beste ainbeste koillara, aitzo ta edontziak.

Batzarra larunbateko gabean egiteko zan, eta jakiña, Txanton'ek ez eban eretirako argirik ekarri bear, etxe-aurrean egoan kaleko argi-mutilla naikoa zalako, ta gaiñera udea izanik, sapaillio edegiaren zear argia parrastaka sartuko litzake. Baiña zoritxarrez, aurregunean kalean jolasten ziarduen mutiko batzuk, arrikada bat az argi-ontzia apurtu egin izan eben. Onezaz konturatu zanean, Txanton'ek asarre itzela artu eban.

—Mutil barrabasok —ukabillak estutuz oiuegin eban—, mokoti orreik bete-bete be batzarra egiteko zanean, eta urteak or bertan argia emoten egon dan nire argi-ontzia, eurok apurtu bear... Denganiñok...!

Ez egoan, baiña, beste biderik, eta Txanton'ek dendako pitxien artean aztertu bear izan eban. Zorionez, krisaillu bat idoro aal izan eban, baita ondo etorkion kandelea. Gero, krisaillua eskuan arturik, eta mokotien aurka gorriak botaten ebazala, etxera abiatu zan.

Barikuko illuntzean, pardeltxu bi ekarrezala etxeratu zan. Edegi ebazanean zur eta lur geratu nintzan. Ziur nengoan etxe aretan ez zala ainbeste jangairik erabatean iñoiz sartu izan. Esne-bonbil bat, beste bonbil bete ardao, ta Idiazabal'go gaztai ederra egokion ogiaz. Gaiok arasan sartzen zituala, berekautan auxe iñoan:

—Eskerrak bi urtetarik bein bakarrik egiten dogula batzarra, osterantzean... Sinposium guztiak karu izaten dira, baiña zuri aste osoa dirautsuna, biar aida baten urtuko yatzu, Txanton... Ordu bete bi bear izan dodaz gaiok erosteko, iru bidar saltoki guztiak aztertzen nebazala. Jeneroak iñoizkorik karuen, eta gaiñera, Jaunak apropos or jarritako kaleko nire biotzeko argi ori be, apurtu egin bear... Ai, Txanton, beste iman andiagoa pisuan erabilli bear izango dozu, bestela dana blindi-blaust...!

Jarraian, ura geituz esne-bonbilletik bi egin ebazan, baita ardaoarenaz be beste ainbeste. Olan ziarduala, ta bertsoarako eban jasari aurre egin eziñik, agopean olantxe asi zan:

Bizkai'ko etxe onetan
munduan dan bakarra
gordelarien batzarra
biar bederatzieta.

Txanton, zoritxarretan
etorri yatzu bearra,
ainbeste lagun azkarra
zurean artzekotan.

Asko dago uretan
baiña ai!, arazo txarra
esne ardao ta pattarra
beti an odeietan.

Sar daigun bonbilletan
ura ta esne goitarra
ura ta ardao zerutarra
osasuntsua dalakotan.

Gaztaiari esnea ta ardaoarena egin aal ez izateak, gogoa atsekabetu eutsan, eta onelako bertsoxua urten yakon:

Ba-nintzake pozetan
nire soiñaren indarra,
au gaztaitxu bakarra
biurtu ba'neu bitan.

Azkenez, batzar-eguna etorri zan, eta oiko lanean jardun ondoren, illunabarrerako Txanton eta biok sapailotik ikerleñ zain gengoan. Noizbait, eta arratseko illuntasuna danaz jabetzen zala, kaleko beste muturretik lagun batzuen autua etorri yakun, eta bereala iru adiskideen oiuek agurtu ginduezan:

—Eup, Txanton, aspaldiko!

Txanton jagi zan, eta onelako agur au bota eutsen:

Biotzez agur bero
egon dana zuen zain
emoten dautsue orain
balkoitikan maitero.

Iñaki'k onezkero
Donostia'n lan bikain
egin dau bere gain
egizko mantarrero.

Pruden, ez esan gero
arazoa dala ezain
iñurritxua bezain
ba-zabiltz patatero.

Pirmin, ainbat bezero
dozu kebedar usain
beti-beri zure zain
mutxikin-zigarrero.

Txanton dozue gäuero
lo eziñezko arrain
akziñotxuen artzain
ta zuen txatarrero.

Etorbarriek barre ta santzoka erantzun eutsoen, eta aldarte onenean eskillaran gora igoten asi ziran, baiña krisaillua iziotuta eroian Txanton'ek, mailladi-goienetik, auxe esan eutsen:

—Kontuz, gero, ez danok batera igon, bestela eskillareak blindi-blaust egingo dau-ta...! Zatoze astiro ta banan-banan. Olantxe...! Zu, Pruden, kontuz irugarren mail orretan, kolokatxu dabil-eta... Ederto... Orain zortzigarren ori et, et...! kontuz zapaldu, ta badaezpadakoan eskudelari eutsi, sokeari esan gura dot... Tira, goian zagoz...! Ekarri bostekoa...!

Eta olan banan-banan, noizbait gure gizonak gora eldu ziran.

—Arraioa Txanton! —esan eutsan Iñaki'k—. Balkoitik soka bat bota be'zeusku, ariñoago elduko gintzakezan...

Guztiak agurtu ondoren, Txanton'ek eskaratzera eroan zituan, eta krisaillua mai-gaiñean jarririk, danak jesarri ziran. Orduan, Txanton'ek auxe itaundu eutsen:

—Ta, zelan izan yatzue ibillaldia?

Oso ondo egin izan ebela, esan eutsoen guztiek ago batez.

—Niri, ba, gauzak ez yataz onen ondo jazo.

—Zer ba? —besteak itaundu eutsoen.

—Begira, lagunok. Atzo bertan kaleko nire argia mokoti batzuk apurtu egin dauste, ta orain kandelea erabilli bear...

—Arraioa...!

—Ori bai ezbearra...!

—Olakorik be...!

Bere lagunen atsekabea oartzean, Txanton'en naigabea arindu egin zan, eta bururapen illunak uxatuz, lagunai auxe itaundu eutsen:

—Onako bide-txartela, karutxua da, urrean, ezta?

—Ezelan be ez, Txanton —erantzun eutsan Iñaki'k—. Joan-etorri ugari egiten oituak gagozanontzat, ez dogu txartel-bearrik.

—Zelan, ba? —entzungura barrero Txanton'ek—. Orixe bai jakin nai izango neukela...

—Begira: trena urten baiño len, aitu ondo zulatzaillea zein gurditan sartzen dan, eta orduan sartu zaitez urrunenean. Estaziño guztietan ardura ori artu, ta ez dozu aren bibotea ikusi bear izango...

—Eta bera gurdi-eskillaratik azkenengo orduan nor sartzen dan jakiteko, zain ba'lego?.

—Ai, Txanton, iñuzente ori...! Orretarako trena artu bear da zuloztaillearen beste aldetik.

—Bai, baiña, estaziño guztietan artu bear dan ardura ori, aspergarria izango da, urrean, Iñaki.

—Ezelan be ez, Txanton. Ain luzaro jesarrita egon ondoren, on yatzu jatsi ta igon bear ori. Begira, ni orain Donostia'tik urte-tean baizen eroso aurkitzen naz.

—Ikusi be, ikusi! —esan eutsan Txanton'ek—. Edozelan be, gauza barriak ikasteko ez dago oberik gure anaidiko batzarrak baiño. Ta, zuk Pirmin, zelan egin dozu Iruña'tiko ibillaldia?. Ez niri esan, gero, duan urten yatzula...

—Ain zuzen be, olantxe izan da, Txanton, siñistu ez ba'dagidazun be.

—Zelan daiteke ori, baiña?

—Begira: zure deia artu nebanean, Iruña'tik Gasteiz'erako estaziñora joan nintzan. Aldamenak aztertzean, lurrean jaurtiak dagozan bide-txartelek, garbienak ziran batzuk artu nebazan. Gero etxean osoenak aukeraturik, eukazan zuloxtuak beste txartelen zatitxuakaz, eta jakiña, margo bardiñekoak, bete nebazan. Orretarako, ebagiriko zatitxuen era berbera izan bear dabe. Zuloxtuak bete ondoren, atzekaldean ildaskatua dagoan eguna, untze baten bidez ibillaldia egingo dan egunari, egokitzen yako ta kito... Olan ba, Iruña'tik Gasteiz'erako lenengo maillan "Eroan eta ekarri"ko txartela lortu dot. Gasteiz'en, Pruden kamioi bete lursagar banatzeko eukala, nire begira egoan, eta biok bideko errietan lursagarrak banatuz, onaiño eldu gaiatzuz. Biar, era berean Gasteiz'era biurtuko gara, ezta, Pruden?

—Bai Pirmin, eta bidebatez zorro utsak jasoko doguz.

—Eta niri —bota eban Txanton'ek bizarrari teink egiñez —Urkiola'ra edo beste iñora joan bear dodanean kentzen daustazan diruak...! Aurrerantzean, nigandik ez dabe ezkurrik be ikusiko!

Ordurako, astirik izan neban zekendiaren lagunon itxurea ikusteko. Iñaki, ogetamar bat urteko mutil sendo, ederra, ule kirimilduko ta aurpegi alaikoa zan. Pirmin napartarra, berrogeitsu urteko gizon garai ta argala, begikera benazkoa zan, zelan edo alan Auñamendi'ko artzain bizkorra emoten ebana. Aurpegi

zorrotzean, begi sarkorrek diztiratzen yakoan. Indartsua zirudian, gogoaren aldetik batez be.

Ogetamabost urtekoa Prunden arabarra, ez zan besteak aiñako garaia, baiña zabala ta indartsua, oster, bai berez olan zalako, bai zorro bete lursagar gora ta beerako iñarkunak indartu ebalako. Etenbako irri-barre gozo ta etsegiñak, alako erakarpena emoten eutsan.

Txanton'ek baiña, une aretan ez eban agertzen orren itxura barrekoaia. Kezkaz beterik kandlearen beerakadea ikusten eban, eta sinposium aretan gordelaritzaren alde gauza jakingarriak entzuten ba-ebazan be, ezin egikeazan begiak kandelatik kendu. Gaiñera, berbetan jarduteko argiaren bearrik ez, arraioa...!

—Nik uste —esan eban Iñaki'k isillune labur baten ondoren—, gure arazoen egoera aztertu bear dogula, gero txapelduna nor izango dan ebazteko. Oi dan lez, Txanton etxekojauna izanik, itz egiten asiko da. Gero, urrutienetik etorri dana, au da, Pirmin napartarra. Jarraian neure txanda izango da, ta azkenez, urrenetik etorri dana, Pruden arabarra, ain zuzen. Auxe izan da gure betiko legea; beraz, asi bedi Txanton, etxe onetako nagusia.

Orduan Txanton bere bizitzaren gora-beerak azaltzen asi yaken. Kaxinto'ren kebidetan egindako zuloari eskerrak, jateko zein gutxi bear eban. Zelan nintzan otzaldietan bere oiñen berogarri. Bizarra luzeagaitik egindako aurrezkiak. Etxean bearrezkoak ziran konponketak berak egiten ebazala. Gero, zelango onurak ataraten ebazan eta zelangoak ziran dendako artu-emonak. Imanaren marrokeria aipatu ebanean, lagunaren arreta bere itzetatik dilindan egoan. Azkenez, oe zaarren sal-erosketan zeintzuk irabazte lortzen ebazan, etab, etab. Baita amaitzeko, akziñoek emoten eutsoezan kezkak eta itxaropenak be.

Baiña gauza arrigarria! Txanton'ek ez eutsen aipamenik egin Bizkai'ko erromerietan, zelango itsu jatorra antzezten ebarena. Zergaitik...? Batek-baki... Nire ustez, itsuarenak asko geitu egikean bere gaitasuna txapeldun-domiña lortzeko. Bildur izango ete-zan, zelan edo alan itsuarena larregi zabaldu zeitekela-edo?

Txanton'ek berea amaitu ebanean, Pirmiñ'i berba egiteko erea emon eutsan. Une batez ausnartu ondoren, napartarra olanxe asi zan:

—Ondo dakizuenez, nik beti zigarro-mutxikiñen arazoari ekin izan dausat. Urte askotan, orratz zorrotzeduneko makillea gutzitariko mutxikiñetan sartu, ta makurtu barik, zorrora.

Arazo onek, baiña, eragozpenez beterik dago. Euria danean, eziñezkoa da mutxikiñik artzea, lur bustian ondatzen diralako. Bestetik, bakarrik jardutea norberarentzat oso nekagarria da, ta lana amaitzean, ozta-ozta jateko lain egiten da. Au ikusirik, mutiko-talde bat eratu neban, ainbatean ordaintzen neutsela. Olan ba, bear neban aiña ekarten eusten, eta nik ez neban etxean egon baiño besterik egiten, zigarro barriak atontzen.

Laster, baiña, jenero asko baiña bezero gutxi nebazala oartu nintzan, eta gaiñera oneik diru urrikoak. Au berez ulertzen dan gauzea da... Mutxikiñez egindako zigarrotxu barriak, demoniñoak daukez, eta onei pauta sakonak emotean, ba-dirudi barruan basakatu bat sartu yatzula. Nire zigarrotxuak, ba, diru urridunen artean baiño ezin negikean saldu, ta oneik ezin bestean irabazte gutxi ekarten eusten.

Orduan, arloari merezi eban ardurea emon neutsan. Bezero aberatsagoak bear nebazan. Baiña onei zelan erre-erazo nire zigarrotxu kirastunak? Orretarako, arazoa bide barrietatik eroan bear neban. Ba-nekian zigarro-mutxikiñen gaia ontzeko, egosi bear nebala, baiña orretarako etxera gasa ekarri bear neban, eta bate-tik ekarketearen diruak, eta bestetik gasaren balioak, maukea ondatuko leuskide.

Arratsalde baten, eskaratzeko leioan arazoaren urtenbideari ekiten nutsala, ara non ikusi neban, leio-ondoko ormatik gasa-odi bat igaroten zala. Orduan gogora etorri yatan urte batzuk lenago, goi-mailletako maistarrek gasa etxera ekarri izan ebela. Nik neuk gasarik iñoiz erabilli ez dodanez —bestela anaidi-koa ez nintzakizue izango-ta—, odiari orduan ez neutsan jaramonik egin.

Gaua, lo egin eziñik iraun neban, baiña goizerako eginbidea erabagi izan neban. Eskaratzetik zulo bat egin ondoren, lagun batek itziriko laztabiñaz, odia zulatu egin neban. Gero, zuloan odizati bat garrangatu, ta olan gasa etxera eldu yatan. Andik laster, gasarako bearrezkoa zan suetea, txatartegi baten lau txiñez erosi neban.

Olan ba, mutxikiñen egosteari emon neutsan, eta, saldea kendurik, zigarro onak egiteko lengai bikaiña lortu neban...

—Barkatu egidazu, Pirmin —Iñaki'k eten egin eutsan—. Ez guri esan, gero, mutxikiñen saldea apariko sukuarentzat gordeten zenduala. Olan ba'litz, orain bertan bera, beste barik txapeldundomiña emongo geuskizu...

Gipuzkoarraren ataraldia entzunik, guztiek barre egin eben. Karkarak amaitu ziranean, Pirmiñ'ek bereari jarraitu eutsan.

—Gero, zigarrotxuak andika eratzeko, tramankulo itzela erosi neban. Izan be, nire zigarrotxuak benetakoak azaldu ziran, bai itxuraz bai ontasunaz. Ain zuzen be, ez eutsoen zor Arrendataria'k saltzen dauzanai, ta gaiñera merkeagoak... Gero, beste aurrerapen andia jadetsi neban: egosiriko kebedarrari batantantotxu batzuk bota ondoren, mentoladun bikaiñak lortu neban, andrazkoentzat batez be.

Zigarro-mutxikiñen erabilketan ba-neban bearrezkoa zan bizikaspén edo esperientzia, baiña salketearen aldetik, oso makal nenbillen. Neuk eta mutikoek batu genduan baiño askozaz geiago irusten eban zigarro-tramankulo arek, eta gaiñera txarto nenbillen ni bakarrik ainbeste kopuru saltzeko. Arazoari merezi eban ardurea emon neutsan, eta azkenez, ezustean, korapilloa askatu egin neban.

Zine ta antzoki guztiak ikertu nebazan, eta leku bakotzeko garbitasuna egiten eben andrazkoai, egunoro baturiko saramea gorde egiden eskatu neutsen, eta nik ordaiñez, leku aretan nire zigarrotxuak saltzeko eskubide bakarra emongo neuskiela. Ondore arrigarria lortu neban. Egunoro, esku-gurditxu bat nerabillela, zine ta antzoki guztiak ikertzen nebazan, eta mutxikiñak jasoaz batera, tokiko garbitzailleari, bear ebazan pardeltxuak saldu oi neutsazan. Ortik gora, berak atarako leukena berarentzat. Ezin dagikezue asmatu, eskintza onek zelango ondore ona ekarri eustan.

Arrezkero, nire arazoak gorakada itzela artu egin dau...

—Baiña entzuidazu, Pirmin —Pruden'ek eten egin eutsan—: zure arazoa lege-aurkakoa da. Zigarrotxuak saltzeko eskubide bakarra, Tabakalera'k edo dalako orrek dauko. Zu, beraz, legeauslea zara.

—Ze Tabakalera ta Tabakalera oste! —Nok emon dautso dalako orri eskubide bakarra? Zeuk? Neuk? Zein erri-autarkik emon dautso eskubide ori? Zigarro-mutxikiña lango zikinkeria, zeozer usaintsu ta gozoa biurtzen dauanari, ostera, goratzarreak egin bear izango leuskioezala uste dot. Benetan diñotzuet: nik egindakoak, Iruña'ko kale baten izena edo Gaiarre egurastegian gomutarri bat merezi dau...

Ariari noakion, baiña. Nire buruari ekin eta ekin, konturatu nintzan zigarrotxuak onak izanez gaiñera, itxura onekoak izan bearko litzakezala. Olan ba, orain estalki bikaiñean batuta datoz, eta garrantzi andikoa dana, orain asko ez dala, nire salgaiari "Iruña'ko Lorea" izena jarri dautsat. Ezin degikezue asmatu, zelang garrantzia dauan olango txikikeri batek. "Iruña'ko Lorea" orain len baiño birritan geiago saltzen da.

Olan ba, asteko sei egunetan arazo onetan diardut. Jaiegunetan, ostera, opor artzen dot, Jatetxe batzuen neskameak jaiegunetan txandaka antzokira daroadaz, eta emen oso ezaguna nazanez, ordaindu barik sartzen gara. Jakiña, gorako maillara edo "Oillotegira" goaz, baiña emendik iñondik baiño obeto ikusten da. Eskerroneko neskameok, antzokira joan aurretik, jaki gozonenatik zenbat gura emon oi dauste.

Bai, lagunok, Pirmiñ'i "Iruña'ko Lorea" ren asmatzailleari, arazoak polito doakoz. Lengo egunean, Tabakalera'ko nagusienetariko batek, neure zigarrotxuak baiño ez ebazala erreten, esan eusten. Orrek naikoa esan gura dau. Zuek erreko ba'zenduez, nigaz bat etorriko zintzakeze; baiña zoritxarrez dirua ke biurtzen dauana, ezin da gure anaidian sartu, osterantzean...

Oneaz, Pirmiñ'ek bere azalpena amaitu eban, eta enparauen zorion beroak artzen abazala, Txanton'ek kandleari larri-larri begiratzen eutsan.

—Arraioa! —berekautan iñoan—, berba egiteko, argia gastau bear be...!

Pirmiñ'i egindako zorion-agurrak amaitu ziranean, txandea Iñaki gipuzkoarrari etorri yakon.

—Ondo dakizueenez, aparra-mantarreko arazoan beti jardun izan nozue, ta, aita il zanean, etxeko bizibidea itzi eustan...

—Baiña aita il egin yatzu? —Txanton'ek itaundu eutsan—. Ez nekian il izan zanik, ba. A bai gizon andia ta gordelari itzela...!

—Bai —erantzun eban Iñaki'k—; baiña il-aurretik gauza siñisgatxa egin euskun. Ara... azken-naian, bere iru semek maitasun-ezaugarritzat, lurra bota baiño len, zerraldoaren gaiñean milla ogerleko bana bota bear ebezala, jarri eban...

—Ori bai arrigarria...!

—Ez olakorik esan...!

—Entzun be entzun...!

—Bai, lagun maiteok, eziñezkoa ba-dirudi be, aitaren azken-naiak ni oiñordetzat izendatu ondoren, olan iñoan. Ain zuzen be, aparra-mantarreko arazoa niri egokidan, Damian'ek eta Fabian'ek nire anaiak, Ikastola Nagusian ikasketak egin ondoren, batak lege-gizon eta besteak ekonomilariaren agiriak lortu izan ebezan. Orretarako bearrezkoa zan diruketea eralgi ondoren, ordaiñez, aitak etxeko arazoa niretzat iztea erabagi eban. Aitak, Ikastola Nagusiko agiriren bat lortu nengian be gura izan eban, baiña ni zenbakietarako oso baldarra beti, ta azkenean ezin bes-tez, dendan sartu ninduan. Irakasleek esaten ebenez, ez neuke iñoiz be ikasiko bi ta bi zenbat diran.

Olan ba, aitaren elizkizunak amaitu ziranean, lurra emotea-rren obitegira joan gintzazan. Zerraldoa obira jatsi zanean, Damian'ek txarteletan milla ogerlekoak atara, ta inka itzela egin ondoren, gaiñean bota ebazan, auxe iñoala:

—Agur, aita, beioatzu nire maitasun-ezaugarria.

Gero, Fabian'ek eskuak dar-dar eta begietan malkoak ebazala, bere biotzeko milla ogerlekotxuak zerraldo-gaiñean itzi ebazan, tartailloka iñoala:

—Orra or, aita, zure Fabian'en maitasun-erakuspena... Baiña ez litzakean bardin izango ogerleko batatz...?

Jarraian, biek auxe esan eusten:

—Orain, Iñaki, ire txandea dok. Bete egik aitaren naia.

—Barkatu egidazue anai maiteok —esan neutsen—, baiña atzo jaieguna zala-ta, ezin izan dodaz milla ogerlekoak dirutan lortu; baiña dana atonduko da; emen doaz iru milla ogerleko, nire diru-etxeko txeke baten.

Orduan, nire txekea jarri ta besteen bi milla ogerlekoak jaso

nebazan, eta aita nire iru millako txekez lurperatu izan zan. Olan, ba, arazoa guztien onerako atondu zan...

Txanton'ek eta besteek barre itzelak egin ebezan.

—Ori da mutil pijoa...!

—Olakorik...!

—Egundoko...!

Barre-algarak baretu ziranean, Txanton'ek auxe itaundu eutsan:

—Eta aitak itziriko arazoa, zelan yoatzu orain?

—Oso ondo esango neuke... Zenbaki-arazoetan jakintsuagoa ba'nintz, zeatzago esango neuskizue, baiña mutil koskorra nintzala sisi-eskola egin oi neban, eta auzoko beste mutillakaz nire negoziotxuak egiten nebazan, polito-polito zenbakietarako neban baldartasuna, ekintzaz ordeztuz.

—Aparra-mantarrek diru asko emongo dautsue, ezta...?

—Alan-olan... Begira, amar ogerlekotan erosiriko jantzia, ogeitan saltzen dot, eta euneko amar apal orreaz konpontzen gara...

Au entzutean, besteak zur eta lur geratu ziran. Gero, begirunerik andienaz, Pirmiñ'ek auxe esan eutsan:

—Mutil, mutil, Ikastola Nagusira joan ba'zintzaz, zelango ondasun-ministrua izango zintzakean!

Autua aurrera yoiala, ta Iñaki'k bere zuertasunagaitik bes-teen zorionak artzen ebazala, Txanton'ek begi larriakaz kandelearen beerakada itzela ikusten eban. Bere kandela ederrak ordurako ez ebazan atz bitik gora izango. Alako baten, bere jabetasuna galdurik, putz indartsuz kandelea amatau egin eban, auxe iñoala:

—Izan be, berba egiteko ez dogu argiaren bearrik!

Ekintza onek, Txanton'ganako anaikideen begirunea goren-go maillaraiño igon-erazo eban.

Lagunen goresmenak artzen ebazala, baiña, ara non Pruden egoan aldetik, ots bakana aditu zala. Au entzutean, danak isildu ziran. Orraitiño, Pruden'en lekutik etorren otsa, gero ta nabarmenago egiten zan. Jakingurea jabetu eziñik, Txanton'ek auxe itaundu eutsan:

—Baiña, zetan zabiltz or, Pruden, zarata ori egiteko?

—Ara, ba —Pruden'ek erantzun eutsan—: berba egiteko ez da

argiaren bearrik, eta illunetan egoteko ez da bear prakarik; beraz, gastau ez daitezkan kendu egin dodaz.

—Arraioa...!

—Senteilla...!

—Olakorik...!

Arritasunezko isillunea egin zan. Orduan, illuntasunetik Pirmiñ'en agotsa eldu yaken:

—Lagun maiteok, Pruden'ek egindakoa edozeiñek iñoiz asmatu ez leiteken burutapenik arrigarriena da, ta gure oneritsi sakonaren ezaugarritzat, emoiogun beste barik txapeldundomiñea.

—Bai orixe!

—Oraintxe bertan!

—Aupa, Pruden!

Txanton'ek orduan, esku dardartsuz bere biotzeko kandealea iziotu, ta ari-biur batatz, domiñea Pruden'i idune-inguruan eskegi eutsan. Izan be, brontzeko domiña ederra zan. Danak esku-erakutsia ederresten ebela, Txanton'ek auxe esan eban:

—Lagunok, apalordua da. Jesarri gaitezkan, eta ikusi dagi-gun gure Kaxinto'k gaur zer atondu dauskun...

Ke-bideko zipotza kendurik, eskaratzean sukalki baten usain gozo-gozoa zabaldu zan. Jarraian, Txanton'ek gaztai, ogi, ta ardaoa banandu ebazan, eta aldarte onenean, sukalki erako gaz-taia jan eben. Gaztaia arrera itzela lortu eban, eta aida baten ostendu ziran bai gaztaia bai ardaoa, Bazkalkideek, ago batez bien ontasuna ederrestu eben, ardaoarena batez be.

—Ardaoa benetakoa da —esan eban Pirmiñ'ek—, agosabairako gozo ta ariña.

—Bai —erantzun eban Iñaki'k—, bururaino igoten ez yatzuen orreitariko ardao piña.

—Araba-Errioxakoa emoten dau— Pruden'ek esan eban—, osterik eragiten ez dautsuen orreitarikoa...

Txanton guztiz pozik egoan; baiña bere lagunen gosea baretzen ez zan ezkeru, sagar bana emon baiño beste biderik ez eban izan; eta au gutxi bai'litzan, lengo kandealea amaitu izan zan eta krisailluan beste bat sartu bear izan eban.

—Jaungoiko maitea! —berekautan iñoan— Bonbil bete bi

ardao (eskerrak erosirikoari ura bota neutsala), Idiazabal'go gaztai oso bat, bitamiñez beteriko lau sagar eder, eta gaiñera bigarren kandealea biztu bear be...

Aparia amaitu baiño ez, oeratu egin ziran eta orduan nasaitasunezko putz indartsu batatz, Txanton'ek kandealea amatau eban. Lo egin aurretik, baiña, aurrezkiaren pilosopiari ekin eutsoen.

—Nire ustez —Iñaki'k esan eban—, gordelariak ez gara munduan zear dabilten eta ezetarako gauza ez diran orreitarikoak.

—Gizadiak, ostera, zor andia dausku —Txanton'ek erantzun eutsan—. Gu barik aurrerapenik ez litzake izango. Esaterako, tximist-indarra urri geraturik, geitu bear ba'da, orra doa gure dirutxua akziñoen truk. Barruti baten bardin, urrutizkiñak bearrezkoak izatekotan, barrutiaren onerako ara doaz gure ogerlekoak Teleponika'ren baloreen ordaiñez. Izan be, gure bizitza ez da alperrikoa, gizadiari etxekalteek dakartsoen ondapena, geuk zuzentzen dogulako. Geu gara benetan gizartearen ongilleak...

—Mundua orren zentzunbakoa ez ba'litz —ebagi autsan Pruden'ek—, erriko seme kutunak izendatu bear gindukeez, eta enparantzetan gomutarri bana jarri be.

Isillune bat egin zan. Alako baten, Pirmiñ'ek Pruden'i auxe esan eutsan:

—Egia ete-da, Pruden, ezkondu zarala? Lengo egunean baten batek zeozer esan eustan.

—Bai, lagun, egia da. Ba-dira sei illabete ezkondu nazala.

—Ta, zelan doatzu biziera barria? Benetako emazte gordelaria izango dozu, urrean...

—Bai, zera...! —ebagi eutsan Pruden'ek—. Beti diru-eske yabilt. Goizean dirua emon dagiodala. Eguerdian bardin, eta oera-koan barrero diru-eske.

—Baiña, zer arraioa egiten dau zure emazteak ainbeste diruaz...?

—Ez dakit, oraindiño ez dausat emon-eta...

Barreak amaitu ziranean, Iñaki'k auxe esan eban:

—Izan be, txapeldunaren domiñea esku obeagotan ezin dai-teke egon.

Autua era onetan jarraitu zan, eta gau berotsua izanik, sapai-llora urten nintzan. Andik laster, barruko anaidia zurrunga bizie-

tan lotan egoan. Gau aretan, askotan jazoten yatanez, amesetai. Luzerotxu maitea ikusi neban.

Urrengo goizean, eguzkia sapaillan zear gelan sartzen zala, Txanton eta bere lagunak jagita, katillu bete esne bana arturik, etxera biurtzeko abiamenak egin ebezan. Gero, Txanton'ek erriko enparantzaraño lagundu eutsen, eta andik urte bi barruan barrero batuko zirala alkarri aginduz, bakotxak bere bideari ekin eutsan.

Igandea zan, eta mezatara joan aurretik Txanton'ek eta biok erritik ibillalditxu bat egin genduan. Olan genbiltzala. Txanton'ek berekautan auxe iñoan:

—Ai, Txanton, eskerrak zortzi urte igaro arte ez dozula beste batzarrik atondu bear, bestela...! Idiazabal'go gaztai oso bat, bonbil bete bi ardao, ta beste ainbeste esne (ura bota ez ba'neutse, nire ondapena izango litzakean), lau sagar eta kandela bi...! Edozelan be, nire etxetik gasa-odiren bat igaroko ba'litz, Pirmiñ'i jazo yakon lez... Dana-dala, gauza barriak ikasten dira beti... Pruden'en burutapena be, illunpean prakak kentzea gastau ez dakiozan...!

Eta bizarrari teink egiteari itzi barik, barre egin eban. Gero, bere egoera larria burura ekarririk, bertsotxuok bota ebazan:

Dagonian bon-bon
ez danian or-konpon
au ez dozu egun on
ezelan bere, Txanton.
Ba-da ai! zoriontxu
etxean dau gasatxu
ostera Txantontxu
ez gasa ez argitxu
Kaxinto'ren odoloste
nik gaur ez dot uste
emon dagidan oste
ez eta buruauste.

Eta olan jazo zan. Igande aretan, Txanton'ek ez eban Kaxinto'nean bazkaldu, ta gaztaia ez izanik, sagar bat jan eban ez besterik, oeratu baiño len.

Udako egun areik ba-yoiazan aurrera, ta Dagonilla amaitu

aurretik, Txanton'en bizikereari aldakuntza andia ekarriko leuskion zerbait garrantzitsua jazo zan.

Len esan dodanez, bazkal-aurretik eta dendea itxi ondoren, akziñoen eguneko egokerea ikusirik, zeitiko osteratxua egiten eban, oiko sagarrak erostearren. Egiketa onek Txanton'entzat buruauste andiko arazoa izan oi zan, sagarrak karuak izanez gaiñera, salneurriak egunetik egunera gora egiten eben-eta.

Egun baten, baiña, zeian saltzaille barria ikusi genduan. Baserriko neska bat etxean azitako barazki ta igaliak saltzen asi zan. Nik ez dakit zelan, ezta zegaitik be, baiña Pantxike eritxon neskeari, Txanton atsegin yakon. Polita samar eta itxura maratzekoa, Txanton zeitik agertzen zanean, aren begiai txinpartak eriezan. Gure zekenari, osteratxua Pantxike'ren saltune-aurrean, beti amaitzen yakon, eta gaiak emen beste iñon baiño merkeagoak izanik, Txanton'ek neskeari sagarrak erosten eutsazan.

Olan ba, seiko sagarren salneurria beti gora, Pantxike'ren maitasuna lez. Baiña onen sentipenak anditzen yakozan giñoan, Txanton'entzako, sagarren prezioa beeratu egiten zan, eta zeitiko osteratxua atsegiñezko iturria biurtu yakon.

Pantxike, neska maratza ta ona izanez gaiñera, itxura atsegiñekoa zan. Ogei ta amabost bat urtekoa, ule baltza ondo orraztua aurpegi polit bateko apaingarria zan. Ba-eban zerbait luzetxua zan surra, baiña onek ez eutsan erakarmenean ezer kentzen, Txanton ikusirik, begi ederrak argitzen yakozanean batez be.

Benetan esateko, Txanton'ek ba-eroiazan txairo-txairo bere berrogetabost urte, ta janari urriagaitik edo sagarren bitamiñak zirala bide, zan baiño gazteagoaren itxurea emoten eban. Ez zan arritzeko beraz, Pantxike maratza Txanton maite izatea.

Txanton'ek, ostera, ez eban zikotzak margozten diran itxura zantar orreitarikoa. Zegaitik joan izan zan baiña, zekenen bide-tik? Etxean arturiko ezikereagaitik, urrean, edo-ta dirua batzeko sukar eroak menperatu ebalako?. Batek-baki...!

Zana-zala, orduan ez neban ikusi Txanton'en eta Pantxike'ren arteko arazoa zetan amaitu zan. Arratsalde sargoritsu baten jazo zanak, nire bizikereari iraultza andia emon eutsan. Ona emen zelan jazo zan.

Iraila'ko arratsalde bero aretan, Txanton eta biok eguneko

zeregiñak amaiturik, sapaillo-ondoan arrats-beerako bakean atsedetzen artzen gengozala, alako baten Txanton'en begikadea neure lepokoan untzatu zan.

—Arraioa! —ixil-mixilka agotik urten yakon— Lepoko orrek oso zikiña dirudi; zerezkoa izango ete-da? Izan be, nire dendan sartzen diran metal orreitariko itxurakoa ez dau emoten...

Jagi zan ba, ta eskuan ditziragarria ta zapiño bat ekarrezala, induneko zati bat garbitzen asi yatan. Alako baten, deadar bat iges egin yakon:


—Zidar-zidar bikaiñekoa da! Gaiñera maisu-lana dogu ainbeste iruditxuakaz...

Eta eskuak dar-dar, lepokoaren itxitura itsumustuka billatzen asi zan. Ulojio maiteak emondako gomutagarria galtzeko zorian nintzala oartzean, zauskada larri batek menperatu ninduan, eta Txanton'ek nire induneko itxituren eragiten eban une berean, teink bizi bat az, askatu, sapailora urten, eta emengo zuleri-arteko utsune batetik, kalera oldartu nintzan.

—Lagun, Lagun! —oiuka dei egin eustan— Erdu neugana, ez dautsut ezer egingo-ta. Zatoz beingoan...!

Baiña Ulojio'ren esku-erakutsi maitea ostu gura izan eusten etxera, ez nintzake edozelan be biurtuko, ta burua atzera zuzendu barik, erritik urrundu egin nintzan, lengo nire bizikera alderraiari barriro emoteko.

Izan be, Txanton ez zan inoiz nigaitik asko arduratu, baiña geienetan ondo jokatu izan eban, eta bat az beste, begiko egin izan yatan. Augaitik, urruntzen nintzala, uxatu ezin negikean atsekabe andia gogoan untzatatuta neroian. Diru-zalekeri madarikatua...!



Illuntzea zan erritik urten nintzanean, eta nora joan ez izanik, iraduz barik ibilli nintzan. Azkenez, illuntasun osoa zanean, menditxu bateko lertegi ederrera eldu nintzan, eta an izarren dizdir motel-pean, lerrostoko oatze bigunean loak artu ninduan.

Biamonean, lertegia eguzki betean agertu yatanean, ezin negikean burutik kendu, antxiña baten txakur-kumetxua baiño ez izanik, etxetik iges egitean zelango piñu-baso ederretan bizi izan nintzan. Orduan, aldi areitan jasandako bizikerea burura etorri yatan, eta ezustean gomutatu nintzan arratsalde baten azeria zelan sartu izan zan errekatxuaren uretan, bere burua ardiakan-dik jarei ikustearren.

Ain zuzen be, Txanton'en etxeko garbitasun urriagaitik, ardiak ugari ziran, eta aspaldian ardiz josita nengoan, Olan ba, azeriaren egiketa burura etorri yatanean, astirik galtzeke, erreka baten billa abiatu nintzan. Azkenez, billaturikoa idoro neban, eta bearrezko zotza musturrean tinkaturik, uretan sartu nintzan. Urak surreraiño eldu yatazanean, ardi-mordoa zotzean metatu zan, eta nasaitasunezko sentipenaz, zotza ta ardiak uretan beera urruntzen zirala ikusi nebazan.

Gose nintzan, baiña onek ez ninduan kezkatzen. Ba-nekian bide-gurutzetako ogiak arrapatzen, bai ta oillo mardoren bat be, bearrezkoa izatekotan. Olan ba, ta eguraldia ona zan ezkeror, —oraindiño uda zan-eta—, nire burujabetasunari egokion bizikera nasaiari emon neutsan.

Baiña egunen bidean ardura batek atzitu ninduan. Nik azaltzen ez nekian bultz batek gizasemeakana neroan, eta gaiñera beti bardin jan bear arek asetu izan ninduan. Okelaz apainduriko

azur bat irrikatzen neban, eta betiko ogia barrero jan bearreko gomutapenak, gogait eragiten eustan.

Egunak laburtzen yoiazan giñoan, ezin neban gizasemeakana erakarpena garaitu, ta nagusi on bat billatzea ebatzi neban. Orduan, goiko barrutiak itzi ta ibarretaraiño jatsi nintzan. Bein baten, aran bateko egian erri txiki bat ikusirik, andik ikerraldi bat egitea erabagi neban. Urreratu-ala, erritxua txukun eta atsegiña zala oartu nintzan. Berealakoan, goitik beera ta alde batetik bestera ikertu neban, baiña ez eustan iñork jaramonik egin. Erri aretatik alde egiten nebala, azkenengoa zan baratz batez inguraturiko etxetxu baten ondolik igaro nintzan. Etxaurrean olako iragarki au egoan: "Etxezuri".

Bide-ondoko atean olezko jarlekuan jesarrita, irurogetabost bat urteko gizona ikusi neban. Aurpegi atsegiñekoa zan, zeozer aspertutakoaren itxurea ba-eban be. Nekatuta zirudian, eta eskuak belaunen gaiñean jarririk, begiak utsari zuzenduta eukazan, urruneko amesetan murgildurik bai'litzan. Txapel batek ule zuriak estaltzen eutsazan, eta adabakiz josiriko soiñekoa erabilen.

Gizonari jara emoten neutsala, bere ondoan geratu nintzan. Alako baten, begiak nigan ezarrita, unetxu batez begiztatu ninduan, eta gero buruan laztan bat egin eustan. Urreratu nintzakion, eta, ankak bere belaunetan jarririk, eskuak miazkatu neutsazan. Orduan nire burua barrero laztanduz, auxe esan eustan:

—Ba-al-yakik gauza bat, Mutil? Benetan txakur begikoa aiz, eta tamala yoat etxean eu artu aal ez izatea. Begira, Mutil: etxe onetan niretzat ez yagok neuk gura ainbat janari, ta artuko ba'indut, barruko sorgin orreik itzelak esango lleuskidazek... Berrogei urtez ba-yaroadaz emazte ozpintsu baten agirakak jasaten; baiña jubilau nintzuanetik, iñoizkorik ozpintsuen... Neu nok gauza guztien errudun. Janariaren prezioa gora egiten yokanean, neu obendun, nire zaar-saria urria dok-eta... Or aurrean ikusten yokan baratz txiki orrek gutxi emoten ba'yok, neure alperkeriz izango dok. Erretiroa artu baiño ez, alperkeriak nitzaz jabetuko zoan atxakiz, Korneli'ren zerrategian lana idoro yeustan, eta olan bizitza onetan atsedeen artzeko erea eldu yatanean, barrero lan egin bear nik, gaixo onek...!

Gizonak antzi egin eban, eta unetxu batez isillik egon ondoren, bakarrizketeari jarraitu eustan:

—Illaren asikeran nire emazte Serapiñe bera, dagokidan zaar-saria artzeko daioak, eta onetik ez yoat ezkurrik be ikusten. Zapatuetan Korneli'ren zerrategitik naitokanean, azkenengo txiña bera be emon egin bear yautsoat, bestelan ai Martin gaisoa...!

Begiak urrutian galdurik, gizonak berbeteari eten egin eustan, eta gero burua barrero laztantzen eustala, autuari jarraitu eustan:

—Nire izena Martin dok, baiña errian Geldo ta Martin Kokolo ezizenakaz ezagutzen nayuek. Gazterik ezkondu nintzan, eta arrezkero nire Serapiñe'k, osasunerako txarra dala atxakiz, ez yaustak edontzi ardaorik edaten ez zigarrorik be erreten itzi. Eta nire alabak? Lore gazteena izan ezik, besteak amaren erretratoa dozak. Ezin yoat ainbeste gonadunen artean gauzarik egin...

Ona eldurik, Martin Kokolo isildu egin zan, eta aulki-gaiñeko jarrerea aldaturik, ariari jarraitu eustan:

—Gazte nintzuala, aitaren etxean begirune utsaz ez naiuan txistik be esaten, baiña sasoi elduko litxodakela nire buruari esaten neutsakan, eta orduan etxean jaun eta jabe izango nintzuake; baiña bai zera...!: otseintza batetik beste batera joan nintzuan. Serapiñe gozo, samur, politari, nok ezetz esan? Olan ba, ezkondu nintzuanetik ona, ez yoadaz oiñak ardanegi baten sartu, ez yoat zigarrorik ikusi, ta lagun guztiak galdu yoadaz. Orren ordaiñez gure abiatxua bear gaiuala-ta, eguneroko lana itzi baiño ez, neure eskuz jaso naiuan etxe au. Olan eta guzti be, seme-alabak etorri-rik, etxean nire benetako lekua artuko ñeukekala uste izan naiuan; baiña oker nengokan; iru alaba izan naiuazan, eta areitariko txikerrena izan ezik, besteak gero ta amaren itxurago...

Martin Kokolo'k olan ziarduala, etxe-barrutik andrazko baten oiuzpintsu aditu zan:

—Martin, ganorabako ori! Ni emen zuretzako aparria atontzen nagoala, zu or nasai-nasai arratsaldeko aize preskotan zagoz, ezeren ardura barik. Artu egidazuz piper batzuk, baita arin gero...!

Inka sakona egiñez, Martin Kokolo jagi egin zan, eta agindurikoa betetera yoiala. agopean iñoan:

—Domeka-arratsaldean be, sorgin orrek ez nau bakean itzi-ko...

Gero, piper batzuk artu ta etxean sartu zan. Orduko, illuna-barra zan, eta ni etxeko atadian geratu nintzan. Ez neban ortik barrero norabarik ibilli gura, ta gaiñera Martiñ'i erion ontasunak erakarten ninduan. Andik laster, emakumearen berbetea barrero aditu zan:

—Ez zaitez or geldo baten antzera egon. Jarri egizu maia!

Ozta-ozta illuntasun betea zala, iru neska bidetik etxera jatsi ziran. Ezpairik bage Martiñ'en iru alabak nebazan. Izan be, irurak politikak, gazteena batez be. Lenengo biek jaramonik egiten ez eustela, nire ondotik igaro ziran. Irugarrena, barriz, urreratu egin yatan, eta, irribarretsu begiratzen ninduala, laztan batzuk egin eustazan, eta etxean sartu zan.

Orduan, etxeko argiak iziotu egin ziran, eta, apaltzen eben bitartean, euren arteko autua eldu yatan.

—Aita, —Lore eritxon gazteenak esan eban—, or atadian txakur bat dago; norena ete-da?.

—Ez dakit. Baratzeko atakan nintzala, ondoan gelditu yat ete onaiño lagundu daust.

—Txakur oso polita da, aita; iñorena ez ba'litz, pozik artuko neuke gurean...

—Ze txakur eta txakur oste! —ebagi eutsan Serapiñe'k—. Ezetarako gauza ez dan txakur alpertzarra gurean artu ta janaritu? Bai zera...!

—Ama —Lore'k erantzun eutsan—, ondakiñak baiño ez dau tsaguz emongo, ta olan duan eukiko dogu. Gaiñera, aitari zerrate-girako bidetik lagunduko dautso, ta olan ez da ain bakarrik ibilliko.

—Etxe onetan ez dot txakurrik ikusi gura —erantzun eutsan amak—. Eta barruan sartzen ba'da, ardiak astinduko dautsadaz!

Martiñ'ek eta Lore'k, baiña, etxerako gura ninduen. Neu be, aita-alaba maite izaten asten nintzan. Olan ba, iruron arteko lokarria sendotzen yakula, etxe aretan geratu nintzan. Serapiñe'k ez eustan etxean sartzen izten, eta atetik baiño barrurago ez nintzan ausartzen. Alan eta guzti be, sorgin arek aal eban bakotxean

aurretik nerabilen. Ni neu ziur nintzan emakume arek betiko gorrotoa izango eustana.

Egunen bidean sendi aretako oiturak eta izakerak ikasi nebazan. Goiz guztietan Martin Kokolo ta biok, zazpi ta erdietan etxetik urten eta zortziretarako Korneli'ren zerrategira eltzen gintzazan. Eguerdian etxera bazkaltzera, ta ordu bietatik seiretaraño, Martiñ'ek Korneli'renean ziarduan barrero.

Nire ugazaba barria ez zan bultz andiko gizona, baiña iñurrien antzera eten barik lanari ekiten eutsan. Zerrategian benetan maite eben Martin Kokolo, ta agiri zan Korneli'ren areganako oneritxi ta begirunea. Martin Kokolo'ren ardurapean egoan, zerraturiko olak metatu ta enborren azal eta epaikiak kanpora ataratea. Lana amaiturik, eta, jakiña, nagusiaren baimenaz, Martiñ'ek egunoro epaiki zorro bete etxeko sutarako eroian. Olan ba, gizon zintzo onek etxera ekarren onurea ez zan edozelangoa, baiña zaarsariak, zerrategiko alogerak eta etxerako egur-mutxikiñak, ez eutsoen Serapiñe'ri poztasunik ekarten, eta beti mormoxetan ebillen naiz senar naiz alaben aurka.

Ez eusten etxe-barruan sartzen izten; baiña udea izanik, ate edegian zear, etxekoen joan-etorriak eta jatorduak begizatzen nebazan. Serapiñe maipurua zala, eskaretzeko mai-alderdi baten alaba zaarrak jarten ziran, eta bestean Lore ta Martin Kokolo. Serapiñe'k lenengo bere azpilla eguneko lapikokoaz eta oni egokiozan okela-zatiz bete oi eban. Gero, alaba zaarrenak eta guenez Lore ta Martiñ'enak. Azkenengo oni, atal urrien eta txarrena beti etorkion, eta sarri askotan, begi larriz gaiñez egoan emaztearen azpillari begiratzen eutsan.

—Martin —Serapiñe'k askotan iñotsan—, zuk begiak sabela baiño andiagoak. Bai, auzokoaren txala beti ederrena. Gaiñera badakizu osagilleak esanikoa; zure adiñera ezkerro, agoa zaindu egin bear dala, edozetariko gatxak uxatzeko batez be.

Baiña Lore'ri esker, Martin Kokolo'ri jatekoa geitzen yakon, arek gose es zala atxakiz, aitari geienetan berenetik emoten eutsan-eta. Gero, etxeko ortuan batutako sagar edo madariak banandu oi eutsezan.

—Madari oneik —Serapiñe'k sarritan esaten eban— ez dagoz ondo elduta. Jakiña, zu, Martin, alperkeri utsaz goiko adarretarai-

ño aalegintzen ez zaralako. Non dagoz atzo bertan ikusi nebazan madari gozo bellegi areik?

—Iñurriek jan dauskuez, Serapiñe —esan oi eutsan Martin Kokolo'k—. Gaur goiko adarretara igonda, iñurriek ondatuak ikusi dodaz...

—Bai zu iñurri ona, Martin. Ziur naz zeuk jan dozuzala. Begira, urrengoan madariak batukeran, txistuka jardungo dozu, ta txistuari eten egiten ba'dautsazu, erratzaz autsa astinduko dautsut...

—Baiña ama —Lore'k ebagiten eutsan—, aitagura dauana egin dagike, igalidun orreik berak landatu ebazan-eta. Iñok ez, berak aiña eskubiderik gura ainbat jateko. Eutsi, aita, nire mada-ria, ez dot loditu gura-ta...

Beste batzuetan, Korneli Jaunak lan-saria noiz geituko leuskion, izaten zan autua, edo-ta Martin baratzeko landarakaz ez zala bear ainbat arduratzen. Egia esateko, emaztearen mormoxetak Martin Kokolo'ri ez eutsoen ardura andirik emoten, ainbeste urtez bardin-bardiña entzuten eroian-eta.

Apal-ostean eguraldi ona izanik, atadiko aulki baten jesarritan, Martiñ'i gaueko izarren edertasunari begiratzea atsegin yakon. Sarri askotan laztantzen ninduala, auxe esan oi eustan:

—Ai, Mutil! Zelango atsegiñaz erreko ñeukek orain zigarrotxu bat, kea izarretaraiño yagiten dan bitartean. Askotan egadun biurturik, izarren artetik naiabikala ames egin yoat... baiña emen beean beti narraz ibilteko jaiok... Ba-al-yakik gauza bat, Mutil? Nire joerari jarraitu ba'ñeutsok, orain idazle izango nintzuake... bai, bazter eta jazoera zoragarriak liburuetan margoztuko ñeukezak...

Laster, baiña, Serapiñe'n garrasi batek izarretatik jatsierazoten eban:

—Baiña, Martin, ganorabako ori! Ez egon or alperkerietan, eta sartu egidazu eskaratzean zorro bete egur-mutxikin ori, biarko janaria atondu dagizudan.

Olan zirauan ba, Martin Kokolo'ren bizitzak. Lanera beti laguntzen neutsan, baita andik etxera be. Korneli'nean jarduten ebalan, aske nintzan eta an-emenka errian zear nenbillen, edo-ta

naiago izatekotan, zerrategian bertan txirlora-pillo baten gaiñean astia emoten neban, etxera biurtzeko ordurarte.

Geroian bizikeran gora-beera gutxi agertzen zan; baiña ezin dot aitatu barik itzi, Lore, erriko mutil bategaz zertu izan zala, ta jaiegunetako arratsaldeetan, aldamenetatik osteratxu bat egitearren urteten zirala. Geienetan eurakaz eroaten ninduen, eta izan be, orduan zoriontsua izaten nintzan. Mutilla benetan atsegin yatan, eta jolasteko, adarrak-eta bota oi ebazan atzera ekarri nengiozan. Bestetan, bideren baten ondoan jesarten ziran, eta burua laztantzen eusten.

Beiñola, bide bateko ertzean jesarrita egozala, Kepa eritxon mutillak, Lore'ri auxe esan eutsan:

—Tamala dot, zure aita atsedean artu bear eban garaietan, orren lanpeturik ikustea...

—Baita neuk be, Kepa. Baiña ezin dot amaren atzaparretatik atara. Etxean ez daust iñok laguntzen. Nire aitzak lagunduko ba'leuste... baiña areik ama bardiñak dira.

—Ba-dakit aitaren alde aalegintzen zarana. Zu, Lore, ona zara, nire biotzeko lora maite ori, ta aitaganako dozun jas orrek, maitagarriagoa egiten zaitu nire begien aurrean; baiña, ez alda bideren bat izango, aita joputasun orretatik atarateko?

—Ez dakit, Kepa. Aitaren alde aaleginduko naz etxeko besteai aurre egiñaz; baiña mirariren bat jazoten ez ba'da...

Olan jardun eben gazte biek luzaro samar. Etxera giñoazala, ezin negikean Lore'ren azken-itxok burutik kendu. "Mirariren bat jazoten ez ba'da..." Eta izan be, mirari ori jazo zan...

Arratsalde baten, lana amaituta, erriko urteeran gure etxerako bidea artzearren kale bakarrean gora giñoazala, ara non geuganantz etorren gizon bat gelditu zan, oiubizia botaten euskula:

—Martin, Martin, aspaldiko ori,...!

Nire ugazaba unetxu batez gelditu egin zan, eta bestea ezagutzean, beste deadar au urten yakon:

—Kaixo, Manu, nire betiko lagun maite ori...!

Eta bereala alkarri besarkatzen eutsoela, garai bateko egunak gogora ekarri ebezan.

—Nondik ator orain, ba —Manu'k itaundu eutsan—, zerrautsez orren beterik egoteko Martin?

—Zerrategitik.

—Zerrategitik? Baiña oraindiño be, lanean, Martin?

—Bai, ba —erantzun eutsan Martiñ'ek lotsatuta lez—; ba-yakik... etxeko sarrera urria biribiltzeko-ta...

—Ze arraio etxeko sarrera ta sarrera oste! Ez al-yok lan naitorik egin joandako urteotan, Martin, orain atsedean pizka bat artu ez dagikekan?

—Ba-yakik, Manu, gauzak beti gora ta nire zaar-saria beti geldi; etxean erabagi zuan lantxu bat az diru-sarrerea geitzea, ta emen naiabik...

—Zenbat orduz ekiten yautsak lantxu orri?

—Zortzi bat orduz.

—Zortzi yifnok? eta orri lantxu bat esaten yautsak? Baiña, Martin, zentzuna galdu yok, ala...?

Martin gorri-gorri eginda, begiak lurrean josi ebazan zer egin ez ekiala. Manu'k une batez atsekabeturik begiratu eutsan, eta alako baten, goi-atsaz eragiñik, beso bati eutsi ta urreneko ardandegira eroan eban, auxe iñotsola:

—Orra barrura gaiuazan, arazoari merezi yokan ardurea emoteko.

—Baiña ni ez nok sartzen leku orreitan. Ba-dozak berrogei urte ardaoa azkenengoz edan naiuala... ta gaiñera, Serapiñe'k ba'llekik...

—Ortxe yagok untzea, e? Etxeko atsoa... ator, ator neugaz, eta orri buruz aututxua izango yoagu.

Nai-ta-ez Manu'k sarrerazo egin eban, eta niri iñork dei egin ez, atean geratu nintzan, Martin eta Manu'gandik nire begiak kendu barik.

Ez neban aditzen euren arteko autua, baiña egiten ebezan kiñuakaitik gutxi gora-beera ba-neban zeozer ulertu. Txiribogiñak edontzi bete bi ardao atara eutsezan, eta Martin Kokolo isillik egoala, mai-gaiñean ukabilka, Manu'k lotu barik berba egiten eban. Gero, Manu'k beste edontzi bi ardao agindu ebazan, eta ukabilkeari eten egiteke, bakarriketeari jarraitu eutsan. Gauzak

bardin antzean ibilli ziran luzarotxu, baiña boskarren ardao-txandarako, arazoa aldatzen asi zan...

Nik ez dakit boskarren tximiñoak zelango bizitasuna ganbarara ekarriko leuskion; baiña ona eldurik, Martin Kokolo'k be mai-gaiñean ukabilka, berba lodiak botaten asi zan, begiai txinpartak eriezala. Gauzak gero ta biziago alkarri jarraitzen eutsoen, eta amargarren tximiñoagaz, berbetan ziarduan bakarra Martin Kokolo zan. Jakea sorbalda-gaiñean ipiñita eukan, eta joteneban ukabilkadakaz berantza laban egiten yakonean, ziñu guda-koiak sorbalda-gaiñean barrero jarten eban. Zorionez, amargarretik gorago ez ziran joan, eta azkenean ardandegitik urteneban ziran.

Kalean, arratsaldeko argipean nire ugazaba ikusi nebanean, arrituta geratu nintzan. Ago irmo, begi sutuak, eta soiñaren txairotasunak, itxura itzela emoteneban eutsoen. Ba-zirudian, antxiña erensugearen aurka abiatzeko zorian zan areitariko zalduna. Martin Kokolo baiño, Martin Senteilla emoteneban. Alkargandik aldendu baiño len, Martiñ'ek lagunari auxe esan eutsan:

—Nasaitu adi, Manu. Naiko ta lar nok munduko eragozpen guztiak garaitzeko.

—Entzuidak, Martin: etxean yaukokan atsoa ez dok edozelangoa. Ez itzi konponketea biariko; gaur bertoneban ekiok eta zezena adarretatik artuik, bestela jopu izango aiz betiko.

—Ni jopu...! Bai zera...! Bota eidazak munduko sorgin guztiak, eta ikusiko yok...!

Eta bular andituaren gaiñean, ukabilka asi zan, auxe iñoala:

—Nok gura dau Martiñ'egaz autsak batu?

Itxura erronkariatz ingurura begiratu eban, eta bere eupadeari erantzuten iñok ausartzen ez zala ikusirik, oiuka asi zan:

—Aupa, mutillak...! Gora geu ta geutarrak...!

—Ederto, Martin —Manu'k esan eutsan—; baiña gordeik ire indarra etxerako, ta ez makurtu atsoaren aurrean...

—Neu markutu? Bai zera...! Aupa mutillak, ijuuuuuuu!

Azkenez, lagun biek alkar besarkatu eben, eta Manu Bilbao'rako autobusa artzeko abiatzen zala (aspalditik emenebizi zana-eta), Martiñ'ek etxerako bidea artu eban.

Ez neuke inoiz be uste izan, gizaseme bat orren sakonki bes-telatu leitekeanik. Jakea sorbalda-gaiñean, txapela buruko atze-kaldean, eta begi ausartak aurrerantz zuzenduta, etxerako bidea artu eban, noizean bein geldi-uneak egiten ebazala. Orduan, anak lurrean tinko jarrita, jakea astintzen eban oiuka auxe inoala:

—Aupa, jubilauok...! Gora geu ta geutarrak...! Gora Etxezuri'ko Martin...!

Gero, jakea sorbaldan barrero jarriarik, ibillera errimez bidetari ekiten eutsan. Neu be, ugazabaren aldakuntzak kutsuturik, arro-arro bere ondoan niñean. Izan be, Martiñ'en kemena nitzaz jabetu izan zan, eta gerturik nengoan edonori usigi egiteko. Noizbait etxera eldu gintzazan.

Martin, unetxu batez baratzeko atakan gelditu zan. Prakk gora jaso, txapela egokitu, ta jakea sorbaldan barrero jarriarik, etxeko atadira abiatu zan. Ara eldu zanean, oiuka bota eban:

—Aupa, Etxezuri'ko Martin...! Gora geu ta geutarrak...! Bizi bediz jubilauak...!

Martin Kokolo'ren astrapala entzutean, Serapiñe urten zan eta garrasika auxe bota eutsan:

—Baiña Martin, genorabako ori! Burutik eginda zagoz ala? Zer esango dabe gure auzokoe, astrapala au entzutean?

—Txoriburu orreik esan dagiena esan dagiela, niri bost ardu-ra, uzkertioak...!

—Martin, isildu zaitez baiña...!

—Uzkerti alakuok, gurean jazoten danari beti usaiña artzen.

—Martin!!!

Ordurako, Martin emaztearen ondolik yoian eta unetxu batez gelditzen zala, auxe bota eutsan:

—Ze Martin eta Martin oste, papao ori! Atsoa besteren atsoa!

Eta soiña sutunduz, Serapiñe'k jarraitzen eutsala, etxean sartu zan. Oi nebanez, atean geratu nintzan, barruan jazoten zanari adi-adi.

Eskaratzera eldu baiño ez, Martin maipuruan jesarri zan, eta maiari ukabilkada itzela emoten eutsala, deadar egin eban:

—Arin, aparria ekarri egidazue!

—Martin —emazteak erantzun eutsan—, oraindiño ez dago gerturik baiña...

Au entzutean, Martiñ'ek ontziria zapart-erazotearaiño, maiari beste ukabilkada ikaragarri bat emon eutsan, auxe inoala:

—Ederto...! Martin Kokolo'k lan egiten eban bitartean, zu atsotzar ori auzoko ganorabakoakaz, ezta? Atara egidazu aparria aida baten, bestela...!

Au esanik, Martiñ'ek azpil bat artu ta aurreko ormearen aurka bota eban. Azpilla apurtu zaneko zaratea entzunda, Serapiñ'ek arrapalada baten aparria ekarri eutsan.

Oi lez, Lore'k maia bedeinkatu eban. Jarraian Serapiñe'k burduntzalia artu, ta bere azpilla kareleraiño bete egin eban. Bitartean, irribarreka, Martiñ'ek emaztearen egiketeari begiratzten eutsan, eta Serapiñe'k azpilla bere ondoan jarri ebanean, Martiñ'ek besoa luzaturik, azpilkadea kendu eutsan, eta jaten asi zan auxe inoala:

—Aurrerantzean, janariaren asikiña Martin Kokolo'rentzat, gure errialdeko etxeetan oi dan lez, eta au baten bati aztuten ba'yako, azpillak bere burura egaz egingo dabe. Entzun?

Danak isillik egozala, Martin jaten asi zan. Alako baten, apariari eten egiñik, auxe jaurti eban:

—Beste gauza bat. Oraindanik, guk jan bitartean, gure txakurra, ni nazan bere ugazabaren ondoan egongo da. Mutil, erdu ona...!

Tximistea baizen arin sukaldera oldartu ta ugazabaren ondoan jarri nintzan.

Aparria amaitu ondoren, eta eguraldi ona zanean oi eban lez, Martin bere aulkitxua atara ta atadian jesarri zan, izarren diz-dir motel-pean ames egiteko. Bere ondoan jarrita, itzalez beterik begiratzten neutsan. Axe bai zala benetako ugazaba...! Azpillak orman ler egin ebanean, Martin Kokolo ostendu ta bere lekuan gizandi bat, nik ames egiten neban ugazaba jaio izan zan.

Eta olan gauaren gentzapean gengoza, zorion bakana nitzaz jabetu zan, eta nire alaitasuna gorde eziñik, ugazabari aurpegia miazkatzen asi nintzakion.

—Mutil —esan eustan—, atsoari ez yautsoguzak makalak bota, eztok? ba-al-yakik gauza bat, Mutil? Ez yoat uste, gaurko beste pozik iñoiz egon nokan...

Olan ziarduala, Lore urreratu yakun. Aurpegia pozez gainezka ditziratzen yakola, Martin besarkutu egin eban.

—Aita, jakingo ba'zendu zein pozik nagoan...! Eutsi, aita, eutsi, ez amor egin. Azpilla ormaren aurka apurtu dozunean, gudea irabazikotzat daukat, baiña arren, aita, ez atzera egin!

—Nasaitu aite, Lore. Bear ainbat azpil apurtuko yonat, baita maia be bearrezkoa izatekotan.

Era onetan une luzetxu batez berbetan jardun eben. Noiz-bait etxean sartu ziranean, atea itxi baiño len ugazabak barrura dei egin eustan:

—Sartu adi, Mutil. Aurrerantzean barruan lo egingo yok

Eta ate-ondoan etzanda, gaua emoteko etxe-barruan lenen-goz geratu nintzan. Oera joateko azkena Serapiñe izan zan. Logelarako zurubian gora yoiala, Martiñ'en zurrungak aditzen ziran.

—Egin lo, bai, egin lo ganorabako orrek —agopean iñoan—; biar goizean kontuak garbituko doguz, eta gaurkoa egiteko ez dot uste beste iñoiz gogorik izango dozunik, arlote orrek...!

Itzok entzunik, biotzean korapillo bat eratu yatan, eta nire ugazaba, Martin Kokolo barriro biurtuko ete-zan bildurrak menperatu ninduan. Urrengo egunerako besterik ez arren, ganbaran tximiñoren bat geratuko ba'litzakio...

Azkenez, ameskeriz beteriko lo batek artu ninduan.

Biamonean, Serapiñe jagi zanean, isil-isillik eskillaran gora igon, eta lo-gelako atean geratu nintzan, zer jazoko zanaren begira.

—Martin, Martin! —oiuka asi yakon Serapiñe—, jagiteko ordua da, alpertzar ori. Zazpirak jo dabez, eta zerrategira belu elduko zara; ori baiño len orraitino, atzoko zure jokabide zakarra azaldu bear daustazu, ganorabako andi orrek...!

—Entzun egidazu bein betiko, atso gogaikarri orrek. Etxezuri'ko Martin bere gogoz jagiko da, ta ez zure aginduz.

—Martin!!!!

Au esanik, Serapiñe itxura zemaikorraz urreratu yakon, baiña ozta-ozta lenengo oinkada egiñik, Martiñ'ek jaurtiriko oiñe-

tako bat buru-gaiñetik igaro yakon, eta orman jo eban. Zer egin ez ekiala, Serapiñe gelditu egin zan, oi u urteten yakola:

—Martin!!!!

—Ze Martin eta Martin oste! —onek bota eutsan—. Oraintxe bertan emendik alde egiten ez ba'dozu. Bigarrena joango yatzu!

Au esanik, bigarren oiñetakoa eskuan arturik, Martiñ'ek botateko itxuran erabilli eban. Arrapalada baten Serapiñe gelatik urten eta tximistea lez, zurubian beera eskaratzean ostendu zan.

Zortzi ta erdietan-edo, patxada osoan Martin jagi ta oiko garbiketea egiñik, eskaratzera jatsi zan. Emen iñor ez egoala ikusirik, olantxe asi zan:

—Serapiñe, Serapiñe, zatoz ona, bestela...!

Baiña emaztea ez zan iñondik agertzen. Orduan, Martiñ'ek mai-gaiñean egoan katillu bat artu ta aurreko ormearen aurka jaurtirik, apurtu egin eban. Zarata itzela sortu zan, baiña ala ta guzti be emaztea agertu ez. Orduan, lora-irudiz margozturiko pitxar bat artuta, bardin egiteko gertatu zan. Pitxarra botateko erabilela, Serapiñe'k, une berean agerturik,

—Martin... Martintxu... mesedez ez...! —agots dardartsuz eskatu eutsan.

—Ondo, baiña atara egidazu gosaria arin be arin.

Serapiñe'k, eskaturikoa ekarri eutsan. Gosaria amaiturik, eskaratzetik urten baiño len, Martiñ'ek auxe esan eutsan:

—Biertik asita, gosaria kafeaz artuko dot, eta gaiñera ogizerrak erreko daustazuz, guriñaz jan dagidazan. Beste gauzatxuren bat be atonduko daustazu, esaterako, madari edo sagar egoiak, baiña oni buruz geroago jakiñerazoko dautsut.

—Ba... bai, Martin...

Gero, ugazabak dei egin eustan, eta ibillera irmoz errirantz abiatu gintzazan. Amarrak-edo izango ziran Korneli'nera eldu gintzazaneko. Amabietan lana itzirik, Martin eta biok etxerako bidea artu genduan. Ugazabaren ondoan niñoala, agiri zan beragan izandako aldakuntza. Izan be, oraingo nire ugazabak ez eban lengo Martin Kokolo lotsati, bildurtia, emoten. Ba-zirudian edozein soztorrari aurre egiteko gai zan gizon kementsu, bizkorra. Bidean gora giñoazala, ezpanetan irribarre bat agertu yakon.

—Begira, Mutil, belu izanik be, ordua dok bizitzea gure aukeran atondu yaiguan, eta orri gaur berton begiratuko yautsoguk.

Egun aretako bazkaria guztiz atsegiña izan zan. Martiñ'ek ez eban beste azpillarik apurtu bear, eta etxera eldu gintzazaneko, bazkaria gerturik egoan. Asikiña lez, Serapiñe'k azpilla gaiñez bete eutsan, eta Martin, etxejojaun bati zor yakon begirunea irabazten asi zan. Emazte ta alaba zaarren itxuretan, areganako lotsa, agiri zan eta Lore'ren begiak aitagan ezarten ziran bakotxean, arrotasunez bateten ziran.

Bazkaria amaitu zanean, Martiñ'ek etxejoai auxe esan eutsen:

—Nire arazoak atontzeko ordua dala uste dot, eta ona emen erabakiak. Ba-dakizue zaartzaroko ateetan nagoana, ta zentzune-koa da osasunari bear dan lez begiratzea. Augaitik, zerrategian goizean bakarrik lan egingo dot, eta gaiñera oetik nire aukeran jagiko naz, au da, osasunaren egoera zelan, alan. Arratsaldea neutretzat izango da, naiz egurasteko, naiz etxean egoteko, edo lagun artean emoteko. Zaar-sari osoa etxeko bearrianetarako izango da, ta Korneli'renean irabazitakotik, nire lagunarteko bizike-reari dagokiona gordeko dot, eta enparaua etxerako. Argi dago?.

—Bai, Martin —emazteak apal-apal esan eutsan—, zuzen zagoz. Gure adiñera ezkerero, osasunaz ez dogu jolasean ibilli bear....

Egia izango ete? Ba-zirudian Serapiñe'n begietan maitasun alako zerbait agertzen zala. Nire biotzean be, nagusiaganako maitasun barria oartzen neban. Izan be, ingurukoen maitasuna erakarteko biderik egokiena, norberaren duintasuna da.

Olan ba, Martin eta biok bizikera barria asi genduan. Goizean Martin iraduz barik jagi ta gosaria artuta, errira giñoazan. Korneli'ren zerrategian bizpairu orduz lan egiñik, etxera biurtu aurretik, nire ugazaba ardandegian sartzen zan, lagun artean edontzi ardo bi artzera, ta gero, astiro-astiro, bazkaltzera. Etxeko giroa maitekor eta atsegiña zan, bakotxak norberari egokion lekua gordeten ebala.

Arratsaldeak zoragarriak ziran. Lo-arin bat eginda, ugaza-

bak dei egiten eustan, eta biok alkarregaz mendiko zidorretatik gure aukeran genbiltzan.

Berak ez ba-ekian be, olerkari jatorra zan. Martiñ'en irudimen indartsuak ikusten eban guztia edertasunaz jantzi oi eban. Bero ba'zan, areitz edo lizar baten gerizpean etzaten zan, eta zeru urdiñean zear, iratxoak bai'liran aizeak eroanda igaroten ziran odeiak, begizatzen zituan.

—Begiraik, Mutil; ango odei arek gaztelu bat emoten yok, eta atzetiko bestea ba-yirudik, gazteluan katigu dokan bere biotzeko maitea askatzeko yatorkon zaldunarena...

Txori baten eresia arratsaldeko bakean aditzen ba'zan, orduan Martiñ'en gogo-eresiak iratzarten ziran, eta agopean, txoriaren txorrotxioa eten egiteko bildur bai'litzan-edo, auxe esaten eustan:

—Entzuik, Mutil, txindor orren eresia... Gomutatzen yok atzo ikusi geindukan mirua? Ortzian zear tximista lez agertu zoan, eta abia egiten yegoan txindorraren lagunagana oldarturik, erpeetan artu ta etorria baizen arin ostendu zoan, txori gaisoaren txio larriak azkenengoz aditzen zoazala... Orain, Mutil, txindor orrek galduriko lagunari dei egiten yautsok, abia amaitu barik yagok-eta; baiña galduriko laguna ez dok iñoiz etorriko, ta laster bakar-miñak ausiriko txindor orren eresia, eriotzean ostenduko dok...

Arratsaldeetako gure jardunak olan igaroten ziran. Bein baten, mendiko zidor batetik giñoazala, Martin ezustean gelditu zan, eta eskuak bularrean jarririk, berba etenaz, auxe esan eustan:

—Mutil, Mutil... aspalditxu onetan noizean bein... emen bularrean zeozer ez-oitua oartzen yoat... zer izango ete...? Batzuetan... gomutatzen al-yok bakar-miñez zaurituriko txindor arek, zelan abesten yeuan...? Askotan barrutik... txindorraren abestia langoa dokan zerbait entzuten yoat...

Baiña Martiñ'i ondoeza laster yoan yakon, eta bide-ertzean lorarik-lora egaz yoian mitxeleta batek, bere arreta irabazi eban.

Arrezkerero, ondoezak gerò ta ugariagoak etorkiozan. Martiñ'ek ez eutsen jaramonik egiten, baiña barrutik bildur bakan larria yabildan.

Udagoia eldu zan, eta aro onek gure aberrian jarten dauan

margoen edertasunak, nire ugazabari eder-min barriak emoten eutsazan. Ba-zirudian, ego-aizearen erakarpen sorgingarriak bere osasunari indar barriak ekartozala. Neure barruan be, igarotako larrialdiak ezabatzen yoiakidazan...

Azilla'n sartu gintzazan, eta noizbait Martin Deunaren eguna urreratu yakun. Jai au garrantzi andikoa zan, erriko menditxu baten santu orren gomutagarritzat, bazeliza bat antxiñatik jaso izan zalako. Au dala-ta, erriko zaindaria izanik, etxe guztietan jai ori ospatzen zan. Neska-mutillek oi eben baselizara oiñez joatea, ta meza-osteko aureskua amaiturik, inguruko landa ederrean, bazkari alai-alai egiten zan.

Ekandu oni jarraituz, Lore'k eta Kepa'k erromeriara goizetik joatea arabagi eben, eta garrantzitsua zana, neu be eurakaz joango nintzala.

Ego-aizeko egun ederra agertu zan, eta zorionez gaiñezka, Lore, Kepa ta irurok mendian gora abiatu gintzazan. Kepak, bizkar-zorroan janari-edariak eroiazan, eta alaitasun utsaz bien inguruan or-emenka nenbillen. Bidea ikusgai ederren artean yoian, eta uda-ondarrak zugatz eta mendiai margo-aintza urrezta-tua emoten eutsen.

Ordu bi gutxi gora-beera igarorik, baselizara eldu gintzazan, eta meza entzuteko garaia izanik, Lore ta Kepa baselizan sartu ziran, eta nik inguruetatik osteratxu bat egitea erabagi neban. Alako baten, ezaguturiko berbots batek zur eta lur itzi ninduan. Izango ete...? Jakin-miñez eraginda, inñarradi baten atzetik urreratu nintzan, eta... bera ikusi neban.

Bai, Txanton ber-bera zan. Bide ertzean jesarrita, agots ijimajatsuz eta besoak zabal-zabal eginda, betaurreko baltzez estaliriko aurpegia bidaztai zuzendurik, bere itsutasunaren alde laguntza eskatzen eutsen, auxe inñotsela:

—Jaungoikoak emon dagizuela eguzkiaren argia beti ikusteko grazia, anai maiteok... Zuek ez dakizue amaibako gau baten bizi bear izatea zer dan... Obe eriotza, baiña Jaunaren guraria ni bizirik irautea dan ezkerro, erruki zakidaze ta lagundu egidazue. Olan ba, Martin gure santuak egunen baten Betiko Argian sartzeko zoriona emon dagizuen...

Une aretan, neskatil-talde ederra bidean gora yoiala ikusirik, olantxe asi yaken:

—Ai, neure biotz maitetxuok. Nok ikusmena izan, zuen edertasun paregabea ta agertzen dozuen aingeru-irribarrea ikusteko...! Usotxu maitagarriok, erruki zakidaze... Ai, beti illunpetan bizi bear au! Agur, Maria, graziz betea...

Unetxu laburraz, gurari bizi batek Txanton'gana eragin ninduan; baiña alde batetik bere antzerki-lana ez etentzeak, eta besetik indunekoa kendu gura eustanaren gomutapenak, beragana joaten galerazo egin eustan.

Luzaro samar leku berean iraun neban, oroimenean, igarotako aldiak nerabillezala. Azkenez, zauskada gazi-gozo-pean alde egin neban.

Bazkaldu ondoren, triki-trixa ta txistuaren soiñuz erromeria asi zan. Lore'k eta Kepa'k dantzan ziarduela, astiro-astiro dantza-taldeen artetik osteratxu bat egin neban. Inguraketa amaitzeko zorian zala, emakume panderetari baten trebetasunak erakarri ninduan. Panderetea jo bitartean, agots sarkor atsegiñaz abesten eban; baiña nik aren atzamar arin eta malguak baiño, ez neban besterik ikusten, panderetatik ganoraz beterik irrist egiten ebela.

Bere eskuen maisutasuna luzaro samar ederretsi ondoren, aurpegiari begiratu neutsan eta... nor eta Pantxike prestua, Txanton'en maitatzaille zintzoa...! Zauskada batek atzituta, antxe bertan iraun neban luzaro, nire buruari emakume aren ereslartzaren zergaitia itauntzen neutsala. Azkenean, aspaldiko gomutapenak burura etorkidazala, andik alde egin neban, biotz-biotzez Pantxike'ri guztitariko zorionak opa neutsazala.

Etixerako bidea luzea zala-ta, erromes geienek abiamenak egin ebezan illundu baiño len etxera eltzeño. Lore ta Kepa be, janari-ondakiñez askarixua egin ondoren, etxerantz bideratu ziran erromes askoren santzo ta txistu-soiñuen artean. Ozta-ozta abiatu, sasi batzuen ondolik niñoala, autu baten herbak geldierazo ninduen. Sasitik beste aldean, gaztai baten ondakiñak jaten ebazala, Txanton'ek eta Pantxike'k euren askarixuari ekiten eutsen.

—Pantxike —Txanton'ek iñoan—, niretzat gaur ez da egun makala izan. Diruketa andia batu dot.

—Neuri be, gauzak ez yataz txarto joan, Txanton. Jendea gaur oso emonkorra izan da.

—Ori, Pantxike, ez da arritzekoa —esan eutsan Txanton'ek, maitekiro begiratzan ebala—. Askori entzut dautsat, benetako panderatari zarana, ta abesten zuk aiña gutxi aurkitu leitekezala. Ba-al-dakizu gauza bat Pantxike?

—Zer, Txanton?

—Neure bizitzan zear arazo onak egin dodaz, baiña ain zuzen be, onena zu emaztetzat artzea izan da.

Pantxike'ri aurpegi polita gorritu egin yakon, eta maitasunez gaiñezka senarrari begiratzuz, biotzetik olako oiua urten yakon:

—Txanton...!

—Egia da, Pantxiketxu. Zeu barik ez dakit zelan bizi izango nintzake...

Biak isildu ziran, alkarganako maitasun bizi baten menpe. Andik laster, Pantxike'k agots dardartsuz, senarrari auxe esan eutsan:

—Ba-al-dakizu gauza bat Txanton...?

—Zer, Pantxike?

—Azkenengo egunotan konturatu naz —gorri-gorri eginda ta begiak lurrean josirik, Pantxike esaten ausartu zan— azur barrietan nagoala...

—Zer?

Au esanik, Txanton jagi zan eta besarkatu egin eban, auxe iñotscla:

—Nire biotzeko Pantxiketxu...! Munduko gizonik zorionsuena egiten nozu. Begira, maitea... aurrerantzean pandereta joteari uko egin bear izango dautsazu. Zu zaukat garrantzitsuena...

—Eta zu, Txanton, zergaitik ez dautsazu itsu egiteari izten?. Orrek ez dautso gure semeari duintasunik emongo.

Une batez, Txanton gogoetan egon zan, eta azkenez, bere buruagazko burrukea amaiturik, auxe esan eutsan:

—Begira, Pantxike, ziñez diñotzut: gure semea jaio ezkerro, ez dot itsuarenik egingo.

Izan be, asko maite bear ebazan Txanton'ek emaztea ta etorteko zan semea, alako eskintza egiteko. Pantxike'k, pozaren pozez, Txanton besarkatu egin eban.

Andik laster jagi ziran, eta euren gauzak baturik, joateko gertatzen ziranean, Pantxike'k auxe esan eban:

—Txanton, gaur goizean zuk izandako txakurra... zelan eritxon txakur ari...? A bai!, Lagun, jendetzaren artean egoala iruditatu yat.

—Ez uste ber-bera izango zanik. Bere itxurako txakur asko dago bazterretan. Antzekoa batez be; adimenaz bera lango txakurrik aurkitzea oso gatx ba-da be. Bene-benetan tamal andia dot Lagun galdu izateagaitik. Zidarrezko induneko ederra kendu gura izan neutsan, eta orduan berak iges egin eustan. Atsekabe itzela izan neban, Pantxike. Orain bera ala indunekoa aukeratu bear izango ba'neu, bera artuko neuke. Beranduegi da baiña...

Au esanda antzi luzea bota eban. Gero, emazteari esan eutsan:

—Zelango lagun zintzoa gure semetxuarentzat, Pantxike!. Gure semetxua...!

Orduan, gogoan sustraituta eukan bertsoarako zaletasunak eraginda, olantxe asi zan:

Pantxike emazte kutuna
nire bake ta atsedena
zu zaitut itxaropena
ta betiko maitasuna.
Bizitzaren betetasuna
zeure-neurea dan sorpena
semetxu baten bizipena
ori da sentitzen dozuna
Zeruaren anditasuna...

Une aretan, urrundik, Kepa'ren txistu-dei sarkorra eldu yatan. Aalbait ariñen alde egin neban, eta ordu bitako bidea egiñik, etxera eldu gintzazan. Gau aretan ezin izan neban Txanton burutik kendu. Berak oraindiño maite ninduanaren sentipenak zorion andi-andia ekarri eustan.

Undagoiko egun urrezatuak amaitzeko ziran, eta bizitasu-

na galduriko zabaldiak, neguko mosu illuna urreratzean, itxura ituna erakusan. Bein baten, erriko zerrategian lana amaituta, etxerantz gentozala, ezustean Martin gelditu egin zan, eta eskuak bularrera eroiezala, berba larriakaz auxe esan eustan:

—Mutil, joan adi etxera arin... eta lenbailen nire billa etorteko esan egiek etxeokoi, ilten sentitzen nok-eta... Mutil, joan adi arin...

Au esanik, belaunak uts egin yakozan, eta erdi jesarrita erdi etzanda, bide-ertzean geratu zan. Tximistea baizen arin, Etxezuri'ra abiatu nintzan, eta ona elduta, Lore'ri gonatik arturik, teink egin neutsan kanpora urtenezoz.

Baratz-atakatik, aita lurrean ikusi eban, eta oi u bizietan etxeke ta auzokoi dei egiñik, aalik ariñen guztiak Martin'ganantz oldartu gintzazan. Ara orduko, Martin konorte barik egoan, eta guztien artean etxera eroan eban.

Andik laster, osagille ta abadea etorri ziran. Osagillea urten zanean, atakan Lore'k geldierazo eban, eta,

—Zelan dago? —itaundu eutsan.

—Txarto, Lore. Kementsua izan zaitez... aita gutxirako daukazu-ta.

Negar mingotsari emoten eutsala, Lore etxean sartu zan. Arratsalde ta gau aretan etenbako joan-etorriak izan ziran, baiña dana alperrik. Goizaldean, Martin il egin zan.

Erriko obitegi txikian lurperatu eban. Erritar guztiak an ziran, baita urrengo eguneko elizkizunetara be. Gero, Serapiñe ta iru alabak naigabez beterik etxera biurtu ziran, eta emen euren atsekabeari emon eutsoen. Serapiñen'n oraingo oiñazeak benetako zirudian, eta nire ustez, barruko ar bat artegatasunaren eragillea zan. Negar etsi ta isilpean, senarraren ontasunaz bateriko jokabidea aurkeztuko yakon, urrean, baita ain eskerga izandako areganako erantzun latz eta berekoia. Berandu zan, eta orregaitik, antza, Serapiñe'n naigabeak ez eban arintzerik idoroten.

Alabak be, oiñaze sakonak iñarrosita egozan. Oneitariko bi zaarrenak ez eban aita bati zor yakon begirunea gorde izan, eta amaren arrenkura ber-berak kezkatzen ebazan. Orain, aitaren galtzai mingarriaz oartzan ziran, baiña beranduegi. Aitaren kutuna izandako Lore, atsekabetuena zan.

Neu be oiñaze bizipean atadian etzanda nengoan. Oroime-netik, nik ain bizi-bizi maite izandakoak igaro yatazan. Zegaitik ete? Zegaitik banan-banan nire biotzeko maite-maiteak mundu onetatik joanak ziran? Luzerotxu... Ulojio... Martin... Obe litzakidan, urrean, iñor maite ez izatea. Olan beintzat, ez neuke beste atsekaberik jasan bear. Iru ugazaba areik, biotzetik iñoiz kenduko ez yatazan iru zauri aztugatxak itzi izan eustezan. Orain azkenengo ugazaba on, lagun zintzo, gizon mazal, olerkari bikaiña, maite izaten eta ezagutzen asten nintzanean, eriotzak barriro kentzen eustan...

Nik ez neban beste maitasunik galdu nai. Obe iñor eta ezer maite izan barik munduan zear joan. Baiña bizitzan gaindi ezer eta iñor maite izateke, zelan joan neintekean?

Gogapen itun oneitan nengoala, Lore etxetik urten eta neure ondoan jesarri zan. Aurpegi politari negar-arpuluak eriozala, besarkatu egin ninduan.

—Mutil, Mutil —negar etsiaz esan eustan—, ez yoagu aita barriro ikusiko. Bai benetan maite naiuala! Nire bizitzan, ezek arindu aal ez yaustakan naigabe sakona sortu dok. Etxekoek ez yoagu berak merezi yeuan baizen zoriontsua egin. Aita maite gaisoa... bizitza onetan zorion apur bat idoroten zenduan une berean, joan gaiatzuz...

Gero, begiak neuretan jarrita, auxe esan eustan:

—Ire begiotan, Mutil, agiri dok menperatzen auan naigabea; baiña ik egunen baten beste nagusi bat idoroko yok. Nik, ostera, aitaren utsunea ez yauat iñoiz bete aal izango.

Negarrari itzi barik, isildu zan. Lore maitagarriaren naigabea ikustean, burua altzoaren gaiñean ipiñi neutsan, eta Lore'k burua laztantzen eustala, biok isil-isillik iraun genduan.

Nire ugazaba zanaren laguntasuna barik, egunen jarraigoa aspergarria yatan, eta nitzaz iñor arduratzen ez zan ezkerro, goizetik gaberarte or-emenka galduta nenbillen. Len Martiñ'egaz ibilkaturiko mendi-zidorrak, barriro ikustea gogokoen yatan; eta andik nenbillela, bere esanak barriz entzuten neutsazala uste izaten neban. Gabean Lore etxera eltzen zanean, oiko laztanak egiten eustazan, eta berari eskerrak naigabea arindu egiten yatan.

Jazoera batek, baiña, neroian bizikerea bestelatu egin eus-

tan. Negu aretako egun eguzkitsu baten, Lore ezkondu zan. Asikeran ez nintzan konturatu arazo onek ekarriko leuskidan ondorea; baiña ezkontzeguna urreratzen zala, kezka bizi batek menperatzen ninduan. Kepa ta Lore, bizi izatera, Bilbao'ra joateko ziran... Zer jazoko litzakit orduan?

Eguna eldurik, erriko elizan arratsaldean ezkondu ziran, eta jarraian Etkezuri'n bertan, etxeko senide ta ezagun batzuk, bazkal-aparia ospatu eben. Illuntzean, Lore'k eta Kepa'k, etxetik urtenda, atakan egoan berebilla artu eben. Joan aurretik, Lore'k laztan batzuk egin eustazan, inostala:

—Agur, Mutil, ez larritu; noizean bein etorriko gaiatzuz.

Nik, baiña, ezin negikean barruko larritasuna uxatu, ta berebilla abiatu zanean, atzetik oldartu nintzakion. Jarraipenari, baiña, laster itzi bear izan neutsan, eta guztiz nekatuta, larritasun andi baten menpe, etxera biurtu nintzan.

Gau aretan bertan, Serapiñe'k etxetik kanpora bota ninduan, eta atadiko antxiñako lekuan lo egin bear izan neban. Arrezkero, ez ninduen etxean sartzen itzi ezta jatekorik emon be, ta aal eben era guztietan jakiñerazoten eusten, ez ninduela maite. Janaria, beraz, errian idoro bear izaten neban, eta ez nintzan Etkezuri'ra etortzen lo egiteko baiño.

Goizalde baten, eguzki negutiar baten lenengo izpiek iratzarri ninduen; eta aspaldiko dei ezkutu arek eraginda, maite ez ninduen etxe aretatik betiko alde egitea erabagi neban.

Olan ba, ain ondo ezagutzen neban bizikera alderraiari barrero emon neutsan. Urrundik, lertegiz estalduriko mendi batzuek dei egiten eusten, eta beste barik areitarantz bideratu nintzan.



Barruko dei ezkutu arek, norbaiten maitasun-billa neroan; baiña beste aldetik nik maite izandako illen oroimiñak, bakarrik irauteko eragiten ninduan, eta olan ba, aspaldi batez neure buruaren jabe izatea aukeratu neban.

Basoetako bizikereari barriro emon neutsan, eta areitan ezkutatu nintzan. Negua ba-zan be, egun eguzkitsuetan benetako aintza zan basoko bakea, ta or-emenka askatasunaren irrikan ebillen txoriren baten txorro-txioek entzutea. Janariak ez eustan ardura andirik emoten, bide-gurutzetan eta baserri-inguruetan, zenbat gura ogi ta oillo arrapatzeko gai nintzan-eta. Alan eta guzti be, ez nintzan benetako zoriontsu. Zerbaitek uts egiten eustan...

Zugatze orri guztiak galdu ebezanean, eguraldia osoro zakartu zan. Ipar-baltza putz egiten asi zan, eta gero sartalderantz bira egiñik, aize indartsuaz batera euri-erauntsiak etorri ziran. Zugatz baten aizalpean jarririk, egun batzuk iraun nebazan, eta noizbait euri-jasa baretu zanean, ibarrera jatsi nintzan.

Gutziz makal nengoan, eta gose gorriaren menpe, ikusi neban basetxe bakarti baterantz abiatu nintzan.

Basetxeko atadian, amabitsu oillok lurean erpeka, janari-billa ziarduen. Bide-ertzeko sasi baten pean urreratu nintzakien, eta aukerako unean, eraso egin neutsen. Garai aretan, baiña, ulergatxa ba'da be, uts egin neban. Izan be, makaltasuna bide zalado, aukeraturiko oilloa ezin izan neban arrapatu, ta arein atzetik une luze samar ibilli nintzakien. Bitartean, oillo-talde karakatsuak astrapala itzela egiten eban, eta, alako baten, leio batetik baserri-

tar baten irudia agertu zan. Goseak itsu eginda, ez neutsan eizeari uko egin, eta azkenean oillo bat agiñen artean atzituta, aalik ariñen urrundu nintzan. Sasiaren aterpea lortzeko zorian nintzala baiña, eztanda bat aditu zan, eta sastada baten erremiña oartzen nebala, igesari aalik ariñen emon neutsan. Izan be, zauriaren erremiña laster joan yatan, eta azkenez, basoko bazter baten oilloa iruntsi neban.

Urrengo egunean, baiña, saietseko erremiña barriri asi yatan, eta sukar batek menperatu ninduan. Gaiñera, euria barriri asi zan. Aterpe bat nai-ta-ez bear izaten neban, bestela nireak egingo leukean.

Baso aretatik urten, eta beste baten sartu nintzan, sukarrak egindako begi ditziratsuz bazter guztiak arakatzen nebazala. Egun guztia olan iraunik, illuntze margula asi zan. Alako baten, zauskada andiak artu ninduan. Lenago toki aretan egon izanaren gomutapen bizia...

Bai, aspaldiko laiño-artean ba-nenkusan leku aretatik urrun ez egoan are-arri baten gordeleku epel eta legorra. Orduan arakatze zeatz bati emon neutsan...

Ain zuzen be, ez nengoan oker. Noizbait, illuntasun oso batek basoa estaltzen ebala, are-arriaren azpiko aterpe epela idoro neban. Antxiña baten neuk itziriko lez egoan, eta inguruko lizarretatik jausitako orbelek, oe biguna eskintzen eusten.

Azkenetan eta sukarraren dar-dar biziaren menpe, ezkutune eroso aretan kukurio jarri nintzan. Gau osoan, ekatxaren tximist eta iñusturiek, etenbage alkarri jarraitu eutsoen.

Egusentirako ameskeri batek atzitu ninduan, nire bizitzako jazoera-zatiak etorkidazala. Ez dakit egoera larri onetan zein luzaro iraun nebanik, baiña noizbait nire buruaren jabe iratzarri nintzan.

Ezkutunetik, basoa argi motel-pean agertu yatan, eta laster igarri neban illunabarra zala. Orduko, euria atertu izan zan, baiña izarren ditzira ez zan ikusten. Basoa isillik egoan, eta bake aretan deadar ezkutua barriri dei egiten eustala iruditu yatan. Makaltasun eta goseagaitik narrazka, are-arriko gordelekutik urten, eta ezin bestean mendian beera abiatu nintzan.

Oinkada batzuk ozta-ozta egiñik, edurra asi zan. Ez lodia,

autsa-itxurakoa baiño, ta otz-otza. Argi ikusten neban ezin neintekana iñora joan. Ezkutunera barriri biurturik, etzanda jarri nintzan.

Bizitzarako jorana joan izan yatan, eta itxaropena galdurik, begiak azkenengo loan murgiltzeko izten nebazala, orduantxe ikusi neban.

Ezkutuneko txoko batetik, txinpartak bai'liran, begi bik ikustatzen ninduen. Noizik bein ezabatzen ziran, berealakoan agertzeko. Alako baten, makaltasunak motelduriko zentzuketaraiño, katamixar baten usaiña eldu yatan. Txoko aretan, antza, katamixar arek neguko lotokia eban, eta nire urretasunak iratzarrita, lurrean eban ezkutunetik urten izan zan, eta orain aurrez-aurre ikusguraz jabeturik begizatzen ninduan.

Zauskada batek menperatuta, nire iraupena aberetxu aregan egoala oartu nintzan. Katamixarra arrapatzeko, baiña, zuur jokatu bear neban. Nigan ezusteko igikunaren bat ikustekotan, tximistea lez zuloan ezkutatuko litzakean, eta orduan ezin arrapatu.

Olan ba, geldi-geldi eraso egiteko gertatu nintzan. Nigan-dik erion berotasunak erakarrita, antza, astiro-astiro urreratzen yatan. Alako baten, tximistak eraginda lez eraso neutsan, eta lepotik atzituta astindu neban.

Lepo-azurra ausirik, beingoan il zan. Itsua lez aida baten iruntsi neban, eta gosea zerbait bareturik, loak artu ninduan.

Iratzarri nintzanean, egun-argia zulotik parrastaka sartzen zan. Orduan, aurregunean oarturiko dei ezkutu arek ostera menperaturik, zulotik urten egin nintzan. Aurreko gabean jausitako edurra urtu egin izan zan, eta mendian gora bideratu nintzan. Ezin arin joan, makal aurkitzen nintzan-eta; baiña geldi-aldi ugarriak egiten nebazala, iparreko zuzenbideari ekin neutsan.

Illunabarrean edurra osterasi asi zan, eta guztiz indargeturik, piñu baten ondoan jarri nintzan. Otz itzelak aginkatzen ninduan, baiña aal neban eran ibilteari ekin neutsan.

Bidaldi zoro aretan, ez dakit zein luzaro iraungo neban, baiña alako baten, edurrezko zurrunbilloen artean, Luzerotxu'k itz egiten eustala iruditu yatan.

—Gal, Galtxu maitea, aurrera...

—Ezin, baiña, Luzerotxu. Begira: eguzkiaren bideari jarrai-

tuz, aberrira joateko esan zeustan bein. Aberrian nozu, baiña iñoizkorik zoribakoen... Eroan nagizu zurekin izarretara, Luzerotxu...

—Eziñezkoa yatak, Galtxu. Orixe eskatu yeustakan, nire obia azkenengoz ikertu yeuanean.

—Bakar-bakarrrik eta guztiz makal aurkitzen naz, Luzerotxu. Itzi nagizu edozein txokotan, betiko loak artu nagian...

—Begiraik, Gal: tokiren baten izar bat ire begira yagok. Oa aurrerantz eta idoroko yok. Agur, Galtxu, ekiok iparreko bideari...

Edur-zurrunbillo batek, Luzerotxu'ren irudi maitagarria eroan eustan, eta indarren mugan otzez dar-dar, iñoizkorik naigabetuen aurkitu nintzan. Luzerotxu'ren azken berbak entzumenera barriz eldu yatazan... "ekiok iparreko bideari"... Eta iparreko bideari ekin neutsan.

Nekaldi aretan ez dakit zein luzaro iraun neban, baiña noizbait bideko aldatz-gora amaitu zan, eta aal neban neurrian mendian beera asi nintzan.

Alako baten, basoa amaitu izan zala, edurrez estalduriko zabaldia aurkeztu yatan. Laiño lodi bat danaz jabetzen zan, eta nora ez nekiala, iparraldeko zuzenbideari ekin neutsan ostera. Banekian ezin nengikeala luzaro iraun.

Ustebage, aize-putz batek laiñoa sakabanatu egin eban... eta izarra agertu yatan. Ez egoan nigandik urrun; baiña makaltasun utsaz, erdi narrazka urreratu nintzakion. Andik laster, konturatu nintzan etxaurre bateko argi-mutilla zala.

Aal neban lez etxe aretara eldu, ta konortea galduta, atadiko txoko baten amildu nintzan.

Ordu batzuk igaro izan ziran, urrean, iratzarri nintzanean egunsentia zan-eta. Nire ondoan belauniko, amabi bat urteko neskatok batek burua ta lepoa laztantzen eustazan. Begiak zabaltzen nebazala ikusirik, oiubat urten yakon, auxe iñoala:

—Bizirik dago, bizirik dago...!

Arrapalada baten etxean sartu, ta eskuan katillu bete esne ekarrela, berealakoan agertu zan. Goseak eraginda oldartu nintzakion, eta ez neutsan edateari eten egin, dana garbitu arte. Orduan, neskatok auxe esan eustan:

—Nondik ator, txakur gaiso ori?

Esneak indarturik, neskatillea begiztatu neban. Oso polita zan, eta bere soin txairoak alako malgutasuna iragarten eban. Aregan nabarmenena, begi andien edertasuna zan, eta edozelan be, Luzerotxu'renak gogora ekarten eustazan.

Neskatoa izango ete, aurregunean amesetan Luzerotxu'k niri aginduriko izarra?

Andik bi egunetara indarrak irabazita, betikoa nintzan. Orduan, neskatillearen aitak, auxe esan eutsan:

—Begira, Neretxu, txakurra onezkero sendotu da, ta etxetik joan egin bear dau...

—Ez, aita; gorde dagigun guretzako. Ziur naz, ez dala txakur onezaz iñor arduratzen. Gorde dagigun, aitatzu...

—Ez, Neretxu maitea; gogoratu "Lau" gure lengo txakurrari zer jazo yakon. Il zanean, egundoko atsekabea artu genduan. Arrezkero, beste txakurrik ez izatea, nire buruari zin egin dautsat.

—Baiña, aitatzu, txakur au Jaungoikoak bialdu dausku...

Aita irribarrez joan zan. Zer esanik ez, andik laster amaren laguntzaz Neretxu'k arazoa bere aukeran atondu ebala, eta "Izarra" eritxon etxe txukun aretan sendi maitagarri aren ardurak inguraturik, betiko geratu nintzan.

Noizbait, nire izenaren arazoa sortu zan. Aste bat-edo igarorik, aitak Neretxu'ri auxe esan eutsan:

—Ba-dira egun batzuk txakurra geugaz dagoala, ta oraindiño ez dautsagu izenik emon. Zein daritxazu ondoen, Neretxu?

Une batez, neskatok arazoa gogan erabilli eban, eta alako baten auxe esan eutsan:

—Begira, aitatzu; ziur naz txakur au munduan zear beti galdurik ibilli dala, baita gurera be galduta etorri yakula. Zer deritxazu GALDU izena?

—Ezin obeagorik, Neretxu. Aurrerantzean "Galdu" esango dautsagu.

Noizbait benetako izena ba-neban, baita bizileku ederra ta sendi on baten maitasuna be. Niketz, etxekoen alde aal nebana egiten neban, eta Neretxu'ren jagolea biurtu nintzan.

Egunoro, ikastolaraiño laguntzen neutsan, eta ikastaldia amaituta, bere urteeraren zai egoten nintzan. Gero, biok poz-pozik "Izarra" rantz bideratzen gintzazan. Ekintza onek etxekoai nasai-

tasun andia ekarri eutsen, eta guztiek gero ta geiago maite ninduen, baita neuk be eurak.

Orain, egunak atsegiñez beterik alkarri darraikioe. Sarri askotan, igarotako gora-beerak gogora datorkidaz eta izandako nagusiak amesetan aurkezten yataz...

"Izarra" tik, Mungialde aran zabal ederra ikusten da, baita mugatzen daben mendiak be. Ara Sollube, Jata, Berriaga, Unbe, Munarrikolanda ta abar... Eta gero nire jaioterria... An mendiko egian nik itzitako lez Errupin'en etxea dakust. Emen asi ziran nire ezbear guztiak, osaba Nixio'ren esanetara jarraituz, mutillak buztana moztu gura izan eustan egun berean...

Bai, sarri askotan osaba-lobak ikusten dodaz. Beti izan oi da ames bardiña. Goizean goiz, egunsentiko lenengo argiz batera, osaba Nixio ta Errupin etxetik urteten dira. Osaba Nixio'k buruan egal andiko kapelea ta eskuan kaiñaberazko makillea darabiz. Errupin'ek, ostera, arazorako bearrezkoa yakon aizkorea. Etxerik-etxe doaz, txakur guztiai buztana mozteko.

Etxe batera eldurik, txakurra ekarten dautse, ta buztana mukur baten gainean jarririk, osaba Nixio'k makilleaz zein azurgiltzen artean jo bear dauan jakiñerazoten dautso lobeari. Jarraian, Errupin'ek aizkorakada indartsu batatz, txakurrari buztana ebagiten dautso. Eta olan illuntzerarte jarraitzen dabe. Orduan, etxera biurtzeko gertatzen dira, baiña...

Lenengo oinkadak ozta-ozta egiñik, zaunka bizietan atzetik buztanbako txakurtalde itzela oldartzen yake. Bildurrez dar-dar, osaba-lobak igesari emoten dautsoe, eta azkenez, egal andiko kapelea, kaiñaberazko makillea ta aizkorea igesa zoroan galtzen yakezala, ler eginda etxera eltzen dira.

Luzerotxu maitea be, sarri agertzen yat. Begi eder baltzaranak neugan jarrita, irribarre egiten daust, auxe diraustala:

—Gal, Galtxu maitea, pozik al-ago ire izarragaz?

—Bai, Luzerotxu. Zeuri eskerrak, zoriona idoro dot. Ez naz zutzaz inoiz be aztuko. Noizean bein izarrak itzita, zatoz nigana oraintxe lez...

—Ez nok zutzaz aztuko, Galdu. Neretxu dok nik ire bidean jarritako izar kutuna. Maite egik beti-beti...

Eta gero, irribarrez, azkenengoz begiratzen nau, ta dantzan

egiñez, txoria bai'litzan eguratsean zear izarretarantz urruntzen yat. Neure Luzerotxu maitea, zu bai zoragarria!

Amesetan be, Ulojio lengo gabeen agertu yatan. Betiko itxura begikoaz agurtu ninduan, auxe esaten eustala: "Kaixo Kanelo". Alboan, Tinuka antzeko emakume gazte ederra eukan. Emakume onek maitasunez gainezka begiratzen eban. Nire aspaldiko ugazaba maitea ikustean, oi bat iges egin yatan:

—Ulojio, Ulojio...!

Orduan berak auxe esan eustan:

—Aspaldiko nire lagun zintzo maitea, zelan abil orain? Nik zoriona idoro yoat azkenean. Asikeran, ardoari naientsoan zaletasunagaitik, ordaindu bear izan naiuan. Il nintzuanean, eta aspaldi luzetxuan zear, ganbarako tximiñoek eraginda, txolinduta ibiltzen nintzuan. Oneik egiten yeuen astrapala...! Batetik bestera nenbiltzuan atsedeen artu eziñik; baiña egunen bidean bana-banaka joaten asi zoazan, eta noizbait neure buruaren jabe biurtu nintzuan. Andik laster, Tinuka, nire betiko amesa neugaz batu zoan, eta lurrean ez ezagaturiko zoriona, azkenez idoro naiuan. Berak eta biok gogoan beti augu. Zelan bizi aiz orain?

—Ederto, Ulojio; neuk be zoriona aurkitu dot. Sarri askotan gogoan zaitut. Mundu onetan, Tinuka ta nigaz oso ona izan zintzazan, eta Jaunak ordaindu dautsu...

—Gomutaten aiz, Kanelo, zu, txirrindolea ta irurok bidean gora ta beera joan oi gintzuanean...? Asikeratik maite izan indudan, Kanelo, ta ik nire bizitza bakartiari zorion pizka bat ekarri yeuntsan. Agur, Kanelo maitea, Tinuka ta biok gogoan izango augu beti.

—Agur, Ulojio... Noizean bein etorri zakidaz amesetan, antxiñako aldi areik gogoratzearren...

—Bai orixe! Agur, Kanelo maite ori...

Nire amesetan, on Motxu be sarri ikusten dot. Dirudianeaz, ainbeste arroakaz biotztxua ler egin yakon, eta il ondoren, artez artez Linbo'ra joan zan. Gela andiko aulki baten gau ta egun jesarrita dago.

Gose itzela jasanerazo eustalako, astean erretako sagar bi bakarrik emoten yakoz; bata eguenetan eta bestea igandeetan. Gose utsaz, Txanton'ek berak baiño zeatzago garbitzen dauz. Beti

jaiegunen begira dago. On Motxu'ri, baiña, Linbo'tik urten egingo dala lenengo eperra arrapatu dagianean, esan yako. Orretarako, jaiegunetan eizara joateko baimena emon dautsoe. Olan ba, jaiegun guztietan kapela lumaduna, zizpa ta guzti, eper ori arrapatzeko asmoz, zabaldira doa. Urtetean, auxe esaten dau:

—Gaur bai arrapatuko dodala!

Epertxu ori irabazteko, or dabil egaz egiten dauan guztiari, danba ta danba! Eper bakar ori baiña, arrapaeziña da. Burumakur eta guztiz nekatuta, gabean Linbo'ra barriro. Bene-benetan, On Motxu gaisoari tamala dautsat.

Ez dakit egia izango ete-dan, baiñan Linbo'n bala-bala ei'da, lau arroatara beeratu daitenean, eper madarikatua arrapatzeko gauza izango dala. Doan bidetik luzaro barik lau arroatik beerako mugea lortuko dau, jantzia alde guztietatik, txori-malo baten antzera eskegiten yako-ta...

Eta Txanton? Au be askotan dakust. Gure gizona il zanean, Bizkai'ko baselizetan irudia daben santu guztiek, batzar bat ospatu ei'eben, eta Txanton duan egiten dan azkenengo bidaldia beteteko abiatzen zala zerura yoango zalakoan, ara non santuek ago batez zeruan sartu aurretik, oben-ordain bat jarri eutsoela... Eta Txanton'ek apal-apal ontzat artu bear izan eban. Ara...

Santu bakotxaren eguna ospatzeko egin oi diran gure erromeri guztietan, itsuarena egiñez, gure Txanton'ek bide-ertzean eskean jardungo dau. Baturiko diru guztia, urrengo egunean Urkiola'ko Andoni Deuna'ri emongo dautso. Eta berak mundu onetan marrokeriz baturiko beste Urkiola'ko atabakan sartu dagianean, zeruko ateak edegiko yakoz.

Bizitzan zear itsuarena egiñaz, diru-mordo itzela batu eban, antza, ta orain or dabil Txanton gaisoa, zorion-eguna noiz etorriko yakon antzi ta antzi. Dirudianez, baiña, aspaldi luzerako oben-ordaiña ditxarokio. Ordainketa gutxitu dagioen, santuai arren eta arren diardu; baiña oneik ezetz eta ezetz, ez dala barkamenik izango azkenengo txiña Urkiola'ko atabakan sartu arte. Baiña...

Arazo onetan, Pantxike aren alarguna be aintzakotzat artu bear da. Dei ezkutu edo mandatu zerutiarrari jarraituz, emakume zintzo onek bere senar zanaren alde, astero-astero Urkiola'n meza

bat agindu dau, ta ekintza oni esker, San Antonio'ri, antza, biotza biguntzen asi yako. Ba-daiteke, beraz, gure Txanton'ek bere begira dagoan zoriona, aurretiaz irabaztea...

Martin, ostera, aspaldidanik zeruan dago. Il zan une berean, zeruetako ateak zabaldu yakozan, eta munduan izandako kokoloek benetako arrera maitetsua egin eutsoen. Emazteari buruz, zoritxarrez, ezin dagikegu orixe berori esan.

Il zanetik ona, Serapiñe'k bere ordaiña beteten diardu. Bai, senarrari ordaindu bear dautso, ainbeste urtetan emondako bizikera errukarria. Egunoro, bazkari ta aparirako jaki gozoenak Martiñ'entzat atondu bear ditu. Apal-ostean, senarrari auxe itauntzen dautso:

—Martintxu, nire biotzeko orrek, zer gura dozu biarko atontzea?

—Ona, bai: bazkaltzeko ekarri egidazu lapikoko gozoa, odoloste, saiets eta guzti. Gero, Bizkai erako makaillau samurra, ta amaitzeko labeen erretako sagar-opilla. Ez aztu, gero, Biaizteri'ko ardao bikaiña, bai ta bazkari on bati dagokiozan akeita, txola ta txokorra.

—Bai, Martin. Eta aparirako?

—Aparirako... atzoko porrusaldea ez zan makala, baiña egazti-zukua gorringo bataz naiago neuke. Gero, Naparra erako txilindron, eta mai-azkentzat intxaur-saltsa. Jakiña, Biaizteri'ko ardaoaz lagunduta.

—Bai, Martintxu. Atsegin izan yatzuz gaurko jakiak?

—Ez dira txarrak izan, baiña txarrikume betearen erreikia, gazitxua izan da.

—Parkatu, Martin. Ori ez da barriro jazoko.

Martiñ'ek, zerbait erabilli edo artzeko, eskua luzatzen dauan bakotxean, Serapiñe gaisoa bildurrez makurtzen da, azpil edo katilluren bat burura joan dakion izuaren izuz... Egun osoan, sukalde bero-bero baten izerdi-bitsetan dago, senar maiteari jaki gozoenak atontzearren, eta sukaldaritzan ez diarduanean, mai-ontzizko meta anditzarra garbitu bear dau.

Senarrari emoniko janari txarrak aiña, jaki gozoak atondu bear izango dautsoz... eta Martiñ'ek berrogei urteotan izandako janari ezain eta zaborreria ez da makala izan. Serapiñe'k, beraz,

ba-ditu urte-mordo batez bereak jasan bear, Martiñ'egaz betiko zoriona txastatu aurretik.

Zerbaitek ba-diñost. "Izarra" nire azkenengo bizitokia izango dala. Nik neuk ez dot besterik gura. Neretxu bizi-bizi maite dot, baita berak ni be. Egunen bidean, gure alkarganako maitasuna andiagoa egiten da, ta nire zorionak ez dau mugarik ezagutzen, ugazabatxuagaz egurastera noanean. Inguruko zabaldua eder-ederra da, ta nire ondoan Neretxu ta beean urrutiraiño edatzen dan Mungialde zoragarria ditudanean, jasandako gose ta baka-rraldiak aspaldiko laiñoan ezabatzen yataz. Ez dot besterik gogoan, biotza gaiñezka beteten daustan senaz beteriko oraintasun pozgarria baiño.

Aspalditxutik, Neretxu bere aitagaz zerbait mutur dago. Aitak jakiñerazo dautso, eper-sasoian aspaldi baterako eroango nauala, ta Neretxu'k ez dau olakorrik entzun gura. Berea nazan ezkerro, ni eroateko baimenik ez dauala emongo, esan dautso aitari. Azkenean, aitak Neretxu'ren baimena lortu dau, baiña onek azalpen bereizia eskatzen dau.

Oraintsu, Lizartza errotatik nenbillela, Txene, errotako txakur-eme zoragarria ezagutu neban. Begi gozo samurrak zituan, eta ari erion erakarpenak zoratu egin ninduan. Arrezkerro, Lizartza'koek nire ugazabari jakiñaren gaiñean jarri ondoren, etxe biek ago batez erabagi eben, enda bikaiñeko eiza-txakurrak izanik, Txene ta bion arteko maitasunari eragozpenik ez ipintea. Olan ba, Lizartza'ko errotan orain txakurkume-talde baten zain dagoz.

Mugialde'ko ekandu bati jarraituz, kume-talde bateko aitarren nagusiari talde-artean, bat aukeratzea dagokio. Etxekojau-nak, beraz, eizatsera eroan nagianean, Lizartza'n jaioriko txakur-kumerik ederrena, etxean betiko geratuko dala, Neretxu'ri agindu dautso. Orduan onek, aste batez etxetik ni eroateko baietza emon dautso. Orain pozaren pozez dabil, txakurkumetxua noiz etorriko dan begira.

Izan be, ez da gutxiagorako... Mungialde guztiko arritasuna izan dan Pinto Andia'ren billobatxu bat...

A M A I A